

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua

Euskararen Aholku Batzordea
2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua

Euskararen Aholku Batzordea 2015

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:	I.a, 2015eko urria
Ale-kopurua:	1.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Euskararen Aholku Batzordea
Fotokonposizioa:	EkipoPO
Inprimaketa:	Centro Gráfico Ganboa
ISBN:	978-84-457-3389-9
L.G.:	SS-1335-2015

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	7
Euskararen hazkunde iraunkorra helburu, berrikuntza lege	9
1. Atala	11
1. Sarrera	15
2. Planaren helburu nagusia	20
3. Helburu estrategikoak	22
4. Helburuak lortzeko zehar-lerroak	25
5. Euskararen erabilera eta hizkuntza eskubideak	27
6. Ekintza planak izango dituen esparruak eta zehar-lerroak	29
7. Egungo egoeraren diagnostiko laburra eta zer hobetuak	30
2. Atala	43
Esparrukako neuri-ekintzak	45
1. Familia bidezko transmisioa	47
2. Irakaskuntza	49
3. Euskalduntze eta alfabetatzea	53
4. Administrazioa	57
5. Gune geografiko euskaldunenak	63
6. Arlo sozioekonomikoa	65
7. Aisia eta kirola	70
8. Liburugintza	75
9. Kulturgintza	77
10. Publizitatea	79
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	81
12. Hedabideak	84
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	88
14. Sentsibilizazioa eta motibazioa	91
15. Barruko proiektzioa	96
16. Kanpoko proiektzioa	99
3. Atala	103
1. ESEPen diagnostikoa sakontzeko AMIA	105
2. Euskara-gaitasuna eta jabekuntza	106
3. Euskararen erabilera	117
4. Euskararen elikadura	138
5. Motibazioak eta jarrerak	157
5. AMIAren laburpen taulak	165

4. Eranskinak	175
1. Plana egiteko prozedura eta egutegia.	177
2. Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarraipena egiteko urratsak	181
3. Euskararen Aholku Batzordea	182

HITZAURREA

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua

Euskara biziberritzeko lanetan bide luzea egina dute euskal gizarteak eta bere herri erakundeek. Emaitzak ere bistakoak dira, gaur egun mundu osoko adituen arreta bereganatzen baitu euskararen biziberritze prozesuak, bai lorpenen garrantziagatik, bai lorpen horien iturburuan hasiera-hasieratik izan den adostasun eta akordiorako joera garbiagatik ere. Horixe izan baita, akordioa etengabe bilatu eta sendotzea alegia, hizkuntza politikaren ardura dugunon eta gure aurretik izan dutenen helburu nagusietariko bat, eta horretan dago, nire ustez, euskararen aurrerapen nabarmenaren giltzarrietako bat.

Ikuspegi eta konbentzimendu horretatik heldu zitzaion 2005-2009 legealdian *Euskara 21. XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak* izeneko gogoeta sakon eta zabalari. Parte hartze aberatsa izan zuen prozesu hark *Itun beritu baterantz* txostena eman zigun, ondorio nagusien bilduma gisa. Eusko Legebiltzarrak 2009an onartu zituen ondorio nagusi horiek mugari garrantzitsu bat gehitu zioten Autonomia Estatutua, Euskararen Legea eta hezkuntzako hizkuntza ereduak kate begi nagusi dituen hizkuntza politikaren alorreko adostasun sozial eta politikoaren sekuentziari. Ondorio haien artean, honako hau irakur dezakegu: "Itun beritu baten atarian, ezinbestez adostu beharko da *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren* (EBPN) berrikuspena". Oinarri horren ondorioz, Euskararen Aholku Batzordeak euskara biziberritzeko plangintzaren sakoneko azterketari ekin zion, eta, bi urte luzeko lanaren ondoren, *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana* (ESEP) eman zen argitara.

Hamar urterako plana da ESEP, eta euskara biziberritzeko plangintzan EBPNren lekukoa hartzera heldu zen, euskararen erabilera areagotzea erronka nagusi duen ibilbidean. Planaren edukari dagokionez, 16 esparrutan banatzen dira ESEPEk jasotzen dituen 340tik gora ekintzak: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, euskalduntzea eta alfabetatzea, administrazioa, gune geografiko euskaldunenak, arlo sozioekonomikoa, aisia eta kirola, liburugintza, kulturagintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, sentsibilizazioa eta motibazioa, barruko proiektzioa eta kanpoko proiektzioa. Horien guztien abiaburu, "Egungo egoeraren diagnostiko laburra eta zer hobetuak" atalean jaso ziren ESEPen eragin esparrua izateko zen errealitate soziolinguistikokoaren ezaugarri nagusitzat jo zirenak.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak bitan egin zuen bere, eta Eusko Legebiltzarrak, 2013ko irailaren 11n, berretsi egin zuen ESEP, "aipatu planaren helburu, neurri eta ekintzak

bere” eginez. Eusko Legebiltzarrak, ESEP berrestean, beharrezkotzat jo zuen “Euskararen Aholku Batzordeak 2013ko ekainaren 28ko Osoko Bilkuran aho batez onetsitako lan programan ESEPen diagnostikoa eta adierazleak sakondu eta osatzeari buruz finkatutakoa egitea”.

Legebiltzarrak, horrenbestez, zuzen-zuzenean aipatzen zuen Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkurak Euskara 21 Batzorde-atal Bereziaren lanak zehazterakoan hartutako akordioa, honako hau zioena, hain zuzen ere: “ESEPe jasotzen duen diagnostikoa sakondu eta osatzea, gaur egun eremu bakoitzari buruz dugun ezagutzatik abiatuta. Helburua, jakina, ESEPen beraren hurrengo urteetako garapenari oinarri sendoa eskaintzea da. Diagnostikoaren lanketa horretan, eta ESEPe finkatzen dituen neurrien adierazleak izango direnez abiapuntua, adierazle horiek diagnostikoa behar bezala osatzeko izan dezaketen erabilgarritasun-maila aztertuko da, nolabaiteko fintzerik behar lezaketenak identifikatu eta lantzeko”.

Euskararen Aholku Batzordeak 2014ko abenduaren 1ean egindako Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion Euskara 21 Batzorde-atalak lehenago itxitzat eman zuen ESEPen diagnostikoa osatzera datorren AMIA dokumentua, modu horretan betez bere gain hartutako konpromisoa. Eta hori da, hain zuzen ere, gaur berrargitaratzen dugun ESEP dokumentuak dakarren berrikuntza.

ESEPen ibilbidean urrats bat gehiago ematen dugu gaur, plangintza eragingarri batek ezinbesteko osagarri baititu dinamikotasuna eta berrikuntza.

Biziki eskertu nahi dut, amaitzeko, AMIA dokumentuaren lanketan parte hartu duten batzordekide eta gainerako aditu guzti-guztien lan eskerga, aparteko balio erantsia duen lanabesa jarri baitigute eskura, euskara biziberritzeko bidean are modu eraginkorragoan aurrera jarraitzeko.

Mila esker, beraz, denoi.

EUSKARAREN HAZKUNDE IRAUNKORRA HELBURU, BERRIKUNTZA LEGE

Patxi Baztarrika Galparsoro
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, urrats sendoa egin du euskarak, azken hogeita hamar urteotan, pertsona elebidunez osaturiko gizarte elebidun baterantz pixkanaka hurbildu behar gaituen bidean: 300.000 hiztun baino gehiago irabazi ditu, eta gizartean historikoki arrotz eta debeku izan dituen erabilera esparruetan tokia hartu du, neurri ezberdinetan.

Euskararen biziraupenari itxaropenez begiratzeko modua eskaintzen digun urrats hori, ordea, ez da berez atzera egin ez dezakeen aurrerapena. Irabazitakoa gal edo moteldu liteke, baldin eta herri aginteek, gizarteak oro har eta, oso bereziki, herritar bakoitzak konpromiso eta ahaleginari modu iraunkor eta eragingarrian eusten ez badiogu. Dinamika sozial konplexua baita hizkuntza bat biziberritzearena, besteak beste askotariko esparru eta jardueratan eragiten duelako, eta, azken finean, herritarron borondatea edo nahia duelako ezinbesteko giltzarri.

Denok dakigunez, euskara hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan, baina hori bezain argi dakigu, eguneroko bizitzan errealitate horren aztamak antzeman ditzakegulako, bi hizkuntzen arteko legezko berdintasun horri ez dagokiola, gaur, egoera soziolinguistiko orekatu bat. Hortaz, euskara hedatu eta indartu behar den bitartean, gaztelania sendo bizi da gure gizartean.

Etorkizun osasuntsu baten bila arian-arian oreka soziolinguistiko horretara hurbilduz joateko, euskarak, gaur, bizi-indarrarena du aurrez aurre begiratu beharreko erronka, ziurtatua baitu biziraupena, azken hamarkadotako lanari esker, gutxienez datozen bizpahiru belaunaldietarako. Ezin genezake, ordea, beste hainbeste esan bizi-indarrari eta hazkunde funtzionalari dagokienez.

Esku artean duzun argitalpen eraberritu honek jasotzen duen *Euskara Sustatzeko Ekintza Planak* (ESEP), hain zuzen ere, kontsiderazio horietatik edaten du, *Euskara 21* gogoeta prozesuak eskainitako oinarri eta orientabideetatik bezainbeste, eta ekarpen sendoa egiten dio euskara biziberritzeko prozesu historikoari.

Izan ere, begirada atzera zuzentzen baldin badugu, ikusiko dugu 1998an *Euskararen Aholku Batzordeak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia* (EBPN) onartu zuela. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, ondoren, plan hura, eta 1999an Eusko Legebiltzarrak berretsi egin zuen.

Handik urte batzuetara, Euskararen Aholku Batzordeak gauzatu zuen *Euskara 21* gogoeta prozesua, XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak finkatzeko xedez. *Itun beritu baterantz* izeneko dokumentua ondu eta onetsiz burutu zuen Euskararen Aholku Batzordeak, 2009an, aniztasuna eta adostasuna, eta, nola ez, eragingarritasuna, iparrorratz izan zituen gogoeta prozesu hura. Aipatu dokumentuaren azken esaldiak, gomendio argi bat jasotzen zuen: "Neurri eta sakonera horretako itun beritu baten atarian, ezinbestez adostu beharreko helburua da *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren* (EBPN) berrikuspena, lanabes baliotsu hori XXI. mende hasierari begira findu eta egokitzeko".

Orientabide horrek seinalatutako bidetik aurrera eginez, Euskararen Aholku Batzordeak egin eta 2012an onetsi zuen *Euskara Sustatzeko Ekintza Plan* (ESEP) hau, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2012an eta 2013an bere egin zuena, eta Legebiltzarrak ere 2013ko irailaren 11n bere egin zuena.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), Euskararen Aholku Batzordeak legealdi honetan egin zuen lehen Osoko Bilkuran, legealdirako bere lan-ildo nagusien berri eman zuen, eta horien artean, honako hau jasotzen zen: "ESEP (*Euskara Sustatzeko Ekintza Plana*, 2012ko udan Euskararen Aholku Batzordeak onartu zuena) abian jarri eta bere gauzatzearen jarraipena egingo dugu. Aldi berean, aipaturiko ESEP diagnostikoaren eta ebaluazioaren aldetik osatzeko lanak bultzatuko ditugu Euskararen Aholku Batzordearen baitan".

Horrekin batera, beste lan-ildo zehatz bat hartu zuen bere gain HPSk, 2012-2016 legealdirako: "Legealdirako *Euskararen Agenda Estrategikoa* diseinatu, onartu eta abian jartzea". Lan-ildo hori, zuzenean lotzen zaio Eusko Jaurlaritzaren legealdi honetako jarduera gidatzen duen *Gobernu Programak* zehaztutakoari: "Hizkuntza politika gobernuaren ekintzaren zeharkako ardatz gisa ezartzeko beharrezkoak diren arauzko tresnak eta sailen arteko lanabesak garatzea" (*Gobernu Programaren* 2.3 atala: Konpromisoak euskararekin eta hizkuntza bizikidetzarekin; 9. xedea).

Lan-ildo horiek jorratu ditu, honezkero, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta Eusko Jaurlaritzak onartua duen *Euskararen Agenda Estrategikoa* (2013-2016) ESEP planak berriaz Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eginkizunak lau urteotarako jaso eta beste hainbat ekintza berri ere bereganatzen ditu. ESEPe gain, Eusko Jaurlaritzaren *Euskararen Agenda Estrategikoa* (2013-2016) baditu beste hainbat osagai: *Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia* (V. Plangintzaldia), *Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2. Plana*, *EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan*

Orokorra (2011-2020) eta Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plana, baita EITBren I. Euskara Plana ere.

Hizkuntza plangintzaren adibide gisa har bedi Eusko Jaurlaritzaren *Euskararen Agenda Estrategikoa*n ESEPeK izan duen eragin zuzenaren aipamen hau. Baina berrargitalpen honetan aipamen berezia eskatzen du, nire ustez, Euskararen Aholku Batzordeak, Euskara 21 Batzorde-atal Bereziaren bidez, burutu duen ESEPen diagnostikoa sakontzeko lanak, argitalpen honetan eransten denak, eta Legebiltzarrak 2013ko irailaren 11n ESEP bere egitearekin batera emandako jarraibidea betetzera datorrenak (“Eusko Legebiltzarrak beharrezko ikusten du (...) ESEPen diagnostikoa eta adierazleak sakondu eta osatzeari buruz [Euskararen Aholku Batzordeak] finkatutakoa egitea”). Lan horren emaitza da, hain zuzen ere, Euskararen Aholku Batzordeak, Euskara 21 Batzorde-atal Bereziak aldeztetik testua itxi eta gero, onartu duen AMIA dokumentua, ESEPen berrargitalpen honetan jasotzen dena eta 2012an onarturiko ESEPen osagai berri bihurtu dena. Argitalpen honetan biltzen da, beraz, ESEP osotua.

AMIA dokumentuak jasotzen ditu ESEPen hiru ildo estrategikoen eta zehar-lerro baten analisisen emaitzak. Hiru ildo estrategikoen (gaitasuna eta jabeakuntza, erabilera eta elikadura) azterketa egiteko, ESEPeK berak Eusko Jaurlaritzaren eremurako 2013rako aurreikusten duen diagnostikoan jasotako informazioa baliatu da. Motibazio eta jarrerari dagokien zehar-lerroaren azterketa egiteko, berriz, eta aipaturiko diagnostikoaz gain, Euskara 21 Batzorde-atalak berak, Euskararen Aholku Batzordearen enkarguz, bultzatu duen *Euskararen Gaietako Oinarriko Diskurtsoen lanketa* baliatu da (foroa, delphiak, zenbait adituren ekarpenak, etab.).

Hizkuntza plangintzari begira ESEP berez den lanabes ezinbestekoa aberastu dugulakoan gaude, eta zoriondu nahi nituzke horregatik, lehenik, 2011-2012an ESEP egiteko lana burutu zuten guztiak, eta, ondoren, berariaz, 2012-2015 aldian Euskararen Aholku Batzordeko eta Euskara 21 Batzorde-ataleko kide izan diren eta diren guztiak, eta bai epealdi horretan ESEPen lanketan eta 2013ko neurketan eta AMIA analisisian parte hartu duten aditu guztiak, ESEP osotua egin izanagatik.

Bejondeizuela, bejondeigula denoi!

I. ATALA

I. SARRERA

1.1. Zertzelada historikoak

Euskara Europaren mendebaleko hizkuntza ez-indoeuropar bakarra da. Haren isolamendu genetikoak eta historia luzeak beti piztu izan dute jakin-min berezia. Euskararen aurrekaria den hizkuntza baten lehen aztarnak duela bi mila urte ingurukoak dira: idazle klasikoek jasotako toki-izenak eta II. eta III. mendeetan Pirinioez bi aldeetan idatzitako inskripzioetako akitanierazko hitzak, horien artean pertsona- eta jainko-izenak. XI. mendekoak dira, berriz, Donemiliaga Kukulako monasterioan gorde diren euskarazko lehen bi esaldiak. Hala ere, XVI. mendearen erdira arte euskarak ez zuen idatzizko tradizio iraunkorrik izan.

Euskara gaur egungoa baino zabalagoa zen eremu batean hitz egin zen iraganean. Azken mendeetan atzera egin du, Araban lehenago, Nafarroan gero, baina baliteke Erdi Aroaren hasieran lurralde batzuk irabazi izana (Errioxa eta Bureba, kasu). Historian zehar, euskara beste hizkuntza askorekin egon da harremanetan, hirurekin bereziki, latinaz gain: gaztelaniarekin, gaskoiarekin eta frantsesarekin. Euskal Herriko lurraldeetako foruak hiru hizkuntza horietan daude eta horietantxe jardun ohi zuten foru erakundeek. Euskarak hitz asko hartu ditu erromantze horietatik eta, garbi ez badago ere, badirudi nolabaiteko eragina izan zuela gaztelaniaren eta gaskoiaren sorreran.

Salbuespenak salbuespen, XX. mendera arte euskara ez zen hizkuntza administratiboa izan. Hori gertatu zen, neurri handi batean, Euskal Herrian nobleziak eta burgesiak estatu-hizkuntzen alde jo izan zutelako. Europako eremu urriko beste hizkuntza batzuei gertatu zaien bezala, euskara gehiago izan da erdi eta behe mailletako klaseen mintzaira goi mailakoarena baino eta gehiago baserrikoa kalekoa baino. Hori ez da jadanik gertatzen, euskaldun gehienak hirietan bizi direlako.

Gure hizkuntzari behar zuen tornua emateko ahaleginak XVI. mendean hasi ziren, baina ahalegin horiek gehienetan eragile bakan batzuen eskutik egin ziren. Europako beste hainbat herritan bezala, Euskal Herrian ere izan zen *pizkunde* bat, Lapurditik abiatu zena, XIX. mendearen erdian.

Bigarren Errepublikaren garaian, 1936garren urtean, euskarari ofizialkidetasuna aitortu zitzaion lehenbizikoz euskal autonomia estatutuak bildutako hiru herrialdeetan: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Zortzi hilabete eskas egon zen indarrean. Izan ere, artean hasita zegoen gerra zibilar 40 urteko diktadurak jarraitu zion eta erregimen berriak gaztelania ez beste hizkuntza guztiak zapaldu zituen Espainian. Diktaduraren azken urteetan ordea, hirurogeiko hamarkadan, euskararen alde inoiz izandako mugimendurik handiena sortu zen. Ikastolak eta gau-eskolak ugaltu egin ziren urte haietan. Orduan ereindako fruituen uzta biltzen ari gara oraindik.

1.2. Euskara azken hamarkadetan

Gaur gaurkoz asko falta da euskararen normalizazioa lortzeko, baina ezin da ukatu Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan, behintzat, aurrerapauso sendoak eman direla horretarantz. Indar politiko eta sozialen adostasuna ia erabatekoa da. Euskararen aldeko adostasun hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean gauzatu zen 1982an, Gernikako Estatutuaren babesean. Euskaraz aritzeko oinarrizko eskubideaz gain, Legeak herri-aginteen funtzioak eta betebeharrak ezarri zituen euskararen normalizaziorako lehentasunezkoak diren hainbat esparrutan (hezkuntzan, herri-administrazio orokorrean, justizian, hedabideen eta gizarte-erabileraren alorretan), gizartearen harrera ona izan zutenak. Legea garatu ahala, euskarak susperraldi nabaria izan du eta prozesuan funtsezkoak izan dira euskal gizartearen borondatea eta borondate horrekiko errespetua. Orduan lortutako adostasuna etorkizunean ere landu eta zaindu beharreko balorea da, inondik ere. Bestalde, aipatu legearen bidez Euskal Autonomia Erkidego osoan aitortu zaio euskarari ofizialtasuna eta aitorten hori ez da mugatu euskara hitz egiten den tokietara bakarrik. Hori ez da eremu urriko beste hizkuntza batzuen kasuan gertatzen, ez eta, euskarari berari dagokionez, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere.

16 | Hein handi batean euskararen historia hizkuntzaren bizi-iraupenarena da, beti aldekoak izan ez diren baldintzetan, gainera. Historian zehar euskarak gaitasun handia erakutsi du bizirik jarraitzeko. Euskara ez da hizkuntza zahar bat, hizkuntza modemo eta malgu bat baizik, gaurko bizitzarako balio duena. Baina, errealitatea aldakorra da eta, beraz, euskararen garapenerako tresnak ere aldatu behar dira. Duela hamahiru urte onetsi zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN). Bere garaian mugarri bat izan zen, eta hizkuntza plangintza modu logiko eta praktikoan antolatu zuen, hiru helburu estrategiko (euskararen transmisioa, erabilera eta elikadura) ardatz harturik. Haren arlo batzuk, nolana ere, gaindituak daude gaur egun edo beste era bateko trataera eskatzen dute. Plan nagusi haren oinarrizko osagai asko bere horretan mantendu daitezke, baina beste zenbait egungo premietara egokitu behar dira. Horrekin batera, euskararen sustapenean pisu handiagoa hartu duten alor berriei ere arreta eskaini behar zaie. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena izan zen, hain zuzen ere, *Euskara 21* izeneko gogoeta prozesuaren ondorioz adostu zen *Itun beritu baterantz* (2009) izeneko txostenean jaso ziren egitekoetako bat, agian egiteko nagusia. Txostenean adierazi zen bezala, "ezinbestez adostu beharreko helburua da Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) berrikuspena, lanabes baliotsu hori XXI. mende hasierari begira findu eta egokitzeko".

Euskara 21 ekimenak proposamen hori eta beste batzuk egin zituen, eta batez ere hogeita batgarren mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak finkatu zituen. Euskararen Aholku Batzordearen baruko eztabaida 2008ko lehen hilabeteetan abiatu zen eta, gizartearen parte-hartze zabal baten ondoren, 2009aren hasieran behin betiko txostena prestatu eta ezagutarazi zen, *Itun beritu baterantz* izeneko, gorago aipatu bezala. Dokumentuak adostasun zabala lortu zuen urte berean Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zenean, hizkuntza politikaren

alorrean oinarizko kontsentsuak sendotzen ari direlako seinale. 2009ko irailaren 23ko Osoko Bilkuran Eusko Legebiltzarrak *Euskara 21* ekimenarekin aurrera jarraitzeari buruzko Legez besteko proposamena onartu zuen. Bertan Eusko Jaurlaritzari eskatu zion “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren berrikuspena ezinbestean adosteko, eta bera Eusko Legebiltzarrean aurkezteko, EAEko errealitate soziolinguistiko anitzei arreta emanda”.

Euskara 21 ekimenaren ondorio nagusiak hamalau lehentasunezko ildo hauetan laburbildu ziren:

1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten amasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunetara belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hitzunik sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
4. Euskal hitzunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hitzun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.

11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.
12. Euskararen irudiar prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiak baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.
14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.

18

Ildo horiek dira EBPNren berrikuspenak eta hari jarraipena emango dion planak eduki behar dituen oinarri teorikoak, hizkuntza plangintzaren antolamenduarekin modu egoki eta eraginkorrean uztartu beharrekoak.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) berrikusteko bidean, 2011ko apirilean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 101 adierazlez osatutako euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Txostenean bildutako datuek erakusten dutenez, euskararen normalizazio prozesuan izan diren aurrerapauso azpimarragarrienak hiru arlotan eman dira: hezkuntzan, liburugintzan eta informazio eta komunikazioaren teknologietan. Hezkuntzako ikasteredu elebidunek ageriko gorakada izan dute azken urteetan, eta gaur egun haurren % 90tik gora hasten da ikasten eredu elebidunen batean (D ereduan ikasleen % 65 baino zerbait gehiago, B ereduan % 25 inguru). Liburugintzaren alorrean, duela hamar urte argitaratzen zen liburu kopurua bikoiztu egin da eta orain euskaraz irakurtzeko aukerak hedatu eta aberastu egin dira. Besterik da jakitea, kontsumoaz gainera, zein irakurketa maila lortu dugun. Hori argitzeko eta egoerari erantzun diezaioketen neurri egokiak hartu ahal izateko, ezinbestekoak izango dira azterlan berezituak. Azkenik, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan ere bilakaera ikusgarria izan dugu azken urteetan. Gero eta tresna informatiko gehiago lokalizatzen dira euskarara eta, sortu ere, sortzen dira euskaraz eta euskararako. Sarean ere hazten ari da euskaraz nabigatzen dutenen kopurua: hamar urtean bikoiztu egin da, berrehun mila lagunera

iritsiz. Beste alor batzuetan, erritmo ezberdinean bada ere, euskararen presentzia sendotuz doa, hala administrazioan nola eremu pribatuan edo kirol eta aisialdiko jardueretan. Desorekak, edonola ere, badaude eta batzuetan nabarmenak dira: hezkuntzan, adibidez, lanbide heziketako hizkuntza eredu elebidunetan ikasleen % 26 inguru besterik ez dago. Ez du esan nahi aurrerapausoak eman ez direnik, izan ere hamar urtean % 15 igo baita D eredia, baina, zalantzarik gabe, eta hemen hainbat aldagai egon daitezke tartean, euskalduntze prozesua mantsoago doa lanbide heziketan.

Datozen hamar urteetarako hizkuntza plangintzak euskararen bilakaeraren indarguneak baliatu eta ahuleziak zuzendu behar ditu. Plangintza horrek arestian adierazitako hiru osagaiak ditu abiapuntu: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, *Euskara 21* ekimenaren txostenak (horien artean, *Itun beritu baterantz* dokumentua) eta euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleen txostena. Horien oinarrian, Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, plan berria diseinatu du, eta emaitza Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) da.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana datozen hamar urteetan garatuko den hizkuntza politikaren neurri-proposamenak jasotzera dator. Alde horretatik, *Euskara 21* ekimenean adierazitako oinarri eta gidalerroen aplikazio praktikoa izan nahi du. Euskara Sustatzeko Ekintza Planak biltzen dituen proposamen eta neurrien jarraipena egiteko adierazleen arabeko sistema bat ezartzea beharrezkoa da, gauzatzen diren jardueren eraginkortasuna neurtzeko eta planaren aldiroko ebaluazioa egin ahal izateko (ik. eranskina). Plan berria, aurrekoa bezala, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gauzatuko da. Nolanahi ere, Euskadiko herri-aginteek elkarlana eta lankidetzaren indartzen jarraitu behar dute euskararen gainerako lurraldeetako erakundeekin, hizkuntza politikaren garapenean.

2. PLANAREN HELBURU NAGUSIA

Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen normalizazioa bilatzen duen hizkuntza politika hogeita hamar urte betetzera doan garai honetan, gero eta argiago nabaritzen da egungo eta etorkizuneko erronka nagusia, *Euskara 21* gogoeta prozesuan azpimarratu zen bezala, hizkuntzaren erabilera dela. Errealitate ezaguna da euskararen erabilera ezagutza baino apalagoa dela. Hala adierazten digute ikerlan soziolinguistiko guztiek: datuetan azaleratzen diren ezberdintasun txikiak gorabehera, azken urteotako joera gardena da. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, eta V. Inkesta Soziolinguistikoak emandako datuen arabera, elebidunak % 32 dira hamasei urte edo gehiagoko biztanleen artean (1991n baino 8 puntu gehiago). Aldiz, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenek % 20 osatzen dute (duela hogeitau urte baino 4 puntu gehiago). Hazkunde erritmo ezberdin horiek areagotu egin dute ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen aldea. Hortaz, eta ezagutzaren eremuan oraindik ere urrats sendoak egin behar diren arren, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea murrizteko bidean, plan honen helburu nagusia euskararen erabilera indartzea izango da. Horretarako, eta euskararen hiztun-elkartearen kohesioa areagotzeko, ekimen eraginkorrak bultzatuko dira. Helburu horren pezikizan, euskal gizarteari bere osotasunean dagokio euskara erabiltzeko aukerak eta guneak bermatu, zaindu eta sustatzea, eta herri administrazioek zeregin horretan lagundu behar diote, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen 5. artikulua dioena gauzatze bidean jartzeko: "Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz". Euskararen erabilera sendotu eta zabaltzea gizarte egiatan elebidun bateranzko urrats ezinbestekoa da.

20

Euskararen funtzio soziolinguistikoetan eta hedapen sozialean aurrerapauso handiak eman diren arren, hainbat gizarte-esparrutan oso ahula da euskarak duen presentzia. Gehien aurreratu duen eremuetan ere egoera ez da inola ere erdaren parekoa. Hala ere, erabileraren egunerokotasunetik oraindik urrun gauden une hauetan, arriskutsua izan daiteke lehentasun garbirik finkatu gabe aldi berean eta esparru guztietara hedatu nahi izatea. Horrexegatik, plan honek lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatuko ditu, hizkuntza politikako neurriak erabaki eta aplikatuz euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko eta botere publikoek babestu beharreko herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezen eguneroko jardunean. Gure gizarte osoaren zeregina den aldetik, herritarren euskararekiko atxikimendua ezinbesteko baldintza da, orain arte egindako ahaleginei jarraipena emateko. Ezagutzan bezainbesteko eragina edo, seguru asko, handiagoa du erabileran herritar bakoitzaren hizkuntzarekiko konpromisoak. Eta atxikimendu hori pertsuasio eta erakargarritasunetik etorri ohi da batez ere.

Erabilera bultzatzeko lanean hiru zutabe hartu behar dira kontuan: hizkuntza eskubideen aitorpena eta babesa, alde batetik; euskararen hiztun-elkartearen dimentsioa bera, bestetik; eta, azkenik, euskararen eta euskal kulturaren erakargarritasuna. Oinarrizko hiru osagai horiek, beste batzuekin batera, plan honen helburu estrategikoetan eta dagozkien ekintza lerroetan zehaztu eta garatuko dira.

Euskararen normalizazio soziala bermatzeko eta euskal gizartearen elebitasun orekatua lortzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak definituko ditu Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, EAEn, maila guztietan euskararen erabilera osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzeko bidean. Edozein direla ere euskararen erabileraren alde egiten diren ahaleginak eta hartzen diren neurriak, hizkuntza politikak beti izango ditu oinarri adostasuna eta progresibotasuna. Horiek beharrezko baldintzak dira hizkuntzen tratamendua onuragarria izan dadin gizarte kohesioarentzat.

Euskararen erabilera bultzatzeko, *Itun beritu baterantz* dokumentuan bildutako hamalau lehentasunezko ildoak izango ditu gidari datozen urteetako hizkuntza politikak. Ekintza plan berriak ildo horiek neurri zehatzez mamitu eta praktikara eramateko moduan egokituko ditu.

3. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Hizkuntza plangintza berria hiru helburu estrategikoren inguruan antolatuko da. Bat, ezinbestez, helburu nagusia baita, euskararen erabilera izango da. Erabilerarekin batera jabekuntzak eta elikadurak osatzen dute helburuen atala.

3.1. Euskararen jabekuntza

Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, alde batetik, euskarazko irakaskuntza, bestetik, eta helduen euskalduntzea edota euskalduntze-alfabetatzea, azkenik. Euskara lehen hizkuntza modura belaunez belaun transmititzen da, baina prozesu horretan eskolak ere zeresan handia du. Horrezaz gain, eskolak euskara bigarren hizkuntza gisa transmititzen du, helduen euskalduntzeak bezala.

Hizkuntzaren geroratzea gainerako helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Azken urteetako bilakaeraren arabera, belaunaldi gazteetan jabekuntza prozesua bermatze bidean dagoela esan daiteke. Etorkizunean ere bermatzen jarraitu behar dugu. Hiru bideak (familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta euskalduntze-alfabetatzea) zaindu behar dira horretarako, garrantzi ezberdinekoak izanda ere.

Hezkuntza sistema eraldatuko duten berrikuntzak medio, etorkizuneko ikasketa planen eremuan euskarak bi hizkuntza izango ditu bizikide, gaztelania eta ingelesa (edo beste atzerriko hizkuntza bat). Orain arte ezagutu ditugun ereduak sistema hirueledun berriak gaindituko ditu, seguru asko, haien ordez hezkuntza-marko bateratu eta malgu bat ezarri. Baldintza hauetan eskolak ahalegin berezia egin behar du euskara behar besteko mailan eta sendotasunez irakasteko (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarriko Legeak bere 17. artikuluan dioena bermatzeko: "Jaurkitzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu").

Horrekin batera, ikaste-prozesuaren ikuspegi komunikatiboa indartu beharko da. "Lehenengo ikasi eta ondoren erabiltzen hasi" planteamenduaren ondoan, "ikasi bitartean erabili" edo "ikasteko erabili" ikuspegiak egokiagoa dirudi. Era horretan jabekuntza, batez ere eskolaren bitartez, hizkuntzaren erabilerarekin uztartuko genuke prozesuaren hasieratik, transmisioa erabat gauzatzeko erabilerari lekua egin behar baitzaio.

Euskara etorkinengana hurbiltzea hauen integrazio zabal eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara bera erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara eramateko modu ezin egokiagoa da. Etorkizunean, eta migrazio mugimenduek orain arte erakutsi duten hazkundeari

eusten badiote, etorkinen euskara gaitasunak zeresan handia izango du hizkuntzaren osasun orokorrean.

3.2. Euskararen erabilera

Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua, hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak, inguruan harreman sare euskalduna izatea, hots, familiar, lagunartean, auzoan, kalean, sarean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea, eta, azkenik, hizkuntzen arteko oreka eta berdinkidetasun soziala helburu duen kontsentsuak elikatzen duen hizkuntzarekiko atxikimendua.

Beste maila batean bada ere, eragina du, eta ez nolana hikoia, hizkuntzaren bizitasunaz, indarraz edo adierazkortasunaz dugun pertzepzioak; azken batean, hizkuntzak duen egiazko balio funtzional eta sinbolikoaz dugun usteak.

Erabiliz zorrozten den tresna da hizkuntza. Erabiltzen ez bada, herdoildu ez ezik kamustu ere egiten baita. Horregatik zaindu behar dira ondo, hizkuntzaren ikuspegitik betiere, familiarren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza, hedabideak eta bestelako zerbitzu eta jarduerak (erlijiosoak, esaterako). Etorkizuneko erronka nagusia euskaldun guztientzat, bereziki belaunaldi berrietako euskaldunentzat, euskara heldu-aroko erabilera eremu berezi eta garrantzikoetarako erakargarri eta gaztelania bezain baliozko egitean datza, esaterako, bai kultura produktuen kontsumorako, bai eta funtzio sinboliko eta afektiboetarako ere, hala nola familiako harremanetarako, lagunarterako edo gizarte bizitarako. Heritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan emateko gaitasuna egongo dela bermatu behar da.

3.3. Euskararen elikadura

Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez (hedabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia-eragileak, etab.). Euskal hiztunak euskaraz behar ditu ereduak eta edukiak, bere hizkuntza jarduna aberasteko.

Euskararen erabilerak bi arlo nagusi ditu: bata sorkuntza eta bestea kontsumoa. Beraz, lehenik eta behin, euskarazko kalitatezko sorkuntza sustatu eta babestu behar da eta, horrekin batera, euskarazko kontsumoa indartu behar da ikuspegi askatzaile batetik euskal kulturaren

industriarekiko, ekoizleekiko eta sortzaileekiko, hau da, politika publikoen babesu ukatu gabe, betiereko diru-laguntza sistemarekiko morrontza arriskuetatik urundu behar da, ahal den neurrian, euskal kulturaren merkatua.

Kultura digitalaren garai hauetan, ahalegin bereziak bideratu behar dira sareko eduki eta aplikazioetara, ahalik eta esparru gehienetako eskaintza euskaraz izan dadin.

Garaia da, bestalde, hizkuntzaren zuzentasunaz gain beste bi irizpide hauek ere aintzakotzat hartzeko: komunikagarritasuna eta adierazkortasuna. Garrantzizkoa da, ikuspegi honetatik, euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, batez ere hiztun berrien eta gazteen hizkeraren adierazkortasunaren mesedean. Euskaldun berriari, gainera, lagundu egin behar zaio hizkuntza-ezagupenak sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen, horiek baitira adierazkortasuna elikatzen duten osagaiak.

4. HELBURUAK LORTZEKO ZEHAR-LERROAK

Helburu estrategikotzat jo diren jabekuntza, erabilera eta elikaduraren ondoan badira haiek elikatzen dituzten beste jarduera mota batzuk ere, hizkuntza plangintza integral batek kontuan izan behar dituenak. Horien artean daude euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea. Hizkuntzaren erabilerari guztiz eragiten dieten faktore hauek plan honen ekintza zehatzen atalean garatuko dira.

4.1. Euskararen aldeko motibazioa

Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea zentzu zabalean ulertu behar da, ikaste-prozesuarekin, alde batetik, eta euskararen erabilerarekin, bestetik, zerikusia izan dezakeelako. Izan ere, motibazioa ezinbesteko baldintza izaten da askotan hizkuntza ikasi eta erabiltzeko. Familia bidezko transmisioari esker euskara jaso ez duten herritarrek batzuetan zailtasunak izaten dituzte komunikatzeko orduan, beren jakite-mailak mugak dauzkalako edo dakitena adierazterakoan faktore psikologiko ezberdinek komunikazioa oztopatzen dutelako.

Erabileraren ikuspegitik, bestalde, motibazioaren eremuan sartzen dira euskara erabiltzeko argudioak ematea, hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, hizkuntza kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, hizkuntza jakitetik erabiltzera dagoen jauzia egiten laguntzeko lantegiak antolatzea edota hizkuntzaren normalizazioaren esparruan lidergoa lantzea.

Motibazioa ez da erraz lortzen diren ezaugarrietako bat, baina, sinbolikoa izan – norberaren identitatearekin lotua– edo pragmatikoa izan, behar-beharrezkoa da euskararentzako erabilera-eremuak irabazi nahi badira. Motibazioa, bestalde, sendotu daiteke, sentsibilizazio saioen eta berariazko prestakuntzaren bitartez. Jarduera horiek plan honetako ekintza zehatzen artean jaso eta garatzen dira. Ikaste prozesuarekin eta hizkuntzaren erabilerarekin batera motibazioak elkar elikatzen duten osagaien oinarritzko triangelu bat osatzen du.

4.2. Euskararen zabalkundea

Hizkuntzaren irudian eta kultur ekoizpenen prestigioan berebiziko eragina du zabalkundeak. *Euskara 21* gogoeta prozesutik ateratako ondorioen artean bik gutxienez lotura dute euskararen eta euskal kulturaren irudiarekin. Alde batetik, beharrezkotzat ematen da euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea, euskarak mundu ugari baititu bere baitan eta aniztasun hori islatu behar delako. Bestetik, oso komenigarritzat jotzen

da euskararen irudiar prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz eta euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

Euskarak, oraindik ere, badu zabalkunde egoki baten beharra, batez ere euskal gizartean, baina baita hemendik kanpo ere. 2010ean jarri da abian Etxepare Institutua, euskararen eta euskal kulturaren ezagutza munduan zehar zabaltzeko helburuarekin. Euskararen kanpoko proiektzioa urratsak egiten ari den bitartean, nazioarteko erakundeekiko hitzarmenen bitartez edo pixkanaka gehituz doazen lektoretzei esker, gizarte barneko proiektzioari ere arreta eskaini behar zaio, hizkuntzaren erabilera areagotzeko giltzarrietako bat euskarara hiztun gehiago erakartzea baita. Euskara eta euskal kulturaren irudi askotariko eta irekia hedatzeak, zaharkituak geratu diren aurreiritzien gainetik, elebitasuna sendotzea ekarriko du, besteak beste euskaratik urrun sentitu izan diren herritarrei euskarara hurbiltzeko bideak erraztuko baitizkie.

5. EUSKARAREN ERABILERA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Nazioarteko araudietan guztiz zehaztuak ez badaude ere, hizkuntza eskubideak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira eremu urriko hizkuntzen aldeko diskurtsoan eta haien babeserako neurrietan. Garrantzizko aurrerapausoa izan zen *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* (1992), Estatuaren konpromisoak eta betebeharrak ezarri zituelako, alde batetik, eta hizkuntzen erabilera sustatu eta bermatzera bideratutako neurriak zehaztu zituelako, bestetik. Euskal Autonomia Erkidegoan Gemikako Estatutuak eta 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak euskara bai ahoz bai idatziz erabiltzeko eskubidea aitortu zien herritarrei.

Hizkuntza eskubideak aitortzea herritar guztien berdintasuna bermatzearen parte da. Eta herritarrei eskaintzen zaien euskarazko arreta hedatzeak, jakina, euskararen erabilera bera sendotzeko aukera dakar berekin. Hortaz, hizkuntza eskubideen babesa eta hizkuntzaren erabilera hertsiki lotuak ageri zaizkigu, eta lotura horrek bizitzaren arlo guztietan eragina izan behar du, hurbilenetik jasoenera, merkatarizatik unibertsitateko ikerketara.

Hizkuntza eskubideen tratamenduan ezinbestekoa da progresibotasunaren irizpidea modu egokian aplikatzea, hizkuntza eskubideen gauzatze prozesua nahitaez mailakatua izango delako, ez egun batetik besterakoa. Komunikazioa ezinbestez bideratzen da gutxienez bi lagunen artean, eta hiztunen hizkuntza ezagutzek ez dute zertan bat etorri. Alde horretatik ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitatea askotarikoa da, eta horrek lurralde osorako hizkuntza politika uniforme bat, eritmo bakarrekoa, eraikitzea eragozten du. Datozen urteetarako hizkuntza politika demokratiko eta zuhur baten gako nagusia EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko funtzio eta, neuri batean bederen, gune geografikoen banaketa onartzea eta sustatzea dela kontuan izanik, hizkuntza plangintzak aintzat hartu behar du gure izaeraren aniztasun hori. Nolanahi ere, progresibotasunak eta eritmo aniztasunak aurrerabidea izan behar dute helburu, euskararen erabilera, apurka bada ere, indartuko duen hizkuntza politika egoki baten oinarrian.

Edonola ere, euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunak herritarrek herri administrazioekiko harremanetan egiten duen hizkuntza hautuari, edozein dela ere, erantzun egokia ematea eskatzen du, eta arreta, beraz, aukeratutako hizkuntza ofizialean eskaintzea. Eskakizun orokor hori premiazkoagoa da zenbait alorretan, bereziki oinarrizko arreta zerbitzuetan (osasun edo segurtasun zerbitzuak kasu). Oraindik ere ahaleginak egin behar dira alor horietan herritarren hautuari egokiro erantzuteko eta, hortaz, hizkuntza eskubideak herri-administrazioen alor guztietan bermatzeko.

Hizkuntza eskubideen aurkako jarduerak Elebide zerbitzu publikoaren bitartez salatu eta konponbidean jartzen dira. Herri-administrazio guztiek bat egin beharko lukete Elebideak eskaintzen duen babesarekin. Gure gizartean hizkuntza aukerekiko sentiberatasun maila

altuago bat lortzea ezinbestekoa da, gaia ez dadin gatazka-iturri izan eta elebitasuna modu ahalik naturalenean uler dadin. Horretarako muturreko joerak ekiditen lagundu behar du hizkuntza politikak, maximalismoak, alde batetik, eta aurreiritzi zaharretan erroturiko erresistentziak, bestetik, albo batera utzirik.

Ikuspegi honetatik, euskaraz ez dakitenei, edo jakin bai baina erabiltzen ez dutenei, arreta berezia eskaintzen jarraitu behar da. Orain arte, euskara ikasteko ikastaroak edo prestakuntza hartu dira batez ere kontuan. Baina ekimen gehientsuenak euskaldunentzat lantzen dira, euskaldunek bertan parte har dezaten. Horren ondorioz, batzuetan euskaldunen eta euskaraz ez dakitenen distantzia handitu besterik ez da egiten. Herritarrek euskararekiko duten gertutasunaren edo urruntasunaren zergatiak ezagutu behar dira, horren ondorioz neurri egokiak hartu ahal izateko. Hurbilpen horrek euskararen aldeko sentsibilizazioaren lehen urratsa izan beharko luke. Hizkuntza eskubideen aitortzatik errespetatu eta gauzatzearaino egin beharreko bidean oso lagungarri izango litzateke, gainera.

6. EKINTZA PLANAK IZANGO DITUEN ESPARRUAK ETA ZEHAR-LERROAK

Planak zehaztu eta biltzen dituen ekintzak esparruka daude antolatua, eta esparruak, beren aldetik, helburu estrategiko bakoitzaren arabera (euskararen jabetasuna, erabilera eta elikadura). Bestalde, helburu estrategikoez gain bi zehar lerro identifikatu eta jaso dira Euskara Sustatzeko Ekintza Planean, biak ere helburu estrategikoak lortzen lagunduko dutenak: euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea. Bigarren horren harian aipatzekoa da euskararen azken urteotako garapenak ezinbesteko bilakatu duela hizkuntzaren barruko eta kanpoko proiektzioa. Esparru berri horiek dagokien isla izango dute Planean, egiteko zehatzen atalean.

Helburu estrategikoak

Euskararen jabetasuna

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskararen erabilera

4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozioekonomikoa
7. Aisia eta kirola

Euskararen elikadura

8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Helburuak lortzeko zehar-lerroak

Euskararen aldeko motibazioa

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

Euskararen zabalkundea

15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

7. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO LABURRA ETA ZER HOBETUAK

2011n euskararen egoera eta bilakaerari buruzko 101 adierazlez osatutako txostena egin zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Lanaren helburua Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotako hainbat esparruri buruzko informazioa biltzea izan zen. Txostenean jasotako taulak eta grafikoak aztertzean berehalakoan ohartzen gara euskarak azken bi hamarkadetan egin duen bide ikusgarriaz. Ezaguna da ez dagoela inguruan halako hazkundea izan duen bestelako hizkuntzarik, baina datu zehatzek errealitate hori modu deigarrian islatzen dute.

Labur bada ere, ondorengo azpi-ataletan Ekintza Planean bildutako helburu estrategikoen eta zehar-lerroen egungo egoera definituko da eta, ahal den neurrian, azken urteotako joerei erreparatuko zaie, horiexek izango baitira ekimen berrien ezinbesteko abiapuntu eta oinarriak. Esparruka antolatuko diren ekintza zehatzek beren adierazleak izango dituzte planean, eta haien arabera egin ahal izango dira etorkizuneko neurketak eta planaren eraginkortasunaren eta gauzatze mailaren jarraipena. Bestalde, ondorengo lerroetan datozen diagnostiko laburretan, esparru bakoitzak izango dituen lehentasunen berri emango da.

30

7.1. Euskararen jabekuntza

7.1.1. Familia bidezko transmisioa

a) Gaur egungo egoera

Familiaren bidez euskara geroratzeko aukera gero eta sendoagoa da. Guraso euskaldun berrien artean ere, bikote mistoak barne, hazten ari da hurrei etxean euskara irakasten dietenen kopurua. Belaunaz belauneko transmisio honek lotura zuzena du, datuek adierazten dutenez, euskararen erabilerarekin. Lurralde guztietan erabileraren proportzioak lotura zuzen hori erakusten du ama hizkuntzarekin eta oso gertu egon ohi da ama hizkuntza euskara dutenen edota euskara ere badutenen ehunekotik.

b) Etorkizunerako erronkak

Transmisioaren jarraipen zehatza egiteko, adierazle bidezko neurgailu egokia landu beharko litzateke. Datu-iturri egonkorrak aurkitu edo, halakorik ezean, sortu beharko dira. Modu egoki bat EUSTATEk familiari buruz egiten duen azterketan hizkuntzaren aldagaia kontuan hartzea litzateke, eta datu horien lanketa eta behar adinako zabalkundea egitea.

7.1.2. Irakaskuntza

a) Gaur egungo egoera

Irakaskuntzaren eremuan euskararen indartze-prozesua azpimarragarria da. Hezkuntzako ikasteredu elebidunek gora egin dute nabarmen, hezkuntzaren arlo guztietan. Haur eta lehen hezkuntzan matriculatuen % 90 ari dira ikasten euskaraz presentzia sendoa duen eredu elebidunetan (B eta D). Bestalde, selektibitatea euskaraz egiten dutenen portzentajea % 25etik % 61era igo da hamazazpi urtean, 1995etik 2012ra. Adierazle esanguratsu hauen artean salbuespen bakarra da lanbide heziketari dagokiona: hemen euskarazko lerroa ez dago hezkuntzako beste eremuetan bezain hedatua (A ereduan ikasleen % 74,4 zegoen matriculatuta 2011/2012 ikasturtean). Materialgintzan egindako lan sendoak aipamena merezi du, baina oro har badago zeregina lanbide heziketan.

b) Etorkizunerako erronkak

Inkesta Soziolinguistikoak ematen dizkigun ezagutza indizeak kontuan hartuta, garbi dago euskararen jabekuntzan hezkuntza sistema gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dela. Datuetan hori egiaztatu ahal izateko, 16 urtetik beherako eskola ume eta gazteei hizkuntza-gaitasunaz galdetzea (Inkesta Soziolinguistikoaren barruan edo hortik kanpo) beharrezkoa da.

Gune erdaldunetan nagusiki, baina baita bestelakoetan ere, hizkuntzaren jakite-mailaren eta erabileraren arteko aldea irakaskuntzan hain zuzen sumatzen da beste inon baino garbiago. Ahalegin bereziak egin behar dira, hortaz, eskolan ikasitako euskara eskolan bertan ere erabilia izan dadin. Hartara, ikastetxe bakoitza osatzen duten kideen arteko harremanak (ikasleak, hauen gurasoak eta profesionalak) euskaraz ere izan daitezten hartu beharreko neurriekin batera, ikastetxearen eta ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak (udala, gizarte eta kultur taldeak eta enpresak) azkartuko dituzten proiektuak eta egitasmoak bultzatuko dira, bai oinarrizko hezkuntzaren ikastetxeetan, baita lanbide heziketakoetan eta unibertsitateetan ere.

Lanbide heziketaren kasuan, aztertu beharko litzateke lanbide heziketako ikasleek nola irudikatzen duten euskararen eta lan munduaren arteko lotura.

7.1.3. Euskalduntze-alfabetatzea

a) Gaur egungo egoera

Duda izpirik gabe, esan dezakegu euskalduntze-alfabetatzeak irauli duela euskararen patua. Duela berrogei urte, oso euskaldun gutxi ziren gai euskaraz irakurri eta idazteko eta

are erdaldun gutxiagok zuten egiazko interesa euskararekiko. Euskalduntze eta alfabetatze mugimenduaren sorrera mugari bat izan zen Euskal Herriaren historian. Euskaltegiei esker, euskarak inoizko bultzadark indartsuena izan du. Euskarazko literatura inoiz baino gehiago hedatu ahal izan da haiei esker. Dozenaka mila euskal herritar pasa dira euskaltegiatiko geletatik. Euskaraz ez zekitenek ikasi egin dute eta zekitenek hobetu eta findu. Maldan behera zihoan hizkuntza bat maldan gora joaten hasi da eta oraindik ez da gailurrera ailegatu.

b) Etorkizunerako erronkak

HABEk erantzukizun handia du, beraz, euskararen orainean eta geroan. HABE eta euskaltegien arteko elkarlana sustatu behar da, euskararen normalizazioaren giltzarrietako bat baita. Izan ere, euskal hiztun berriak sortzea eta euskal hiztunen artean erabilera esparruak zabaldu eta indartzea eremu honetako helburuak dira. Hizkuntzak ikasi, irakatsi eta bi prozesuak ebaluatzeko Europako Erreferentzia Marko Bateratua (EEMB) eta Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE) ardatz hartuta, euskara etengabeko prestakuntzaren esparrura ekarri behar da: erabilera helburu, egiteko eta zeregin praktikoei loturiko prestakuntza. Euskara ikasteko erraztasunak eman behar dira, eta horretarako egokiak diren baliabideak aurreikusi.

EEMB eta HPE ardatz hartuta euskarak helduen komunikaziorako tresna erreala izan behar du, erraztasunak izan behar ditu bere txikitasunean mundu globalizatuan ibiltzeko, maila kritikoak zainduta, arriskutik salbu. Euskara etxean jaso ez dutenek arreta berezia dutela sentitu behar dute, ezagutza hobetu ahal izateko eta komunitatean parte hartu ahal izateko, inor baztertua izan gabe. Gainera euskalgintzak eta bereziki helduen euskalduntzearen ardura dutenek iritzi eta kultura liderrak inplikatu dituzte euskarazko kultura herritar gutzietan hurbiltzeko.

32

7.2. Euskararen erabilera

7.2.1. Administrazioa

a) Gaur egungo egoera

Herri-administrazioei dagokie bereziki herritarren hizkuntza eskubideak zaintzea, herritarrak egiten duen hizkuntza hautuari modu egokian erantzun behar diotelako, besteak beste. Arreta zerbitzua euskaraz eskaintzeaz gain, lana ere euskaraz egiteko neurriak hartu ditu administrazioak EAEn. Sail eta erakundeen artean alde nabarmenak izanda ere euskara oso presente dago administrazioan, ezagutzaren aldetik behintzat, horrela adierazten baitute ezarritako hizkuntza eskakizunek.

Bost urte irauten duten plangintzaldien bidez bultzatzen da euskararen erabilerearen normalizazioa herri administrazioetan. Hizkuntza eskakizunez gainera bestelako esparruak ere —hizkuntza irizpideak, euskara bultzatzeko neurriak, eta abar— arautzen dira plan horien bidez. Orain arteko ebaluazioez eta esperientziaz baliaturik, eta erabilera bultzatzea helburu nagusi izanda, honako zeregin hauei erreparatu beharko zaie hurrengo urteetan.

Autonomia Erkidegoko herritarren eta erakunde publikoen egoera oso ezberdina da hizkuntza ofizialen jakite eta erabiltzeari dagokienez. 86/1997 Dekretua askotariko egoera horien isla eta bidea da, eta ezberdinak dira baita entitate publiko bakoitzari ezartzen dizkion hizkuntza betebeharrak ere. Lau taldetan sartzten ditu erakunde publikoak hizkuntza eskakizunen derrigortasun indizeen arabera: % 0-25, % 25-45, % 45-70 eta % 70-100. Erabilera plan bana izan behar dute, gainera, dekretu horren eraginpeko erakundeek, eta plan horietara bilduko dira tokian tokiko hizkuntza politikaren helburuak.

Ezin dira ahaztu, bestetik, hizkuntza plangintza berezia duten arloak ere: Justizia, Ertzaintza eta Osasuna (Osakidetza). Egiten duten lanaren berezitasunak direla-eta, hirurek dute dekretu bana euren ibilbidea arautzeko.

Azkenik, Estatuaren Administrazioa ere aipatu behar dugu. Izan ere, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak Estatuak EAEn duen administrazioari ere eragiten dio. Hala diote, behintzat, aipatu Legearen 5., 6. eta 8. artikuluek herritarrei aitortzen dietenean Autonomia Erkidegoaren lurraldean herri-administrazioarekin euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea; edota, Administrazioaren betebeharrak ezartzean, EAEn kokatutako herri-aginteek emandako arau-xedapen eta ebazpenak bi hizkuntzetan idatzita egon behar dutela adierazten dutenean.

b) Etorkizunerako erronkak

Itzulpenei esker, eta gaztelania ia beti sorburu-hizkuntza izanda, bermatzen dugu nahi baino gehiagotan hizkuntza ofizial bien presentzia. Hemen ere, gainerako hizkuntza irizpideekin bezala, erakundean erakundeko eta sailean saileko erabilera planek eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideek argi eta garbi finkatuko dute, tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera, zer itzuli eta zer ez itzuli, zer sortu hizkuntza batean, zer bestean eta zer bietan, itzultzaileez ez ezik lanpostuko hizkuntza eskakizuna lortua duten langileez ere baliaturik elebitasuna bermatzeko. Itzulpenaren pisua, oro har, arindu beharko da sortze lanaren mesedetan. Izan ere, itzulpenei esker bermatzen da gehiegitan elebitasuna, eta hori ez da horrela izan behar ezinbestean.

Halaber, behar-beharrezkotzat jotzen da hiru elementu hauek elkarrekin lotzea: hizkuntza eskakizunak, lanpostuetako eginkizunen behar komunikatiboak eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. Lotura horretan ezinbestekoa da arduradun politikoen

protagonismoa eta eredugarritasuna. Langileen parte-hartzea eta adostasuna garrantzi handikoa izanda ere, kale egingo da kargudunen gidaritzza eta lidergorik gabe.

7.2.2. Gune geografiko euskaldunenak

a) Gaur egungo egoera

Askotarikoa da –eta hala izango da plangintza honen garaian– EAEko errealtate soziolinguistikoa, bai lurraldez lurralde, bai lurralde bakoitzaren barruan ere, eta eruz apalagoa da euskararen bizi-indarra gaztelaniarena baino. Euskarak, eremu urriko hizkuntza guztiek bezala, arnaguneak behar ditu. Gune euskaldunenak euskararen birrikak dira.

b) Etorkizunerako erronkak

Hizkuntza normalizatzeko prozesuan, errealtate ezberdinek tratamendu ezberdinak behar dituzte. Euskara nagusi den eremuetan prozesu hori arinago joan daiteke. Erritmoak azkartu daitezke, betiere bi hizkuntza ofizialen arteko berdinkidetasun handiago bat helburutzat hartuta.

Gune euskaldunetan kokatutako herri-administrazio guztiek eskaintzen dituzten zerbitzuetan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu behar da, baita haren presentzia hizkuntza paisaian ere. Euskaraz ez dakiten herritarrei erraztasun guztiak eman behar zaizkie euskara ikasteko eta euskalduntze prozesuaren parte garrantzitsua direla sentiarazteko. Herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatu behar dira eta hizkuntza eskubideak ezin dira gutxiengoaren eskubideetatik bereizi. Arreta berezia merezi dute, beraz, gune erdaldunetako euskaldunek eta gune euskaldunetako erdaldunek, nolabaiteko elkarrekikotasuna oinarri.

7.2.3. Arlo sozioekonomikoa

a) Gaur egungo egoera

Arlo sozioekonomikoan azken urteetan egin diren ahaleginek emaitza onak ekarri dituzte. Diru-laguntzetan egonkortu egin da euskara planak garatzen ari diren enpresen kopurua, eta gaur egun ia 25.000 langile daude diru publikoz laguntzen diren euskara planen eraginpean. Bestalde, 2008tik hona urtero 20-25 bat entitatek eskatzen dute Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria lortzeko egin behar den ebaluazioa. Egia da, beste esparruetan gertatzen den bezala, hemen ere erritmoak oso ezberdinak direla EAEko lurralde eta zonetan, eta hori hizkuntza paisaian berean ere nabaritzen dela. Esparru

sozioekonomikoko kide eta eragileen atxikimendua bilatzen duen hizkuntza politikak hemen du erronka nagusietako bat.

b) Etorkizunerako erronkak

Aurrerantzean ere ahalegin handiak egin beharko dira esparru honetan, bai komunikazioaren bai sentsibilizazioaren aldetik. Berebiziko garrantzia izango du, halaber, lan munduaren jarduerak euskalduntzeko egiten diren ahaleginak erakunde eta eragileen artean adostu eta koordinatzeak.

Enpresen eguneroko lanean euskara erabiltzea bezain garrantzitsua da (edo garrantzitsuagoa) bezeroekiko harremanetan euskara erabiltzeko aukera bermatu eta sustatzea, kontsumitzaileek euskaraz jarduteko duten eskubidea aintzat hartuz. Herri-administrazioek ematen dituzten diru-laguntzetan enpresen jardueren alderdi horrek lehentasuna izan behar du.

Bestalde, hezkuntza sistema (eta bereziki lanbide heziketa), alde batetik, eta enpresa mundua, bestetik, hizkuntzaren ikuspegitik modu hertsiago batean uztartu beharko dira, batez ere enpresa-praktikak euskaraz egiteko aukerak bultzatuz.

7.2.4. *Aisia eta kirola*

a) Gaur egungo egoera

Aisialdian eta kirolean ere gora doa euskararen erabilera, oinarritik hasita gainera, alegia, haur eta gazteengandik hasita. Egia da, bestalde, oporretako aisialdi-programetan nabaritzen dela batez ere igoera (1-6 urteko adin-tartean programa horien % 77 euskaraz gauzatzen da EAEn) eta, seguru asko, horrelako datuak ezin direla urtean zehar gauzatzen diren egitasmo guztietara hedatu.

b) Etorkizunerako erronkak

Eskolak herritar asko elebidundu badezake ere, eskolari ezin zaio eskatu erabileran eragin handia duten jarduerara ugari bere gain har ditzala. Horregatik da garrantzizkoa eskolaz kanpoko jardueretan –eta bereziki haur eta gazteei zuzentzen zaizkienetan– euskara erabiltzeko aukera zabalak eskaintzea, kirol federazio eta bestelako elkarteekiko lankidetzaren bitartez. Euskararen aldeko ekintzen ondoan gauzak euskaraz egiteko aukerak sendotu eta hedatu behar dira. Kirola eta aisialdi-jardueretan, jendaurreko ekitaldi eta agerpenak antolatzen direnean, ahoz zein idatziz ematen diren mezuetan euskararen presentzia bermatuko da.

Esparru hauetan euskararen erabilera indartzeko hiru lan-ildo nagusi taxutuko dira: berriazko materialen sorkuntza eta hedapena, begiraleak zein entrenatzaileak trebatzeko eta haiendako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak eta, azkenik, sentsibiltzazio-kanpainak eta zabalkunde orokorra zein herri mailakoa egitea.

7.3. Euskararen elikadura

7.3.1. Liburugintza

a) Gaur egungo egoera

Euskaraz argitaratzen diren liburuen kopuruak hazkunde nabarmena izan du azken urteetan. Gaur egun 2.200 inguru dira urtero argitaratzen direnak, duela hamar urte argitaratzen zirenak halako bi. Zifra deigarria da, batez ere EAEn guztira argitaratzen diren liburuen kopurua (4.500 bat) kontuan izanez gero. Formatu berrietan ere hazkundera oso bizkorra izan da: liburu digitalen kasuan, 2007an 12 argitaratu ziren, 2008an 90, 2009an 211 eta 2010ean 222 (ekoizpen osoaren % 11).

b) Etorkizunerako erronkak

Sorkuntzan eta ekoizpen editorialean izandako hazkunde hori irakurleei eta kultur beharrei egokitu eta doitu behar zaie. Irakurzaletasuna sustatuko da horretarako, Administrazioak esparru honetako zerbitzu publikoekin eta eragileen elkarrekin une oro bultzatuko duen lankidetzaren bidez. Ezinbestekoa da arreta berezia jartzea irakurzaletasun hori errotu daitekeen lehenengo garaian, hau da, irakurtzen hasten diren haur eta gazteengan.

Ekoizpen editorialean izandako hazkundera eta kultura kontsumoaren arteko uztardura egokia lortzeko, liburugintzaren sektorean hausnarketa bultzatu behar da, kontsumoa neurtzeko irizpideak finkatu eta azterlanak egiteko, alde batetik, eta, bestetik, liburugintzaren sektoreak berak beharko lukeen laguntza publikoekiko beregaintasuna duen ala ez ikusteko.

Itzulpen politikari dagokionez, orain arte asko euskaratu da haur eta gazteentzat, nahiko gutxi, aldiz, helduentzat. Datu horiek kontuan izanik, euskarara itzultzen denari buruzko gogoeta bideratu behar da. Beste aldetik, euskal literatura beste hizkuntzetara itzultzeko programak aurreikusi eta definitzea ere datozen urteetako erronka izango da.

7.3.2. *Kulturgintza*

a) Gaur egungo egoera

Haurrak eta gazteak dira euskarazko kulturaren hartzaile potentzial nagusiak. Haiei zuzentzen zaizkie dagoeneko kultura jarduera asko, antzerkiaren eta bestelako ikuskizunen esparruetan, adibidez. Helduentzako kultura eskaintza, literaturaz aparte, apalagoa da gaur egun, eta hainbat alorretan (zinea kasu) nahiko ahula dela esan daiteke.

b) Etorkizunerako erronkak

Horregatik, euskara erabiltzeko aukerak areagotu behar dira, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez. Funtsezkoa da, halaber, euskaraz ez dakitenei euskarazko ekoizpenaren berri jakinaraztea, ahal den neurian, arrotz egin ez dakien eta oraindik indarra duten zenbait aurreiritzi gainditu daitezten.

Euskarazko kulturak beregaina izan behar du. Alegia, ezin da izan beti erdaraz sortzen denaren itzulpena. Baina, halaber, erdaraz sortzen dena ezin da egon euskaraz sortzen denari erreparatu gabe. Elkarren ezagutza euskal gizartearen oinarri sendo bat da.

7.3.3. *Publizitatea*

a) Gaur egungo egoera

Euskara gutxi erabiltzen da publizitatean eta, erabiltzen denean, gaztelaniaz sortutako leloen bertsio mimetikoak izaten dira euskarazkoak, piperrik eta arimarik gabekoak. Hala ere, helduei agian bitxia egiten bazaie ere, euskaraz hezitako gazteek normaltasun osoz hartzen dute euskarazko publizitatea. Euskaldun gazteek kontsumitzen duten guztia euskaraz iragar daiteke.

b) Etorkizunerako erronkak

Euskaraz sortu behar du publizitateak, literaturak edo beste arteek bezala. Eta euskaraz sortzen den publizitate horrek beregaina izan behar du erdaraz sortzen denarekiko. Euskarazko publizitateak metahizkuntza bat izateari utzi behar dio, hots, eguneroko bizitzako esparru guztietarako erabili behar da, ez bakarrik euskarari buruz mintzatzeko. Alegia, euskarazko publizitate gehiago behar dugu, eta euskararen publizitate gutxiago. Egiazko normalizazioa lortua izango da euskara tresna bat denean, ez helburu bat.

Esparru honetan, besteetan bezala, erakundeen lana funtsezkoa izango da. Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri beharko dute, publizitate-prozesuko

eragileen ondoan. Areago, euskal komunikabideen lankidetzaren beharko litzateke euskarazko publikitatea edertzeko gizartearen begietara. Hala ere, esan gabe doa, publikitatea ez da herri-erakundeei bakarrik dagokien zerbait. Enpresa pribatuek ere erantzukizuna dute euskarazko hizkuntza paisaia duen presentzia gero eta handiagoa izan dadin.

7.3.4. *Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea*

a) Gaur egungo egoera

Corpusetan (testu-bilduma digitalizatu eta etiketatu gisa ulertuta; esate baterako, erreferentzia-corpusa, espezialitate-corpusak, hizketa-corpusak...) oinarritutako lan lexikografiko zein terminologikoan aldaketa nabarmenak gertatu dira azken boladan. Tresna teknologiko berriei esker, corpusen tamaina asko hazi da eta haien erabilera dezente erraztu. Gaur egungo hiztegi sendo gehienak corpusetan oinarritzen dira, eta hauek gero eta hitz erabilera gehiago jasotzen dituzte. Gaurko premietara etengabe eguneratzen eta egokitzen joan behar du euskarazko esparru ugarietan lan-tresna eta komunikazio-hizkuntza baita, edo bilakatzen ari da. Corpus-plangintza (corpus-baliabide testual gisa ulertuta) garrantzitsua da horretarako. Euskal lexikoa bateratzeko eta finkatzeko egin den lan handiak jarraipena du terminologia zehazteko abian diren egitasmoetan. Lehendik datorren eta indarrean dirauen plangintza orokorra ere badago, erakundearen arteko elkarlanean gauzatzen ari dena. Eta ahalegin bereziak egin dira eta egingo dira etorkizunean informatizatua dagoen material oro modu eroso eta erabilgarrian eskura jartzeko.

38

b) Etorkizunerako erronkak

Helburu nagusietako bat da hizkuntza modu integratuean garatzea, eta aldi berean, komunikagarritasuna lantzea. Izan ere, kalitatezko euskara lortu nahi bada, hizkuntza erregistro egokiak erabili behar dira unean uneko eta tokian tokiko premiei erantzuteko. Beraz, hizkuntzaren zuzentasunaz gain, erraztasuna eta adierazgarritasuna landu behar dira (hau da, finean, komunikagarritasuna bera). Euskara batuaren normalizazioak bide eman diezaiolke euskalki zenbaiten garapenera, eta elkarren eraginean biak elikatu eta aberastu daitezke.

7.3.5. *Hedabideak*

a) Gaur egungo egoera

Hedabideak sektore estrategikotzat jo izan dira beti hizkuntzaren normalizazioaren bidean. Haien ekarpena ezinbestekoa da hizkuntzaren erabilera indartzeko eta aldi berean hizkuntza horretan gauzatzen diren kultura jarduerak proiektatzeko. Diru-laguntza publikoek nekez konpon dezaketean krisialdi egoeran, euskal hedabideak eusten ari zaizkio euskara egunero zabaltzeko

erronkari (hala irratitelerbistan nola prentsa idatzian). Dena den, publizitatearen jaitsierak eta irakurle tradizionalen (ez digitalen) galerak kalte handia eragin diete azken boladan prentsa idatziko hedabideei.

b) Etorkizunerako erronkak

Egoera berriaren aurrean, orain arte iraun duen ereduaren birplanteamendua egin beharko da, garaiak dakartzan berrikuntzetara egokitzeko. Ikusle-irakurleengan duten eragina kontuan izanik, toki-telebistek eta herri-aldizkariak leku berezi bat izan behar dute prozesu horretan.

Alde horretatik, euskarazko hedabideek elkarlana eta koordinazioa bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea etengabe hobetu eta produktu berriak eskaini behar dituzte. Lehenetasunen artean honako hauek ere badaude: gazteei zuzendutako eduki eta kanalak bultzatzea, komunikagarritasunaren bidetik estilo serioak eta arinak konbinatzea eta ikus-entzunezkoei (gizarteak bere aisialdiaren atal nagusi baterako hala hobetsi baititu) arreta berezia eskaintzea. Hedabideen aniztasunean ere sakondu beharko litzateke, islatzen saiatzen diren ingurunea askotarikoa baita.

Internet bidezko albistegiak, eta hedabideen edizio elektronikoak, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira. Etorkizunean ere, dirudienez, esparru horietara joko dute irakurle gehienek. Euskarri berriek eskaintzen duten malgutasuna eta bat-batekotasuna euskararen erabileraren alde baliatzeko kapaz izan behar dugu, euskara geroaldiko errepide birtualetan ikusiko badugu.

7.3.6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)

a) Gaur egungo egoera

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskararen presentzia sendotuz joan da. Hamar urtean bikoiztu egin da EAEn euskaraz nabigatzen dutenen kopurua (100.000tik 200.000ra) eta bertan ingelesez sareratzen direnekin parekatua dago gaur egun. Wikipedia bezalako egitasmoetan euskararen erabilera antzeko hiztun kopurua duten hizkuntza komunitateen oso gainetik dago eta askoz hiztun gehiago dituzten hizkuntzetatik gertu (euskaletan wikipedian, esaterako, dagoeneko 100.000 sarrera daudela diote; alderatu besterik ez dago beste hizkuntza batzuekin: greziera modernoa, 12-13 milioi hiztunekin, edo letoniera, milioi eta erdirekin, biak ala biak estatu hizkuntzak, ez dira wikipedian 100.000 sarreretara iristen). Gero eta tresna teknologiko gehiago dago euskaraz, eta euskal blogosfera nahiko aktiboa da. Sare sozialetan ere (Facebook, Twitter, Tuenti) sartzen ari da euskara pixkanaka.

IKTetan euskararen erabilera kalean sumatzen denaren tamainakoa edo are altuagoa da: ia % 22koa da IKTetan, azken Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera euskararen erabilera orokorra % 20 ingurukoa den bitartean (eta kale erabileraren neurketetan % 13,5eko emaitzak lortu izan dira). Honek hauxe esan nahi dezake: pentsa litekeenaren kontra, eremu globalean IKTek euskararen erabilera bultzatzen laguntzen dutela eta uste baino aukera gehiago irekitzen direla eremu birtualean euskara erabiltzeko. IKTen aldeko azken urteetako apustua indartzeko bidea ematen du bilakaera honek. Bide berriak jorratu eta sendotu beharko ditu, hala ere, IKTen alorrak, garrantzia emanez, besteak beste, aisialdirako tresnei eta jolas elektronikoen industriari.

b) Etorkizunerako erronkak

Hizkuntzen kudeaketaren alorreko enpresen elkartea sortu da berriki, Langune izenekoa. Elkarre horretan itzulpengintza, hizkuntzen irakaskuntza, edukien kudeaketa eta hizkuntza-teknologiaren garapenaren alorreko euskal enpresak elkartzen dira, sektorea indartu eta Europa mailan erreferente izateko helburuarekin. Lehenbiziko saioa denez hizkuntzaren industriaren sektorea egituratu eta antolatzeko, ekimen honek garrantzi handia izango du. Europan, esaterako, horrelako proiektuak hastapenetan baino ez daude. Hizkuntzen industriak herri-administrazioen babesa beharko du hasierako fase honetan, baina, aurreikuspenen arabera, sektorearen potentzialtasun ekonomikoa oso sendoa da, eta etorkizunean inolako menpekotasunik gabe garatzeko aukera izan beharko luke.

Hizkuntza batek IKT alorrean etorkizuna izan nahi badu, oinarritzko baliabideak eta tresnak behar ditu. Horiek euskaraz garatzeko eta eguneratuak izateko ekimen eraginkorrak bultzatuko dira.

40

7.4. Euskararen aldeko motibazioa

7.4.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa

a) Gaur egungo egoera

Euskararen aldeko motibazioaren inguruko saioak (tailerrak, sentsibilizazioa areagotzeko mintegiak) ugaltu egin dira azken boladan. Motibazioak lotura estua du hizkuntzak ikastearekin eta, bereziki, haien erabilerarekin: hirurek elkar elikatzen dute.

b) Etorkizunerako erronkak

Euskararen aldeko motibazioa eta sustapena lantzea ez da zentzu hertsian hartu behar, zentzu zabalean baizik. Hizkuntza ikasteko motibazioan eragiteak berebiziko garrantzia du, jakina, baina, horrekin batera, ezinbestekoa da euskara erabiltzeko argudioak ematea,

hizkuntzen erabileran gertatzen diren egoerak kudeatzeko estrategiak eskaintzea, hizkuntzen kudeaketan garatzen diren eredu onak zabaltzea, soziolinguistikari buruzko oinarriko azalpenak gizarteratzea, hizkuntza ezagutzetik erabiltzera dagoen jautzia egiten laguntzeko lantegiak antolatzea, lidergoa lantzea hizkuntzen normalizazioaren alorrean, eta abar. Sentsibilizazioak eta komunikazioak pisu nabarmena dute, beraz, esparru honetan.

7.5. Euskararen zabalkundea

7.5.1. Barruko proiektzioa

a) Gaur egungo egoera

Euskaraz gauzatzen diren ekimenen eta euskaraz sortzen diren produktuen proiektzioak eragin erabakigarria du euskararen eta euskal kulturaren irudian. Garai bateko mugak gainditu dituzten arren, euskarazko kultur ekoizpenek badute oraindik hedapen handiago baten beharra. Zabalkunde egoki batek, euskarazko produktuen kontsumoa indartzearekin batera, erabiltzaile gehiago ekar diezazkioke euskarari.

b) Etorkizunerako erronkak

Kalitatezko produktuen oinarrian euskal kulturaren irudia prestigiatzeko ahaleginak egiten jarraitu behar dugu, euskarara hitzunak erakartzeko eta hizkuntzaren erabilera areagotzeko saio horiek giltzari baitira. Edukiz etengabe elikatu behar den irudi horrek euskal kultura ekoizleen aniztasuna islatu behar du, euskaldunen arteko ezberdintasunei eta are iritzi kontrajarriari ere iskin egin gabe. Euskal kulturaren barruko proiektzioak erabakiko du neurri handi batean zein den gure gizartean hari ematen zaion tokia.

Elebitasun pasiboaren ikuspegitik, euskarazko kultur ekoizpenen zabalkundeak erdielebidunen (elebidun pasiboen) kopurua handitzeko eta haien elebitasun osorako zubia eraikitzeko balio dezake.

7.5.2. Kanpoko proiektzioa

a) Gaur egungo egoera

Barruko proiektzioarekin batera, euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea euskararen lurraldeez kanpo ere egitea funtsezkoa da. 2010etik abian da Etxepare Institutua, eta haren helburu nagusia, hain zuzen, euskara eta euskal kultura munduan zehar ezagutaraztea da. Izaera ezberdineko erakundeekin sinatu dira dagoeneko lankidetzak-hitzarmenak, eta Europa eta

Ameriketako 32 unibertsitatetan irakasten da euskara. Beste hizkuntza askoren ondoan euskarak badu nortasun nahikoa, ezaugarri linguistikoen aldetik, atzerritarren jakin-mina pizteko. Horrela izan da iraganean (Humboldt edo Schuchardt bezalako hizkuntzalari ospetsuak aipatu besterik ez dago) eta horrela da gaur egun ere, lektoretzen ikasle-datuek eta munduan zehar egiten diren euskarari buruzko doktorego-tesiek adierazten dutenez.

Euskara irakasteaz gain, lektoreek euskal kulturaren berri ematen dute. Haien lanak berebiziko garrantzia du euskararen kanpoko irudia eraiki eta elikatzeko orduan. Horregatik da beharrezko, besteak beste, haien prestakuntza sendo bat, hala alderdi didaktikotik nola kulturaletik. Mundu zabalean barreiatuak dauden euskal hiztun komunitateekiko harremanak mantendu ez ezik, sendotu ere egin behar dira, Euskara Munduan programa bezalako bitartez.

b) Etorkizunerako erronkak

Euskararen eta euskal kulturaren proiektzioa nazioarteko foroetan parte hartuz ere lortzen da. Biltzarretan, azoketan eta eremu urriko hizkuntzen elkarte eta eztabaida guneetan euskararen presentzia bermatu behar da horretarako. Europako erakundeen aurrean garrantzizkoa da euskararen ibilbidearen berri ematea, mesedegarri izan daitekeelako euskal hiztunen erkidegoarentzat, eta baliagarri eremu urriko beste hizkuntzetan egiten duten komunitateentzat. Alde horretatik, euskarari eta euskal kulturari buruzko informazioa atzerrian proiektatzeko ezinbestekoa da materialak zein datuak nazioarteko hizkuntza hedatuenetan ere eskaintzea. Horretarako zehaztu egin behar da zer eta zein motatako materialak itzuliko diren ingelesera (eta beste hizkuntza batzuetara).

2. ATALA

ESPARRUKAKO NEURRI-EKINTZAK

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren hurrengo atal honetan hiru helburu estrategikoei eta bi zehar lerroei loturiko neurri-ekintzak jasotzen dira, 16 esparrutan sailkatuta. Hona hemen esparruok:

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze-alfabetatzea
4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozioekonomikoa
7. Aisia eta kirola
8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
15. Barruko proiektzioa
16. Kanpoko proiektzioa

Guztira, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean 340 ekintzatik gora proposatzen da, 90 neurri nagusitan antolatuta. Hurrengo orrialdeetan jasotzen diren fitxetako osagaiak honako hauek dira:

- a. **Neurria:** esparruari loturiko helburu zehatza islatzen du eta letra lodiz agertzen da.
- b. **Ekintza:** dagokion neurria garatzeko proposatzen den egitasmo edo programa jakina da.
- c. **Eragileak:** zehaztutako neurria betetzeko orduan ardura edota partehartzea izango duen erakunde edo eragile publiko zein pribatua da.
- d. **Garrantzia:** lehentasunak finkatzeko, proposatzen den garrantziaren araberako sailkapena. Hiru dira erabilitako parametroak: ertaina, ertain-handia eta handia.
- e. **Adierazleak:** Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteari begira, neurri bakoitzaren betetze-maila neurtzeko proposatzen dira adierazleak.

Eragileak, garrantzi-maila eta adierazleak neurriekin lotzen dira zuzenean eta ez ekintza zehatzekin. Hiru osagai hauek Plana onartzen duen erakundeak landu eta egokitu beharko ditu.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planean, gehienbat, eragile orokorrak proposatzen dira: administrazioak, ikastetxeak, enpresak, elkarteak... Hala ere, hau ez da proposamen itxia ez eta aldaezina ere. Egoeraren eta unearen arabera eragileak egokitu beharko dira, eragile berriak gehituz edo daudenen egitekoa berraztertuz. Hortaz, erakunde bakoitzari bere esparruari dagozkion eragileak identifikatzea proposatzen zaio.

Neurrien garrantzia zehazteko orduan, ikuspegi orokorra hartu da kontuan, EAeko administrazioari dagokiona, hain zuzen. Hori horrela, erakunde bakoitzak –foru aldundi, udal zein mankomunitate bakoitzak– bere plana egiterakoan bere inguruko errealitatea kontuan hartuta neurrien lehentasuna edota gauzatze-garaia zehaztuko ditu.

I. FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Ekintzaren deskribapena

- I. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea
 - I.1. Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea
 - I.2. Eleaniztasunaren onurak azaltzea
 - I.3. Euskararen erabilerarako dauden sozializazio guneak baliatzea eta berriak sortzea
 - I.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea
 - I.5. Gurasogaien hizkuntza-ohituren aldaketarako erraztasunak ematea
 - I.6. Gurasoengan eragitea euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen
 - I.7. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza-jokabideak lantzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

Handia

Adierazleak:

- I.1. Familia bidezko euskararen transmisioari buruzko kanpainak eta ekimenak

2. Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutu eta orain arte burututako ekimenen arrakasta neurtzeko
 - 2.1. 3 urte arteko umeen eskolatzea aztertzea
 - 2.2. Orain arte burututako ekimenen azterketa egitea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Garrantzia:

Handia

Adierazleak:

- 2.1. Seme-alaben lehen hizkuntza gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera
- 2.2. 0-3 urteko umeen haurtzaindegiko/eskolako hizkuntza-eredua, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Ekintzaren deskribapena

3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

- 3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea
- 3.2. Familia bidezko transmisioa sendotu dezaketen hizkuntza-ohitura eredugarriak identifikatu eta sustatzea
- 3.3. Familia, eskola eta ingurunearen arteko elkarreragina sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 3.1. Euskararen erabilera familia barruan
- 3.2. Gazteen etxeko hizkuntza

2. IRAKASKUNTZA

Ekintzaren deskribapena

- I. Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea
 - I.1. Eskola materialak, IKT baliabideak eta testuliburuak hizkuntzaren kalitatea zaintzea
 - I.2. Irakasleen euskararen ezagutza maila gaurkotzea
 - I.3. Euskara (eta beste hizkuntzetako) irakasleak trebatzea hizkuntzen didaktikan egindako azken bilakaeretan, bai hasierako prestakuntzan bai eta etengabekoan ere
 - I.4. Irakasleen konpetentzia komunikatiboak hobetzeko hasierako eta etengabeko prestakuntza eskaintzea
 - I.5. Ikasleen hizkuntza egoeratik abiatuz, hau da kontuan izanik gehiengo bat 2. edo 3. hizkuntzan ari dela beste arloetako ezaguerak jasotzen, didaktikak eta ikuspegiak egokitzea
 - I.6. Eskolaratze garaian lehen hizkuntza euskara duten talde eta guneeetan eredu didaktiko eta metodologikoak egokitzea
 - I.7. Euskara hezkuntzaren ingurune ele anitzekoan erabiltzeko estrategiak definitu eta praktikara eramatea
 - I.8. Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera-plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea
 - I.9. Unibertsitateaz aurretiko irakaskuntzaren ibilbidean, gutxienez bi unetan ikasleen hizkuntza-gaitasuna neurtuko duen sistema garatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Ikastetxeak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- I.1. Irakasleen hizkuntza eskakizunen bilakaera
- I.2. IRALE programaren eskaintza eta matrikulazioaren bilakaera
- I.3. Euskarazko ikasmaterialeko ekoizpena euskarriaren eta ikasmaterialeko arabera
- I.4. Ikastetxeen hizkuntza-proiektuen bilakaera

Ekintzaren deskribapena

2. Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea

- 2.1. Lanbide heziketan euskarazko eskaintza indartzea, horretarako irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz
- 2.2. Graduoko ikasketetan, hautazko irakasgaiak euskaraz egiteko aukera zabaltzea, betiere eskaintzaren bikoiztasunak saihestuz
- 2.3. Graduondoko eskaintzetan euskararen presentzia ziurtatzea
- 2.4. Unibertsitatean euskarazko ikasketak indartzea, irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz

Eragileak:

- Eusko Jurlaritzza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Unibertsitatea
- Ikastetxeak

Garrantzia:

Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 2.1. Lanbide Heziketako hizkuntza-ereduen bilakaera
- 2.2. Selektibitateko probetara aurkeztutako ikasleen bilakaera, hizkuntzaren eta lurraldearen arabera
- 2.3. Unibertsitateek eskainitako kredituak zikloaren eta hizkuntzaren arabera
- 2.4. Doktorego tesien bilakaera, hizkuntzaren arabera
- 2.5. Unibertsitateko graduondokoen eskaintza hizkuntzaren arabera
- 2.6. Unibertsitateko irakasleen hizkuntza eskakizunen bilakaera, unibertsitatearen, jakintza arloaren eta lurraldearen arabera
- 2.7. Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren (AZPkoen) hizkuntza eskakizunen bilakaera, unibertsitatearen eta lurraldearen arabera

3. Ahozko hizkuntza-jarduna lantzea, bereziki eremu soziolinguistiko erdaldunagoetan

- 3.1. Ahozko jardunaren ahuleziak gainditzeko, irakasle zein ikasleei begirako estrategia egokia garatzea

Eragileak:

- Eusko Jurlaritzza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 3.1. Mintzapraktika egitasmoaren bilakaera lurraldearen arabera

Ekintzaren deskribapena

4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea
 - 4.1. Nerabeen aisialdia eta interesekin loturiko euskararen erabilera suspertzea
 - 4.2. Nerabe eta gazteen hizkuntza erabileraren egungo ezaugarriak (eskola barruan nahiz eskolatik kanpo) aztertzea
 - 4.3. Ikastetxeetan eta hezkuntza sisteman orokorrean dauden giza-partaidetzarako organoetan euskararen erabilera bultzatzea
 - 4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman-hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Ikastetxeak

Garrantzia:

Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 4.1. Gazteen euskararen erabilera neba-arrebekin, ikaskideekin eta lagunekin

-
5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea
 - 5.1. Gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea
 - 5.2. Lan-munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzara proiektuak bultzatuz

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Toki-entitateak

Garrantzia:

Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 5.1. Ikasleek egiten dituzten lan-praktikak hizkuntzaren arabera
-

Ekintzaren deskribapena

6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea
 - 6.1. Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haietzako programa bereziak garatzea
 - 6.2. Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea, sentsibilizazioaren mesedean

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 6.1. Etorkinen seme-alabak eskolaratuak dauden hizkuntza-ereduak, ikasmilaren eta lurraldearen arabera
-

3. EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEA

Ekintzaren deskribapena

1. Orain arte lortutako emaitzen analisia egitea
 - 1.1. Emaitzak aztertu ondoren, etorkizuneko erronkei aurre egiteko estrategiak lantzea
 - 1.2. Ikas-prozesua azkartzeko neurriak proposatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritzaren:
 - * HABE

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Euskara-ikasleen bilakaera mailaren, adinaren, sexuaren, euskaltegi-motaren arabera
- 1.2. Euskara-ikasleek lortutako emaitzak: ikasmaila gainditu dutenen ehunekoa, mailaren eta euskaltegi-motaren arabera

2. Helduen euskalduntzearen mapa osatu eta baliabideak egokitu eta arrazionalizatzea
 - 2.1. Euskaltegien eta auto-ikaskuntza zentroyen markoa gainditu, eta HABE, Udal Euskaltegiak, Euskaltegi Homologatuak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, IRALE, IVAP, Arkaute, EHU, EUDEL eta esparruko gainontzeko agente publiko eta pribatuen arteko osagarritasuna aztertu eta sendotzea
 - 2.2. HABEren eta beste erakunde batzuen eta euskaltegien arteko lankidetzaren sustatzea.
 - 2.3. Euskarabidearekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzaren sustatzea, euskararen lurraldeen arteko elkarlana bermatzeko.

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritzaren:
 - * HABE
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Euskaltegiak
- EUDEL

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 2.1. Herri Administrazioek euskalduntze-alfabetatzera bideratutako dirulaguntzen bilakaera

Ekintzaren deskribapena

3. Finantzazio sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea
 - 3.1. Finantzazio egonkorarekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea
 - 3.2. Barnetegien berezitasuna kontuan harturik, finantzazio sistema egoki bat eratzea.

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Euskaltegiak

Garrantzia:

- Handia

4. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea
 - 4.1. Euskararen oinarritzko ezagutzaren balioa aitortzea, eta maila hori lortzeko aukerak zabaltzea
 - 4.2. Oinarritzko euskarazko A1 eta A2 mailak egiaztatzea eta, hala dagokionean, ikasleen diru laguntzetarako kontuan hartzea.

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * HABE
- Euskaltegiak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 4.1. Elebidun hartzaileen bilakaera adinaren eta lurraldeen arabera

5. Egungo euskalduntze curriculumak Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitze eta Marko Bateria bera euskarara egokitze bideak aztertu eta garatzea
 - 5.1. Egokitzapena egiteko aukerak aztertu eta identifikatzea
 - 5.2. Curriculum egokituak garatzeko neurriak hartzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * HABE
- Euskaltegiak

Ekintzaren deskribapena

Garrantzia:

- Ertaina

6. Euskara gaitasuna egiaztatzeko azterketa sistemaren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntzak praktikara eramatea

6.1. Azterketen sistema eta ereduak hobetzeko gogoeta bideratu eta ondorioak aplikatzea

6.2. Gaitasunaren egiaztatzea euskaltegien zereginen artean sartzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * HABE
- Euskaltegiak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

6.1. EGAKo eta HE-n azterketetara aurkeztutakoen eta horiek gainditu dituztenen ratioa

7. Helduen euskalduntzearen kalitate-irizpideak adostu eta finkatzea

7.1. Euskara irakasle-tutoreen berariazko formazioa behar eta metodologia berrietara egokitu eta hedatzea

7.2. Euskara irakasle-tutoreen lan-eskarmentua lan zein hizkuntza-egiaztapenerako kontuan hartzea, etengabeko prestakuntzaren ikuspuntutik.

7.3. Ikasle-trebagaien beharrak ezagutzeko eta ikaste-prozesuaren emaitzak ebaluatzeko sistema bat antolatzea

7.4. Ikasle-trebagaiak erabiltzaile ez ezik, ikaskuntza prozesuaren ardatz ere badela kontuan izanik, ibilbide pertsonalizatuak diseinatzeko tresnak garatzea (Hizkuntzen Portfolioa)

7.5. Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-2 mailako ikastaroak hedatzea

7.6. Helduak euskalduntzeko alorreko materialak, metodoak eta baliabideak etengabe eguneratzea (auto-ikaskuntzakoak eta abar).

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * HABE
- Euskaltegiak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazlea

7.1. Irakasleei zuzendutako prestakuntza ikastaro bereziak

8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

8.1. Euskarazko harreman-sareak trinkotzeko eta talde-dinamikak sortzeko aukerak ematea

8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * HABE
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Euskaltegiak
- EUDEL
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak
- Euskara elkarteak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

8.1. Euskaltegietako gelaz kanpoko ekintzak, lurraldearen eta sarearen arabera

9. Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

9.1. Atzeritarrentzako idatzizko materialak sortu, eguneratu eta zabaltzea (hizkuntzaz, literaturaz, kulturaz)

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * HABE
- Toki-entitateak
- Etorkinen arloko elkarteak
- Topagunea

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

9.1. AISA programaren bilakaera

9.2. AUZOKO programaren bilakaera

4. ADMINISTRAZIOA

Ekintzaren deskribapena

- I. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea
 - I.1. Herri-administrazioek (EAEko administrazio orokorrak, Foru aldundiek, Udalerriek, Osasun Zerbitzuek, Herrizaingoeak, Justizia administrazioak, sozietate publikoek eta zuzenbide pribatuko entitate publikoek) hizkuntza kudeaketako planak onartu eta betetzea
 - I.2. Beren lanean euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek eta administrazioekiko harremanetan euskaraz jarduteko gai diren herritarrek euskararen erabilera era progresiboan areagotzeko erakunde bakoitzean neurriak hartzea
 - I.3. Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea
 - I.4. Hizkuntza paisaian (errotulazioa eta noizbehinkako oharra) euskararen erabilera bermatzea:
Erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitzea
Administrazioaren seinaleztapen publikoan eta noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitzea, komunikagarritasuna zainduz
 - I.5. Erakundearen agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehentasuna bermatzea
 - I.6. Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, betiere herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz
 - I.7. Erakundearen idatzizko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan
 - I.8. Herri Administrazioetako kargu publikoek euskararen erabilerarekiko jarrera eraginkorra agertzea, bai herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, baita euskara ere lan hizkuntza izan dadin

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- I.1. Erabilera plana duten erakundeak eta planaren jarraipena egin dutenak, erakunde motaren arabera
- I.2. Erabilera planaren eraginpeko langileak eta horietatik zenbatek egiten duten lan euskaraz erakunde motaren arabera

Ekintzaren deskribapena

2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea

- 2.1. Euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan dadin bideak jartzea. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen eta, edozeinetara ere, euskara erabiltzeko gai den herri-langile ororen ohiko lan hizkuntza izango da euskara ere neurriren batean, progresiboki handiagoa izango den neurrian. (Neurri hori administrazio bakoitzaren hizkuntza kudeaketako planean zehaztuko da, besteak beste kontuan harturik aipatu planean ezarritako helburuak eta bitartekoak, erakundearen hizkuntza egoera, zerbitzu administratiboaren izaera, herri-langileen hizkuntza gaitasuna eta jarrera, eta administrazioaren jardueraren eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak; beti ere herritarren hizkuntza aukeraren kalterik gabe)
- 2.2. Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lan-jardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jartzea
- 2.3. Euskara lan hizkuntza moduan finkatzeko hartuko diren oinarri nagusiak lanpostuaren komunikazio-funtzioak eta lanpostuko herri-langilearen euskara-gaitasuna eta hizkuntza-jarrera izango direnez, herri-langileen euskararen aldeko jarrera, motibazioa eta onarpena sustatzea, horretarako behar den prestakuntza eta laguntza eskainiz
- 2.4. Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileen hizkuntza erabileretan lehentasunezko arreta jartzea
- 2.5. Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera ziurtatzea eta gehitzea
- 2.6. Erakunde barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia bermatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritzza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 2.1. Langile eta arduradunentzako euskarazko trebakuntza saioen eskaintza eta eskaria erakunde motaren arabera
- 2.2. Langileen prestakuntza orokorreko euskarazko eskaintza erakunde motaren arabera
- 2.3. Euskarazko eta gaztelaniazko aplikazio informatiko eta webguneetako edukien lokalizazio eta erabilera maila
- 2.4. Langileen euskararekiko jarrera eta motibazioa hobetzeko ekintzak erakunde publikoetan erakunde motaren eta gunen soziolinguistikoaren arabera

Ekintzaren deskribapena

3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea
 - 3.1. Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotzeko neurriak hartzea
 - 3.2. Salbuetsitakoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartzea
 - 3.3. Herri Administrazioetako kargu publikoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartzea
 - 3.4. Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatzea (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia)
 - 3.5. Legeriak eta kudeaketa planek ezartzen dituzten irizpideak ez ezik, lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan bi faktore kontuan hartzea: lanpostuaren beharizan komunikatibo nagusiak, alde batetik, eta zerbitzu-emaile nahiz zerbitzu-hartzaile diren euskal hitzunen hizkuntza ezaugarriak, bestetik
 - 3.6. Hizkuntza eskakizunen derrigortasuna zenbat lanpostutan ezarri zehazterakoan administrazioaren jarduera-eremuaren egoera soziolinguistikoa ardatz nagusi gisa hartzea, kontuan izanik, halaber, administrazioen hizkuntza kudeaketako planetan aurreikusitako helburuak eta dagokion administrazioaren hizkuntza errealitatea.

Legez, lanpostu batzuetan euskara gaitasuna derrigorrezkoa da, eta besteetan, merezimenduzkoa. Euskara gaitasuna egiaztatzea derrigorrezkoa den ala merezimenduzkoa erabakitzean, banaketa hori arrazoibidez eta proportzionaltasunez egingo dela bermatzea

- 3.7. 86/1997 Dekretuaren aplikazioan malgutasunez jokatzea, tokian tokiko egoerei erantzuteko moduan, eta ez muga gisa

Eragileak:

- Eusko Jaurjaritza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 3.1. Arduradun politikoen ezagutza mailaren jarraipena erakunde motaren arabera
- 3.2. Langileen hizkuntza eskakizunen bilakaera erakunde motaren arabera
- 3.3. Euskara ikasten emandako orduak langileko, erakunde motaren arabera

Ekintzaren deskribapena

4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea

- 4.1. Herri-administrazio bakoitzak bere esparrurako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak (HOEI) finkatzea. HOElak ondorengo arloetan aplikatzekoak izango dira, besteak beste: herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioa, administrazio bakoitzeko lan-arlo ezberdinen eta herri-langileen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioa, administrazioen arteko idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoak, ekitaldi publikoetako hizkuntza erabilera, itzulpengintza, korredakzioa, erregistroa, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet, argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea, hizkuntza paisaia, herri-langileen etengabeko prestakuntza profesionala eta euskara-gaitasunaren hobekuntza, euskarazko komunikazio idatziaren kalitatea eta komunikagarritasuna, eta kontrataziorako hizkuntza-baldintzak
- 4.2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak betetzen direla bermatzea
- 4.3. Kontratazio-hizkuntza betebeharrak ezartzea eta betetzen direla bermatzea (esleipen prozeduretan baldintza-agirietan jasotzea)
- 4.4. Elkarte eta enpresei dirulaguntzak ematerakoan edo jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo udal instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan hizkuntza irizpideak ere finkatzea eta hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea
- 4.5. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzearen kalterik gabe, euskarazko sorkuntzari lehentasuna ematea itzulpenaren bidezko euskararen presentziaren aurretik
- 4.6. Hizkuntza irizpideen baitan dagoen itzulpen politika egoki bat zehaztea (bereziki idazketa elebiduna bultzatuz)
- 4.7. Itzulpenen eta euskaraz sortzen diren testuen komunikazio-kalitatea bermatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 4.1. Hizkuntza ofizialen erabilera irizpideak zehaztuta dauzkaten erakundeak eta horien betetze-maila erakunde motaren arabera
- 4.2. Kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak ezarrita dituzten erakundeak eta irizpideon betetze-maila erakunde motaren arabera
- 4.3. Diru-laguntzak esleitzeko hizkuntza irizpideak ezarrita dituzten erakundeak
- 4.4. Euskaratik gaztelaniara eta alderantziz egindako itzulpenen bilakaera Eusko Jaurlaritzan

Ekintzaren deskribapena

5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea

- 5.1. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, indar berezia egitea osasun-zerbitzuen emaileen euskara-gaitasuna gehitzeko (pediatria zerbitzuetan, familia medikuen lanpostuetan, lehen atentzioko zentroetan, adinekoen eta menekotasun ezberdinetako pertsonen atentzio-zerbitzuetan, eta zerbitzu-hartzaileekin zuzeneko harreman jarraitua duten lanpostuetan; erizainak, eta abar)
- 5.2. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, indar berezia egitea herritarren segurtasuna bermatzea helburu duten polizia zerbitzuetan, eta arreta berezia jartzea herritarrekin zuzeneko harremana duten lanpostuetan ahozko komunikazioa euskaraz ere izan dadin
- 5.3. Justizia Administrazioan epaitegi-prozedurak euskaraz ere egin ahal izateko neurriak hartzea, eta herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak eremu horretan ere bermatzeko egin behar diren lege aldaketak egitea
- 5.4. Estatuaren administrazio periferikoaren giza baliabideen egitura eta zerbitzu-antolaketa EAEko hizkuntza errealitatera eta legedira egokitzea
- 5.5. Euskararen beste lurraldeetako herri-administrazioekin jakintza trukea eta elkarlana garatzea
- 5.6. Herri-administrazioak hizkuntza eskubideen urraketak identifikatu eta konponbidean jartzerakoan aitzindari eta bide erakusle direnez eta izango direnez, ELEBIDE (Hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa) sustatzea eta zabaltzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak
- Osakidetza
- Herrizaingoak
- Justizia administrazioa
- Estatuaren administrazio periferikoa

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 5.1. HAKOBaren jardunaren eta emaitzen jarraipena
- 5.2. ELEBIDEren eta Behatokiaren bitartez jasotako kexa-kopuruaren bilakaera

Ekintzaren deskribapena

6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea

- 6.1. Komunikazio planak garatzea euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko
- 6.2. Komunikazio instituzionalean eta erakundearen izenean egiten diren jendaurreko jardueretan euskararen erabilera bultzatzea
- 6.3. Argitalpenetan euskararen presentzia gehitzea
- 6.4. Web orrietan euskararen presentzia gehitzea, komunikagarritasuna zainduta
- 6.5. Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotzea, komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxienekoari kalterik egin gabe

Eragileak:

- Eusko Jurlaritzza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

- 6.1. Erakunde publikoen web guneetan erabilitako hizkuntza

5. GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

Ekintzaren deskribapena

- I. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea
 - I.1. Euskara ohiko lan hizkuntza gisa garatzeko herri-administrazioetako langileek behar besteko euskara-gaitasuna izan dezaten neurri eraginkorrak hartzea
 - I.2. Udalerri euskaldunenetako osasun, justizia eta gizarte zerbitzuetan euskararen erabilera lehenestea
 - I.3. Administrazioen arteko harremanetan, gune euskaldunenetako udal langileekin izango dituzten lan-harremanak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango direla ziurtatzea
 - I.4. Udalaz gaindiko administrazioek gune euskaldunenetako herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea
 - I.5. Hizkuntza paisaia –ez bakarrik eskumen publikokoa, baizik eta baita ere merkataritza eta enpresa arlokoa–oro har euskaraz izateko neurriak hartzea
 - I.6. Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea
 - I.7. Merkataritza kokaguneetan bezero euskaldunak euskarazko zerbitzua jaso ahal izango duela bermatzea
 - I.8. Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera-eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezitzaileak, gurasoak, ikasleak) eta herri-administrazioek parte har dezaten
 - I.9. Aisialdiko ekintzetan, kultur jardueretan eta erlijio jardueretan ohiko eskaintza euskarazkoa izatea bermatzea
 - I.10. Proiektzio publikoa duten zerbitzuak kontratatzerakoan, elkarre eta enpresei diru-laguntzak ematerakoan, jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabilaren lagapena egiterakoan euskararen erabilera egokia bermatzea
 - I.10.1. Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)
 - I.12. Gune geografiko euskaldunenetako erdaldunak euskarara erakartzeko estrategiak diseinatu eta garatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak
- Enpresak
- Merkatal guneak

Ekintzaren deskribapena

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 1.1. Gune euskaldunenetako euskarazko eskaintza kultura, aisialdi eta kirol jardueretan
- 1.2. Gune euskaldunenetan kokatutako administrazioetako hizkuntzen erabilera kanpo harremanetan
- 1.3. Gune euskaldunenetan kokatutako administrazioetako hizkuntzen erabilera barne harremanetan
- 1.4. Gune euskaldunenetako euskararen erabilera, erabilera-eremuaren arabera

2. Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea

- 2.1. Euskararen familia bidezko transmisioa bermatzeko eta sendotzeko ekintza lagungarriak garatzea
- 2.2. Ahozkotasuna eta euskaraz adierazteko gaitasuna lantzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitasmoen bidez
- 2.3. Irakurzaletasuna sustatu eta indartzera bideratutako ekimenak abiaraztea (irakurketa tailerrak, etab.)
- 2.4. Euskarazko produktuen katalogoa eta euskarazko kultur eskaintza ahalik eta gehien jakinaraztea, web gune bitartez edo beste bide batzuetatik

Eragileak:

- HPS
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 2.1. Seme-alaben lehen hizkuntza, gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera
- 2.2. Gune euskaldunenetan irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak

6. ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Ekintzaren deskribapena

- I. Euskara planak zabaltzeko babeseta eta laguntza ematen jarraitzea eta diru-laguntzen sistema etengabe hobetzea
 - I.1. Erakunde publikoetan euskara planak diseinatu eta garatzea
 - I.2. Enpresa pribatuetan euskara planak hedatzea, enpresa publikoen kasuan bezala lantokien tipologia bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz
 - I.3. Enpresa pribatuen lankidetzeta areagotzea komunikazio kanpaina egokien bidez
 - I.4. Enpresa txiki eta ertainetan planak garatzeko aukerak eskaini eta areagotzea
 - I.5. Enpresei zuzendutako arreta-gune bat sortzea, hizkuntza-politika arloko ekimenen informazioa hedatu eta ezagutarazteko, euskararen aldeko planak eta proiektuak enpresetan ezartzeko orduan izan daitezkeen kezkek eta beharrak bideratzeko eta aurrera begira sortu daitezkeen aukera eta behar berriak antzemateko
 - I.6. Euskara Planen inguruko ikastaro bereziak antolatzea, langileei eta enpresen arduradunei begira
 - I.7. Enpresetako langileei euskara ikasteko prestakuntza erraztea
 - I.8. Enpresarien elkarte eta langileen sindikatuekin sinatutako akordioak eta akordio horien garapen eta jarraipenerako sortutako elkarguneak sendotzea eta bultzatzea
 - I.9. Enpresen euskara planetara bideratzen diren diru-laguntzen inguruko herri-aginteen koordinazioa indartu eta hobetzea
 - I.10. Arlo sozioekonomikoarentzako diru-laguntza lerroetan hizkuntza irizpideak txertatzea
 - I.11. Akordio horiek sinatu zituzten erakunde ekonomiko, sozial eta finantzarrien artean elkarlanerako Kontseilu Bateratu bat sortzea. Kontseilu horren egitekoa diru-laguntzen kudeaketaren jarraipena, ebaluaketa eta etengabeko berrikuntzarako proposamenak egitea izango litzateke
 - I.12. Eragile nagusien arteko elkarlana sustatzea
 - I.13. Ekintzaileei zuzendutako diru-laguntzetan eta programetan hizkuntza irizpideak txertatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
 - * Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak
- Enpresari elkarteak
- Enpresak
- Sindikatuak

Ekintzaren deskribapena

- Garapen agentziak
- Aholkularitza enpresak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Lan munduan euskara planak hedatzeko diru-laguntzen bilakaera
- 1.2. Euskara plana garatzeko diruz lagundutako enpresa kopuruaren bilakaera

2. Orain arte garatu diren euskara planen emaitzen gaineko azterlana egitea, egoera ezagutu eta aurrera begirako proposamenak egiteko

- 2.1. Euskara planek izan duten ibilbidearen analisia egin eta emaitzak baloratzea
- 2.2. Euskara planekin lotutako jardueren ondorioz enpresen zerbitzua elebitasunaren ikuspegitik nola aldatu den ikertzea
- 2.3. Enpresa jarduerak euskalduntzeko egiten diren ahaleginen ebaluazio sistematikoaren logika ezarri eta hedatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Garrantzia:

- Handia

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea

- 3.1. Interes publiko eta unibertsalekoak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bezeroekiko zerbitzugintza euskaraz ere eskaintzea
- 3.2. Jendeari begirako establezimendu edo zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak modu progresiboan bermatzen dituzten neurriak hartzea, indarrean dagoen araubidea betearaziz eta horretarako enpresen aldetiko konpromisoa, partaidetza eta konplizitatea lortuz

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Enpresari elkarteak
- Enpresak

Garrantzia:

- Handia

Ekintzaren deskribapena

Adierazleak:

- 3.1. Euskararen erabilera lan munduan eremuaren¹ arabera
- 3.2. Interes publikoko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen euskarazko eskaintza

4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea

- 4.1. Enpresetako urteko kudeaketa planetan hizkuntza kudeaketaren ezaugarriak txertatzea
- 4.2. Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Enpresari elkarteak
- Enpresak
- Sindikatuak

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

Enpresetako hizkuntza-kudeaketa EMEn lau ardatzen arabera

5. Arlo sozioekonomikoa eta hezkuntza sistema ongi uztartzea

- 5.1. Lanbide heziketako ikastetxeetan gero eta ziklo gehiago euskaraz egin ahal izateko aukera eskaintzeko neurriak hartzea, besteak beste irakasleen euskara-gaitasuna hobetuz eta ikasmateriala euskaraz ere jarriz eta sortuz
- 5.2. Lanbide heziketako eta unibertsitateko ikasleek lan-mundura hurbiltzean egin ohi dituzten praktikak euskaraz ere egiteko aukera izan dezaten laguntza ematea
- 5.3. Akordioak bilatzea prozesuan parte hartzen duten eragileekin

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Enpresak
- Ikastetxeak

Garrantzia:

- Handia

¹ Saltoki, jatetxe eta tabernak batetik, eta 100 langilez gorako enpresak bestetik.

Ekintzaren deskribapena

Adierazleak:

- 5.1. Lanbide Heziketako matrikulazioa hizkuntza ereduaren arabera
- 5.2. Lanbide Heziketako moduluen eskaintza hizkuntzaren arabera
- 5.3. Unibertsitateko ikasleen lan-praktikak hizkuntzaren arabera

6. Lan zerbitzuetan euskararen normalizazioa bultzatzea

- 6.1. LANBIDEn (Euskal Enplegu Zerbitzua), Lan Harremanen Kontseiluan, Lan eta Gizarte Segurantzako Inspezioan eta Lan arloko epaitegietan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea
- 6.2. Langileen etengabeko prestakuntzan hainbat modulu euskaraz ere egiteko aukera bermatuko da

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
 - * Lanbide
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Lan zerbitzuak

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

- 6.1. Lan zerbitzuetako langileen hizkuntza-gaitasunaren bilakaera
- 6.2. Langileen etengabeko prestakuntzaren eskaintza hizkuntzaren arabera

7. Euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko sistema hedatzea

- 7.1. Gaur egun enpresetan indarrean diren kalitate-parametroen arabera euskararen erabilera ere modu sistematizatuan aitortu eta ebaluatzeko sorturiko BIKAIN ziurtagiria garatzen jarraitzea, sektore ezberdinetako enpresen hizkuntza kudeaketa kalitatearen irizpideen arabera hobetuz, kudeaketa horren ebaluaziorako erraztasunak emanez. Gainera, kalitatearen aitormen eta ebaluaziorako merkatuan erroturik dauden ziurtagiri estandarretan (EFQM, ISO eta abar) hizkuntza kudeaketaren irizpidea normaltasunez integratzeko urratsak egitea
- 7.2. Euskararen presentzia eta erabilera egiaztatzeko sistema eraginkor bateranzko pausoak ematea
- 7.3. Euskararen erabileraren ebaluazio eta aitortzaren sistema garatzeko baliabideak jartzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

- * Bikain Ziurtagiriaren Artezkaritza Batzordea
- Euskalit
- Ziurtagiriaren Elkarte

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

7.1. Hizkuntza egiaztagirien bilakaera

8. Euskara enpresa munduan erabiltzeari prestigioa ematea

8.1. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak azpimarratzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongi-izatearekin identifikatzeko

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Enpresari elkarteak
- Enpresak
- Sindikatuak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

8.1. Lan munduan euskararen prestigioa bultzatzeko ekimenen bilakaera

9. Hizkuntzen industriren arteko elkarlana sustatzea

9.1. Hizkuntzen industria indartzeko Langune klusterraren garapena bermatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

9.1. Languneraren bilakaera

7. AISIA ETA KIROLA

Ekintzaren deskribapena

A) AISIA

1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea

- 1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan
- 1.2. Gazteen artean euskararen irudia zehaztu, hobetu eta indartzea
- 1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea
- 1.4. Adineko herritarrei propio zuzendutako aisia- eta heziketa-jarduerak antolatu eta zabaltzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Oporraldietako aisialdi-programak, adin-taldearen, erakundearen eta hizkuntzaren arabera
- 1.2. Urtean zeharreko aisialdi eskaintza, adin-taldearen, esparruaren eta hizkuntzaren arabera

2. Begiraleen prestakuntza sendotzea

- 2.1. Begiraleen eskoletan euskarazko adarra bermatu eta arlo horretan eskarmentua dutenekin euskara integratzeko lagungarri izan daitezkeen ekimen berritzaileak adostu eta lantzea
- 2.2. Begiraleen hizkuntza profilak/trebakuntza hobetzea batetik, eta bestetik, zehaztea: hau da, zein betekizun bete behar dituzten zehaztea, delako ekimena egoki eskaini ahal izateko
- 2.3. Begiraleen kontratazioan eta aisialdiko ekimenetara bideratzen diren diru-laguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak

Garrantzia:

- Handia

Ekintzaren deskribapena

Adierazleak:

- 2.1. Begiraleen prestakuntzarako eskaintza hizkuntzaren arabera
- 2.2. Begiraleek euskara hobetzeko ikastaroen eskaintza

3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea

- 3.1. Haur eta gazteentzako antolatzen diren ekitaldietako euskara kalitatezkoa dela bermatzea (bai ekitaldia, bai artisten/begiraleen euskararen ezagutza eta erabilera)
- 3.2. Begiraleek darabilten hizkuntza lehen planoan jartzea, hau da, formak edukiak besteko garrantzia duela azpimarratzea eta horretan trebatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 3.1. Begiraleek euskara hobetzeko ikastaroen eskaintza

4. Euskararen erabilera bultzatuko duten ekimenak antolatu eta baliabideak optimizatzea

- 4.1. Ekitaldi-zirkuitu ibiltariak, herri batean baino gehiagotan burutu ahal izango direnak, antolatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 4.1. Euskarazko ekimen ibiltariak, adinaren arabera (publiko hartzailea kontuan izanda)

5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko

- 5.1. Aisialdirako sareko edukiak gehitzea
- 5.2. Komunikazioa bultzatzeko gizarte sare birtual euskaldunak sustatzea
- 5.3. Erabilera gero eta handiagoa duten gailu teknologiko berrietara egokitutako aisialdi aplikazioak sortzen laguntzea
- 5.4. Bideo-jokoen alorrean eragitea euskarazko produktuak ere ekoiztu eta hedatu daitezen

Ekintzaren deskribapena

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 5.1. Euskarazko aisialdiko IKT-produktuak hizkuntzaren arabera
- 5.2. Euskararen presentzia Interneteko gizarte sareetan adinaren arabera

6. Gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea

- 6.1. Esparru honetako euskararen erabilerari bultzada emango dioten berrikuntzak propio asmatu eta garatzea
- 6.2. Merkatuan agertzen diren berrikuntzak berehala lokalizatzea euskarara

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 6.1. Gazteei zuzendutako IKT-produktuen euskarazko lokalizazioaren bilakaera

7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea

- 7.1. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak sortzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * Immigrazio eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 7.1. Etorkinen integrazioarako eta euskara ezagutarazteko aisialdi programak

Ekintzaren deskribapena

B) KIROLA

8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

- 8.1. Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egitea
- 8.2. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzatza-protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeke eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro
- 8.3. Euskarazko materialaren sorkuntza eta hedapena sustatzea
- 8.4. Entrenatzaileak trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea
- 8.5. Kirol elkarteentzat euskararen erabilerari lotutako sariak eta txapelketak antolatzea
- 8.6. Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritzak:
 - * Kirol Zuzendaritza
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak
- Federazioak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 8.1. Kirol ekitaldi nagusietako ahozko jarduna hizkuntzaren arabera
- 8.2. Entrenatzaileen eta epaileen hizkuntza-gaitasuna kirolaren arabera
- 8.3. Kirol federazioen euskararen erabilera jardueraren arabera EAEn

9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduera, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea

- 9.1. Kirol-arloan euskararen erakargarritasuna landu eta era egokian proiektatu eta hedatzea
- 9.2. Erakundeen laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea
- 9.3. Maila profesionaleko kirolean ere euskararen erabilera sustatzea, puntako kirolarien partaidetza lortuz

Ekintzaren deskribapena

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kirol Zuzendaritza
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Federazioak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

9.1. Kirol ekitaldi nagusietako ahozko jarduna hizkuntzaren arabera

10. Euskara kirol-munduan erabiltzeari prestigioa ematea, kalitatearekin eta erronka berriei aurre egiteko gaitasunarekin lotuz, nazioarte mailako balizko partehartze eta lehiari begira identifikazio osagaitzat erabiliz

- 10.1. Kirolari profesionalekin eta haien enpresekin akordioak lortzea, ohiko komunikazioan euskara ere erabil dezaten
- 10.2. Basque Team-en barruan euskarazko komunikazio lerroa bultzatzea
- 10.3. Komunikabideen parte-hartzea sendotzea kirol-arloan euskararen proiektzioa indartzeko
- 10.4. Oihartzun handiko kirol ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea hizkuntza paisaian (ahoz zein idatziz)

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kirol Zuzendaritza
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Federazioak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

10.1. Nazioarteko kirol ekitaldietako hizkuntzen kudeaketa

8. LIBURUGINTZA

Ekintzaren deskribapena

1. Irakurzaletasuna bultzatzea

- 1.1. Sektoreko eragileekiko elkarlana areagotzea
- 1.2. Euskaraz saldu eta irakurtzen diren liburuen azterketa egitea
- 1.3. Herri liburutegietako euskarazko liburuen maileguak neurtu eta ondorioak aplikatzea
- 1.4. Herri liburutegietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea
- 1.5. Herri liburutegietan irakurleen klubak antolatu eta sustatzea
- 1.6. Herri liburutegietan euskarazko liburuen sustapena egitea
- 1.7. Hedabide publikoetan irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak indartzea
- 1.8. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenetan liburu-denden parte-hartzea sendotzea
- 1.9. Batez ere haur eta gazteei begirako produktuen euskari berriak sustatzea
- 1.10. Euskal testuen irakurketa publikoak bultzatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
 - * EITB
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak
- Liburutegiak
- Liburugintzaren sektorea

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenen bilakaera
- 1.2. Herri liburutegietako liburuen eskaintzaren eta maileguen bilakaera, hizkuntzaren arabera

2. Marketing-a antolatzea eta merkatua zabaltzea

- 2.1. Merkatu-zirkuitu desberdinetarako produktuak ekoizteko neurriak hartzea
- 2.2. Euskaraz argitaratutako literaturaren irakurketa sustatzea, bereziki haur eta gazteen artean
- 2.3. Euskarazko liburu eta argitarapen elektronikoen katalogo bateratu eta publikoa antolatzea
- 2.4. Literatura komertzialaren alorrean euskarazko itzulpenak bestelako hizkuntzetara egindako itzulpenen garai beretsuan egingo direla bultzatzea, horretarako bertako eta kanpoko argitaletxeen arteko elkarlana sustatuz

Ekintzaren deskribapena

- 2.5. Euskarazko liburu elektronikoak, audioliburuak eta bideoliburuak bultzatzeko politika bat adostea
- 2.6. Liburu elektronikoetan auto-edizioa sustatzeko neurriak hartzea
- 2.7. Liburu elektronikoetan euskarazko hiztegiak integratzea

Eragileak:

- Eusko Jurlaritzza:
 - * Kultura Saila
- Foru aldundiak
- Argitaletxeak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 2.1. Euskarazko liburuak eta argitalpenak ezagutarazteko ekimenak
- 2.2. Euskarazko liburugintzaren bilakaera
- 2.3. Euskarazko liburuen kontsumoaren bilakaera

3. Euskal liburuarekiko politika bateratua egitea, lurralde eta sail administratibo desberdinetan

- 3.1. Liburuarekiko politikaren kanpoko azterketa bat egitea
- 3.2. Euskarazko liburu berrien sareko plataforma bateratua sortzea, produktuen sustapenerako

Eragileak:

- Eusko Jurlaritzza:
 - * Kultura Saila
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Handia

9. KULTURGINTZA

Ekintzaren deskribapena

1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea

- I.1. Euskarazko kultura ekoizpenak kontsumitzeko pizgarrien sistema bat eratzea
- I.2. Euskal Kultur Klubean euskararen presentzia sustatzea
- I.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea
- I.4. Elebidun pasiboak erakartzeko kultura ekintzak antolatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- I.1. Euskarazko kultura produktuen kontsumoa sustatzeko ekimenak

2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea

- 2.1. Sorkuntzan eta haren hazkunderan eragiten duten faktoreen inguruko azterlana egitea
- 2.2. Euskarazko kultura produktuen eskaintza dibertsifikatu eta aberasteko formulak identifikatu eta aplikatzea
- 2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak, ...) abian jartzea edo indartzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 2.1. Euskarazko kultura sorkuntza sustatzeko diru-laguntzak erakundearen arabera
- 2.2. Euskarazko kultura sorkuntza sustatzeko lehiaketak

3. Euskarazko ekoizpenen zirkuituak antolatzea

- 3.1. Arte eszenikoetan zein ikus-entzunezkoetan zirkuitu ibiltariak indartu eta saritzea

Ekintzaren deskribapena

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 3.1. Kultura zirkuituak hizkuntzaren eta emanaldi motaren arabera

4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea

- 4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea
- 4.2. Informazioaren zabalkundeari begira, erakundeen arteko elkarlana sendotzea
- 4.3. Euskarazko kultura ekoizpenen sustapenean hedabide publikoen papera indartzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila
 - * EITB

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 4.1. Euskarazko kultura eskaintza esparruaren eta euskarriaren arabera

5. Kulturaren industriaren barmeko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea

- 5.1. Euskal kulturaren kluster bat antolatzeko aukerak aztertzea
- 5.2. Azterlanaren emaitzetan oinarriturik, euskal kulturaren klusterra antolatu eta haren barruan euskarazko jardunbideak finkatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila
 - * Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

- 5.1. Euskal kulturaren klusterraren bilakaera

10. PUBLIZITATEA

Ekintzaren deskribapena

1. Euskarazko publizitatearen sorkuntza sustatzea, horretarako estrategia original, bereizgarri eta berritzaileak bultzatuz
 - 1.1. Euskarazko publizitatea sortzeko lehiaketak eta sariak antolatzea
 - 1.2. Publizitate kanpainak kontratatzerakoan, euskarazko sorkuntza lehenestea edota saritzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Publizitatearen sektorea

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Euskarazko publizitatearen bilakaera erakunde publiko eta pribatuetan

2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea
 - 2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 2.1. Euskarazko publizitatearen bilakaera erakunde publiko eta pribatuetan

3. Euskarazko publizitatearen merkatua prestigiatzea iragarleen artean
 - 3.1. Hedabideek iragarleei publizitatea euskaraz egiteko aukera ematea
 - 3.2. Hedabide publikoek iragarleei euskaraz publizitatea egin dezaten informazioa, erraztasunak eta pizgarriak ematea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Hedabideak

Garrantzia:

- Handia

Ekintzaren deskribapena

Adierazleak:

3.1. Euskarazko publizitatea sustatzeko diru-laguntzak

4. Erakundeek euskarazko publizitatearen sortzaileekin batera elkarlanean jardutea

4.1. Enpresa-estrategia erakargarri eta eraginkorrak indarrean jartzea

4.2. Enpresa munduak alor honetan duen erantzukizun sozialaz kontzientziatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jauriaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Publizitate enpresak

Garrantzia:

Ertaina/Handia

II. CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA

Ekintzaren deskribapena

- I. Euskara estandarra elikatu, aberastu eta sendotzea hizkuntzaren kalitatea bermatuz: komunikagarritasuna, adierazkortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna lantzea
 - I.1. Hiztegi Batua osatu eta etengabe zabaltzea
 - I.2. Erregistro desberdinak lantzea: idatzia, ahozkoa
 - I.3. Euskararen erreferentzia-corpora egin eta garatzea: hainbat erakunde eta elkarterekin elkarlanean euskararen corpora estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatu eta sustatzea, berauen artean arreta berezia eskainiko zaiolarik euskararen erreferentziatzko corpusaren proiektuari eta terminologia-lanari
 - I.4. Euskaldun berrientzako material moldatu eta mailakatuak sortzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Euskaltzaindia
- Unibertsitatea
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * HABE

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- I.1. Euskararen corpusaren estandarizazioan eta erreferentzia corpusean sartutako edota finkatutako sarreren kopurua

2. Esparruko eragile nagusien elkarlana areagotzea, horretarako lankidetzak bideak jorratuz

- 2.1. Sektorean erreferentzia diren erakundeekiko hitzarmenen aukera aztertzea
- 2.2. Hitzarmenak garatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Foru aldundiak
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Ekintzaren deskribapena

Adierazleak:

2.1. Euskararen corpusaren alorreko eragileekin sinatutako hitzarmenen kopurua

3. EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea

- 3.1. EAEko izen geografiko ofizialen izendegia eguneratu eta zabaltzea
- 3.2. EAEko toponimia datu-basea zuzendu, eguneratu, osatu eta zabaltzea
- 3.3. Toponimia-alorrean aritzen diren entitateekin lankidetzeta-bideak jorratzea (Toponimia Batzordea): Euskaltzaindia, Foru Aldundiak, EUDEL, udalak, Instituto Geográfico Nacional, Iparraldean zein Nafarroan alor honetako eskumenak dituzten erakundeak.
- 3.4. Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz
- 3.5. Toponimia ofiziala eta zuzenaren erabileraren jarraipena egitea eta, berau erabiltzearen garrantziaz jabetzeko, kanpainak egitea (ikastetxeetan, erakunde ofizialetan, hedabideetan...), eta ikasmaterialak eta jokoak prestatzea
- 3.6. Interneteko eragile nagusiekin elkarlanean aritzea sarean toponimia modu egokian erabil dadin

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

- 3.1. EAEko toponimia datu-basean eguneratutako toponimoen kopurua
- 3.2. EAEko herri-administrazioek toponimian egindako ekarpenen kopurua
- 3.3. Ofizialdutako toponimoen zabalkunderako HPStik egindako komunikazioen kopurua

4. Euskarazko terminologia elikatu, eguneratu eta zabaltzea

- 4.1. Terminologia zientifiko-teknikoa garatu eta zabaltzea
- 4.2. EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa eguneratzea
- 4.3. Terminologia-lanarekin jarraitzea, ahalik eta eremu gehien harrapatuz: Terminologia Batzordearekin batera, urteko jarduketa-planak egin, lehenetasunak finkatu, hiztegi terminologikoak prestatu eta onartu, terminoen artean lehenetasunak ezarri, onartutako terminologia zabaltu eta gomendatu, eta onartutako terminologiaren erabileraren jarraipena eta ebaluazioa egin

Ekintzaren deskribapena

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Unibertsitatea

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

4.1. Terminologia Batzordeak onartutako hiztegien kopurua

5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea

- 5.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz
- 5.2. Gazteen hizkerari arreta berezia eskaintzea, horretarako ekimen zehatzak abian jarri (erregistroen araberako esamoldeak lantzeko egitasmoak, idazlan-lehiaketak, komiki-lehiaketak, sms lehiaketak, etab.)

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

6. Euskararen kalitatea zaintzea

- 6.1. Euskararen erabilera publikoaren kalitatea bermatzea
- 6.2. Euskalki estandarizatuen kalitatea zaintzea
- 6.3. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Euskaltzaindia
- Unibertsitatea

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

6.1. Euskarazko kartel eta errotulu ofizialen kalitatea

12. HEDABIDEAK

Ekintzaren deskribapena

1. Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea
 - 1.1. Erakundeen arteko koordinazioa sendotzea, HAKOBAREN bitartez
 - 1.2. Herri-administrazioen publizitate instituzionalean hizkuntza irizpideak txertatzea, hizkuntzen berdintasunera bidean.

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Hedabideei zuzendutako diru-laguntzen bilakaera erakundearen arabera

2. Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea

- 2.1. Administrazioaren eta sektorearen arteko lankidetzaren oinarriak finkatzea eta, sektorearekin adostuta euskarazko hedabideen garapen estrategikoaren ildo nagusiak zehaztea
- 2.2. Euskarazko hedabideen behatokia sortu eta garatzea
- 2.3. Azterlan berezi baten bidez, euskarazko hedabideen erabiltzaileen eta publiko potentzialaren komunikazio beharrak ezagutzea euskararen eskualde desberdinak kontuan izanik
- 2.4. Azterlanaren emaitzetan oinarriturik, euskarazko hedabideen garapenari buruzko gogoeta estrategikoa bideratzea, hedabide publiko eta pribatuak eta horien arteko sinergiak aintzak harturik
- 2.5. Euskarazko hedabideen ildo estrategikoei erantzuteko politikak sustatzea herri eta lurraldeetako instituzioekin batera
- 2.6. Gogoeta estrategikotik sortutako politikak euskararen beste lurraldeetako erakundeekin koordinatzea
- 2.7. Hedabideen arloan etorkizuna aurreikusteko eta gertuko eta mundu zabaleko esperientziak ezagutarazteko jarduerak bideratzea eta bidean dauden esperientziak baliatzea
- 2.8. Hizkuntza ertain edo eremu urriko hizkuntzak dituzten beste lurralde batzuetako esperientziak eta praktika onak aztertzea
- 2.9. Euskarazko hedabideetara egokitutako audientzia-azterketa sistema bat eratzea
- 2.10. Erdal hedabideetan euskarazko edukiek izaten duten harrerari buruzko neurketak eta azterketa kualitatiboak egitea

Ekintzaren deskribapena

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Kultura Saila
- Hedabideak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 2.1. Euskarazko hedabideen bilakaera, hedabide-motaren arabera
 - 2.2. Euskarazko hedabideen kontsumoa
 - 2.3. Euskararen presentziaren bilakaera erdal hedabideetan
3. Hedabide publikoen hizkuntzarekiko betekizunei buruzko hausnarketa bideratzea
- 3.1. Hedabide publikoen eginkizunak zehazteko eta haien betetze-maila neurtzeko gogoeta bat bideratzea
 - 3.2. Hausnarketatik ateratako ondorioak praktikara eramatea
 - 3.3. Euskal hedabideen sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * EITB

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 3.1. EITBren eta gainerako hedabide publikoen ekoizpena hizkuntzaren eta programa-motaren arabera
-
4. Euskarazko hedabideen garapen industrial eta teknologikoa bultzatzea
- 4.1. Euskarazko hedabideen enpresa-dimentsioa aintzat hartzea
 - 4.2. Prestakuntza orokorra eta espezifikoa eskaintzea
 - 4.3. Sektoreak edota eragile jakin batek garatu ditzakeen aplikazio teknologiko berrien garapenean laguntzea
 - 4.4. Garapen teknologikoarekin batera herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzen dituzten komunikazio proiektu globalak edo multimedia saritzea

Ekintzaren deskribapena**Eragileak:**

- Eusko Jauriaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila
- Hedabideak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 4.1. Euskarazko hedabideek garapen teknologikorako jasotako diru-laguntzen bilakaera
- 4.2. Euskarazko hedabideen garapen teknologikorako diru-laguntzetara aurkeztutako proiektuen bilakaera

5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea

- 5.1. Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzeko eta prestigiatzeko kanpainak antolatzea hedabideekin batera, emaitzak neurtuz
- 5.2. Hedabideen eta gizartearen lotura sustatzea, hedabide parte-hartzaileak bultzatuz, kirol, kultura, hezkuntza, merkataritza edo gazte-komunitateak protagonista bilakatuz
- 5.3. Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira

Eragileak:

- Eusko Jauriaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Hedabideak

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

- 5.1. Euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko kanpainak eremuaren arabera

Ekintzaren deskribapena**6. Erdal hedabideetan, publiko zein pribatuetan, euskarazko edukien presentzia areagotzea**

- 6.1. Ikus-entzunezko eta paperezko hedabideetan zein komunikabide digitaletan euskararen presentzia gehitzeko neurriak abian jartzea
- 6.2. Indarrean dagoen legeriari jarraiki, RTVEen euskararen presentzia lortzea

Eragileak:

- Eusko Jauriaritza:

- * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Hedabideak
- RTVE

Garrantzia:

- Ertain/Handia

Adierazleak:

6.1. Erdal hedabideetako euskarazko edukien bilakaera

7. Hedabideetako hizkuntzaren kalitatea bermatzea

7.1. Euskararen kalitatea bermatu eta zaintzeko neurriak hartzea

Eragileak:

- Hedabideak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Unibertsitatea

Garrantzia:

- Handia
-

13. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Ekintzaren deskribapena

1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea
 - 1.1. Euskarazko software katalogoa bateratu eta eguneratzea
 - 1.2. Sarean informazio gune iraunkorra abiaraztea eta eguneratuta mantentzea
 - 1.3. Komunikazio estrategiak garatzea: zabalkunde kanpainak, gidak, eskuliburuak
 - 1.4. Administrazio publikoetan informatikako tresnak euskaraz konfiguratzea eta horiek erabiltzeko moduan jartzea
 - 1.5. Azterlanak bultzatzea: neurgailu edo adierazle sistema iraunkorra eratzea, euskarazko tresnen presentzia, erabilera eta posizionamendua neurtzeko

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritzak:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Euskarazko softwarearen bilakaera tresna-motaren arabera

2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea

- 2.1. Erreferentziako euskal entziklopediaren inguruko hausnarketa bideratzea
- 2.2. Euskal Wikipedia (EW) sustatzea edukiak txertatuz; EWren kokapena aprobetxatzea euskarazko edukietarako sarbide gisa, EWa erreferentzia eta lotura egokiz elikatzea, ikastetxeetan eta unibertsitateetan EWraiko artikuluak sortu eta itzultzea, EW-n edukiak txertatzeko lankidetzak sustatzea (zientzia, teknologia, literatura...)
- 2.3. Lizentzia libreen trataera bateratua ahalbidetzea; publikotasunaren kontzeptuaren inguruko hausnarketa bideratzea; Copyleft politika arautzea diru-laguntza publikoaz sortutako edukientzat; publikoa den edukia sareratzea (EITBren materialak)
- 2.4. Euskara ikasteko tresna berriak sarean ipintzea
- 2.5. Interneteko eragile pribatu nagusiekin elkarlanerako bideak jorratzea
- 2.6. Bilatzaileak egokitzea euskarazko bilaketak errazteko eta hobetzeko, sektoreko eragile nagusiekin elkarlanean
- 2.7. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea

Ekintzaren deskribapena

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
 - * HABE
- Ikastetxeak
- IKTen sektoreko eragileak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

2.1. Euskararen bilakaera Interneteko sare sozialetan

3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea

- 3.1. Euskarazko tresnak sortzen direla bermatu eta bultzatzea
- 3.2. Euskarara aplikazioak lokalizatzea:
 - Sektoreko eragile nagusiekiko lankidetzarako formulak bilatzea
 - Programa edo sistema elektroniko erabilienak identifikatu eta euskarara lokalizatzea: telefonoen softwareak, sare sozialak egiteko balio duten tresnak, nabigatzaile elektronikoak, argazki-albumak egiteko aplikazioak, multimedia tresnak, CMSak...
 - Software guztietan euskarazko lokalizazioaren kalitatea bermatzea
- 3.3. Hiztegi elektronikoak, hiztegien pluginak, corpusak, hiztegi entziklopedikoak, itzulpengintzari laguntzeko tresnak, itzultzaile automatikoa eta bestelako tresnak sarean erabiltzaileen eskura jartzen jarraitzea
- 3.4. Itzulpen automatikorako eta sare sozialetarako tresnak garatzea
- 3.5. Euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikalak etengabe hobetu eta softwareen bertsio berrietara egokitzea, ofimatika produktuetan, nabigatzaileetan, edizio-tresnetan eta gainerakoetan

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Foru aldundiak
- Euskaltzaindia
- IKTen sektoreko eragileak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

3.1. Euskarazko softwarearen bilakaera tresna-motaren arabera

Ekintzaren deskribapena

4. .eus dominio orokorra eskuratu eta garatzea

4.1. ICANN nazioarteko erakundearen eskutik .eus dominio orokorra lortzea

4.2. .eus dominio eskuratutakoan, hura kudeatzea, ahalik eta esparru gehienetan erabil dadin

Eragileak:

- Eusko Jauraritza
- PuntuEus Fundazioa

Garantzia:

- Handia

Adierazleak:

4.1. .eus dominioaren garapenaren bilakaera

14. SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

Ekintzaren deskribapena

1. Euskara balio positiboekin eta modemitatearekin lotzeko ekimenak garatzea
 - 1.1. Erakundeen hizkuntza erabilera eredugarri bat bultzatzea, elebitasunaren ikuspegitik eta euskararen aldeko jarreraren aldetik
 - 1.2. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, euskara ikasteak ekar liezazkiekeen onurak azpimarratuz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartzea
 - 1.3. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldietarako abantailak eskaintzea
 - 1.4. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala
 - 1.5. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez
 - 1.6. Agerpen publikoetan euskararen erabilerak duen garrantziaz ohartarazi eta sentsibilizatzea
 - 1.7. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

- 1.1. Euskara prestigiatzeko ekimenak erakundearen eta gune soziolinguistikoaren arabera
- 1.2. Etorri berriei zuzendutako egitarauetan euskara ezagutarazteko ekintzen azterketa

2. Familia transmisioa

- 2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

- 2.1. Familia bidezko euskararen transmisioari buruzko kanpainak eta ekimenak

Ekintzaren deskribapena

3. Irakaskuntza

- 3.1. DBHn, Batxillergoan edo Lanbide Heziketan sartzearen gazteengan eta senideengan eragitea, euskarazko ereduaren ikasten jarraitzeak dakartzen abantailak azaltzeko
- 3.2. Herritarrei euskarazko eskolaz kanpoko prestakuntza zerbitzuez informazioa ematea
- 3.3. Goi mailako ikasketetan euskaraz ikasketak egiten dituztenentzat edo ikasketak bukatzeko lanak euskaraz prestatzen dituztenentzako pizgarriak eskaintzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Toki-entitateak

Adierazleak:

- 3.1. Euskarazko ereduaren matrikulatzeko kanpainak bilakaera, sustatzailearen eta gunearen arabera

4. Euskalduntze-alfabetatzea

- 4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea
- 4.2. Euskara eta elkarbizitza lotuko dituzten mezuak eta ekimenak sustatzea
- 4.3. Elebitasunaren balioak gizarteratzeko ekimenak sustatzea
- 4.4. Euskara ikasten dabilzanentzako aitorpen sistema bat eratzea
- 4.5. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea (autoeskolak, jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, merkataritza elkarteak), ikastaroak euskaraz ere antolatzeko

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
 - * HARE
- Euskaltegiak
- Toki-entitateak

Adierazleak:

- 4.1. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko kanpainak, sustatzailearen eta gunearen arabera

Ekintzaren deskribapena

5. Administrazioa

- 5.1. Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileak euskara erabiltzeko bideak erraztea eta sustatzea

5.2. Herritarrek administrazioekiko harremanetan euskara era naturalean erabil dezaten komunikazio ekintzak antolatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

- 5.1. Herri-langileen euskararen erabilera maila sustatzeko ekimenak erakundearen arabera
- 5.2. Herritarrek administrazioekiko harremanetan euskara erabil dezaten egindako ekimenak erakundearen arabera

6. Arlo sozioekonomikoa

- 6.1. Enpresekin eta enpresarien elkarrekin elkarriketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab
- 6.2. Enpresen elkarrekin eta sindikatuekin konpromisoak bilatzea euskararen erabilera plana egin eta partaide izateko
- 6.3. Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragitea, herritarraren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko
- 6.4. Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritzaren elkarrekin bitartez
- 6.5. Enpresen komunikazio planean eta agerpen publikoetan euskara erabiltzeko duen garrantziaz ohartarazi eta sentsibilizatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

- 6.1. Lan munduan euskara planak sustatzeko ekimenak erakundearen arabera

Ekintzaren deskribapena

7. Aisia eta kirola

- 7.1. Aisialdi taldeekiko lankidetzaren bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko
- 7.2. Aisialdirako zerbitzuak eta produktuak eskaintzen dituzten enpresei eta kolektiboari zuzendutako sentiberatze eta informazio kanpainak diseinatzea
- 7.3. Aisialdi taldeetan eragitea, etorri berriak, euskara eta aisialdia uztartuko dituzten ekimenak antolatu ditzaten
- 7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzaren bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

- 7.1. Tokian tokiko aisialdi eta kirol taldeekin euskararen erabilera sustatzeko hitzarmenak, erakundearen arabera

8. Liburugintza

- 8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea
- 8.2. Euskaraz argitaratutako liburuak eskola barruan eta eskolatik kanpo ezagutarazteko komunikazio-estrategia egokiak diseinatu eta abiaraztea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Argitaletxeak

Adierazleak:

- 8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak

9. Kulturgintza

- 9.1. Kultura elkarrekin elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko
- 9.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea
- 9.3. Etorri berriei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak, euskarazko kultur jarduerak kontsumitzera animatzeko
- 9.4. Herritarren artean euskarazko kultur produktuen sorkuntza eta kontsumoa bultzatzeko komunikazio-ekintzak indartzea
- 9.5. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gidak, argitalpen txikiak
- 9.6. Tokian tokiko hizkera prestigiozko jardunaldiak edo saioak antolatzea

Ekintzaren deskribapena**Eragileak:**

- Herri administrazioak
- Euskaltzaindia

Adierazleak:

- 9.1. Herritarren artean euskarazko kultur produktuen sorkuntza eta kontsumoa bultzatzeko ekimenak

10. Hedabideak eta publizitatea

- 10.1. Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea
- 10.2. Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen parte-hartzea sustatzea (gizarte sareen bidez, esaterako)
- 10.3. Enpresa, merkataria eta elkartei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak martxan jartzea publizitatean euskararen erabilera bultzatzeko

10.4. Publizitate enpresetan eragitea, ikusarazteko beren jardueran euskara barneratzeak izan dezakeen eragina

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

10.1. Euskarazko publizitatea sustatzeko ekimenak euskarriaren arabera

11. Teknologia berriak

11.1. Herritarengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten

11.2. Herritarengan eragitea, sareratzen dutena euskaraz egon dadin

11.3. Herritarengan eragitea, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, tabletetan eta gainerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak, etab., euskaraz izan daitezen

Eragileak:

- Herri administrazioak

Adierazleak:

11.1. Teknologia berriak euskaraz ere erabiltzera bultzatzeko ekimenak

15. BARRUKO PROIEKZIOA

Ekintzaren deskribapena

1. Euskararen irudi positiboa indartzea
 - 1.1. Harreman sareak sendotu eta elikatzea
 - 1.2. Euskararen ezagutza eta erabilerari lotutako balio erantsiak hedatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 1.1. Euskararen gaineko berriak eta iritziak Euskal Herriko hedabideetan
- 1.2. Euskararen irudi positiboa indartzeko kanpainak

2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere
 - 2.1. Kultura edo kirol jarduera jendetsuetan euskarazko komunikazioa (idatzizko zein ahozkoa) bermatzea
 - 2.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzen jarraitzeko lankidetzak diseinatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 2.1. Euskarazko hizkuntza paisaiaren bilakaera, erakundearen eta gune soziolinguistikoaren arabera

3. Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen barruko proiektzioa bultzatzeko
 - 3.1. Dagoeneko indarrean dauden hitzarmenak garatu eta gorpuztea (Euskaltzaindia, EITB)
 - 3.2. Lankidetzak berrien aukera aztertzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Eusko Jaurlaritza:
 - * Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ekintzaren deskribapena

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

3.1. Erakunde eta entitateen arteko hitzamenak euskara sustatzeko

4. Hizkuntzarekin zein kulturarekin zerikusia duten foroetan parte-hartzea

4.1. Eraginkorrak diren elkarguneetan euskararen presentzia bermatzea

4.2. Sinposio eta bestelako ekitaldietan parte-hartzea

Eragileak:

- Herri administrazioak
- Unibertsitatea

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

4.1. Euskararen inguruko foroen, sinposioen eta bestelako ekitaldien finantziakzioa, erakunde motaren arabera

5. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea

5.1. Euskararen eta euskarazko kulturaren gaineko aurkezpenak egitea

5.2. Euskarari buruzko erakusketa ibiltariak kudeatzea

5.3. Euskararen nazioarteko egunaren proiektzioa sendotzea

5.4. Euskarazko sortzaileen mugikortasuna erraztea

5.5. Webgune erakargarri eta edukiz bete baten bitartez euskarari eta euskal kulturari buruzko informazio aberatsa eskaintzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Kultura Saila - HPS
- Foru aldundiak
- Toki-entitateak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

5.1. Euskara eta euskarazko kultura ezagutarazteko ekimenen bilakaera, antolatzailearen arabera

Ekintzaren deskribapena

6. Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea

6.1. Elebidun pasiboen kopurua handitzea eta haien arreta erakartzea, euskarazko kultur ekoizpenaren bidez, komunikagarritasuna bermatuz

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 6.1. Elebitasun pasiboa areagotzeko ekimenak sustatzailearen arabera
6.2. Elebidun hartzaileen bilakaera adinaren arabera

7. Euskaraz sortutako eta gaztelaniaz sortutako kultura produktuen arteko loturak indartzea

7.1. Sortzaileen arteko harremanak eta elkar-ezagutza sendotzea

7.2. Euskarazko kultur produktuak euskaraz ez dakitenen artean ezagutaraztea

Eragileak:

- Eusko Jauriaritza:
 - * Kultura Saila
- Idazleen elkarteak

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

7.1. Euskarazko produktuak ezagutarazteko ekimenen bilakaera

16. KANPOKO PROIEKZIOA

Ekintzaren deskribapena

1. Euskararen irudi positiboa eta marka zabaltzea

- 1.1. Etxepare institutua indartzea
- 1.2. Harreman sareak sendotu eta elikatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Etxepare Euskal Institutua

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

2. Hizkuntzen proiektzioan dihardutenekiko lankidetzaren areagotzea

- 2.1. Dagoeneko indarrean dauden lankidetzaren hitzarmenak garatu eta gorpuztea (Cervantes, Lull, Donostia 2016, Euskaltzaindia, EITB)
- 2.2. Lankidetzaren berrien aukera aztertzea
- 2.3. Euskararen normalizazio-ibilbidean interesatuta leudekeen adituak ekartzeko laguntza-sistema bat eratzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Etxepare Euskal Institutua
- Unibertsitatea

Garrantzia:

- Ertaina

Adierazleak:

- 2.1. Hizkuntzen kanpo proiektzioan diharduten entitateekin sinatutako hitzarmenen jarraipena erakundearen eta herrialdearen arabera

3. Euskararen presentzia nazioarteko erakunde akademikoetan sendotzea

- 3.1. Irakurleen mapa zabaltzea eta indartzea
- 3.2. Munduko beste unibertsitateetan katedra berriak sortzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Etxepare Euskal Institutua
- Unibertsitatea

Ekintzaren deskribapena

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 3.1. Euskararen irakaskuntza eskaintzen duten unibertsitateen bilakaera
- 3.2. Munduko unibertsitateetan eskainitako euskara-ikastaroetan matrikulatutako ikasleen bilakaera
- 3.3. Euskara munduan egitasmoaren baitan euskara ikasten ari diren ikasleen bilakaera

4. Unibertsitateetako irakurleen prestakuntza etengabe indartzea

- 4.1. Formakuntza saioak prestatu eta eskaintzea
- 4.2. Irakurleen ekintzen koordinazioa bultzatzea

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Etxepare Euskal Institutua
 - * HABE
- Unibertsitatea

Garrantzia:

- Handia

5. Nazioarteko foroetan parte-hartzea

- 5.1. Eraginkorrak diren azoketan euskararen presentzia bermatzea
- 5.2. Sinposio eta bestelako ekitaldietan parte-hartzea
- 5.3. Nazioarterako idatzizko materialak sortu, eguneratu eta zabaltzea (hizkuntzaz, literaturaz, kulturaz)

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Etxepare Euskal Institutua
 - * Unibertsitatea

Garrantzia:

- Handia

Adierazleak:

- 5.1. Euskararen presentzia azoketan, erakundearen arabera

Ekintzaren deskribapena

6. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea

- 6.1. Euskararen eta euskarazko kulturaren gaineko aurkezpenak egitea

- 6.2. Euskarari buruzko erakusketa ibiltariak kudeatzea
- 6.3. Euskararen nazioarteko egunaren proiektzioa sendotzea
- 6.4. Euskal sortzaileen lana atzerrian ezagutaraztea egileak berak atzerira eramanez
- 6.5. Web gune erakargarri eta edukiz bete baten bitartez euskarari eta euskarazko kulturari buruzko informazio aberatsa eskaintzea (gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez ere eskainiko da eta etengabe elikatuko da web gunea)

Eragileak:

- Eusko Jaurlaritza:
 - * Etxepare Euskal Institutua
 - * Kultura Saila

Garrantzia:

- Ertaina/Handia

Adierazleak:

- 6.1. Euskara eta euskarazko kultura ezagutarazteko ekimenak antolatzailearen eta gunearen arabera

7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea

- 7.1. Zabalkunde handiko ikuskizunetan, kongresuetan edota ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea

Eragileak:

- Herri administrazioak

Garrantzia:

- Handia

3. ATALA

I. ESEPen DIAGNOSTIKOA SAKONTZEKO AMIA

Euskararen Aholku Batzordeak egin eta 2012an onetsi zuen *Euskara Sustatzeko Ekintza Plan* hau, 2012an eta 2013an bere egin zuen Eusko Jurlaritzaren Gobernu Kontseiluak. 2013ko irailaren 11n Legebiltzarrak ere bere egin zuen eta bere egitearekin batera jarraibidea eman zuen ESEPen diagnostikoa sakontzeko.

Izan ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskararen Aholku Batzordeak 2013ko ekainaren 28an egin zuen Osoko Bilkuran, legealdirako bere lan-ildo nagusien berri eman zuen, eta horien artean, honako hau jasotzen zen: “*ESEP abian jarri eta bere gauzatzearen jarraipena egingo dugu. Aldi berean, aipaturiko ESEP diagnostikoaren eta ebaluazioaren aldetik osatzeko lanak bultzatuko ditugu Euskararen Aholku Batzordearen baitan*”.

Datozen orrietan, agindutakoa betetzeko, Euskara 21 Batzorde-atal Bereziak egindako lana jasotzen da. Txostena Eusko Jurlaritzako bi zerbitzu-atalen artean landu eta osatu da, elkarlanean: Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Euskara 21 Batzorde-ataleko hainbat kidek, bai eta batzordekide ez den hainbat adituk ere, ekarpenak egin dituzte.

ESEPeke neurketaren ildo estrategikoei jarraiki, hiru ildo estrategikoen eta zehar-lerro baten AMIA analisisa egin da. Hiru ildo estrategikoen (gaitasun eta jabekuntza, erabilera eta elikadura) azterketa egiteko diagnostikoan jasotako informazioaz baliatu gara. Zehar-lerroa den motibazioen eta jarrerren azterketa egiteko, berriz, diagnostikoaz gain 2014 urtean zehar egindako diskurtsoaren lanketaz baliatu gara (foroa, delphiak, zenbait adituren ekarpenak, etab.).

Bestalde, txostenaren lanketarekin hasi aurretik, egokia da azalpen batzuk ematea. Lehenengoa, aukera eta mehatxuen atalari dagokio. Atal hauek landu direnean, ez da ohiko kanpo faktoreen azterketa egin. Kasu honetan egindako diagnostikotik eta azterketatik abiatuta etorkizuneko egoera bideratzeko dauden aukeren eta mehatxuen gaineko azterketa egin da.

Bestetik, badira kasu batzuk non egoera jakin bat bi aldetan koka dezakegun, bai indargune moduan zein ahulezia moduan, edo aukera eta mehatxu moduan. Kasu horiek bi modutan azter daitezke, aukera eginez zer den gehiago indargune edo ahulezia eta ñabardurekin bietako batean kokatuz, edo bi aldeak dituzenez bietan kokatuz, indarguneetan zein ahulezietan. Kasu honetan bi aldeetan kokatzea hobetsi da, biak ala biak aztertzerakoan aintzat har daitezten.

2. EUSKARA-GAITASUNA ETA JABEKUNTZA

2. 1. Indarguneak

Gaitasuna eta transmisioa

Gero eta elebidun gehiago, batez ere gazteenen artean

- Gaitasunari dagokionez, EAEko 5 urtetik gorako biztanleen % 36 elebiduna da, eta % 19 elebidun hartzailea. Kopuru absolutuetan, 749.182 elebidun eta 396.922 elebidun hartzaile. Elebidun hartzaileek ahalbidetzen dute, neurri batean, zenbait egoeratan euskara baliatzea.
- Euskal Herrian, 16 urtetik gorako 714.000 elebidun dago, duela hogei urte baino 185.000 gehiago; % 22 izatetik % 27 izatera pasa dira.
- Horretaz gain, 16 urtetik gorako biztanleen artean, lehen hizkuntza euskara dutenak nagusi dira Nafarroa Beherean/Zuberoan (% 51). Gipuzkoan % 34k du euskara lehen hizkuntza; gainerako lurraldeetan askoz gutxiago dira. Datu horrek indargune bat suposatzen du bi herrialde horietan.
- Gero eta elebidun gehiago dago EAEko 2. eta 3. gune soziolinguistikoetan, hau da, biztanleria gehien duten udalerrietan.

Familia bidezko transmisioa osorik bermatzen ari da

- Euskal Herrian orokorrean lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handienak bi adin tarte ezberdinetan daude: 65 urtetik gorako helduen artean eta, neurri berean, 24 urtetik beherakoengan. Beraz, joera-aldaketa dago gazteengan, eta handitu egin da bai euskara, bai euskara eta erdara, dituztenen ehunekoa.
- Guraso biak elebidunak diren kasuetan, bikote horien seme-alaba gehien-gehienek euskara (soilik ala erdararekin batera) jaso dute etxean: EAEn % 92k, Nafarroan % 83k eta Iparraldean % 80k.
- Orokorrean, Nafarroan eta EAEn transmisio-joerak antzekoak dira, nahiz eta EAEn Nafarroan baino handiagoa den euskara hutsezko transmisioa. Iparraldean, ordea, guraso biak elebidunak izanik, asko dira euskara eta frantsesa batera transmititzen dituztenak (% 33).

Elebidun gehienek euskara gorde egin dute

- EAEn lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan dituzten gehien-gehienek euskara gorde dute eta elebidunak dira gaur egun (% 88). Euskararen gainerako lurraldeetan ere gehienek euskara gorde egin dute eta elebidunak dira egun: % 83k Nafarroan eta % 75ek Iparraldean.
- Galera gehienak galera partzialak izan dira, hau da, pertsona horiek euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo ulertzeko gai dira.

Elebidun ez ziren batzuek ikasi egin dute

- Aldi berean, Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen artean, euskara 2. hizkuntza bezala ikasi eta gaur egun elebidun diren 250.000 pertsona daude, 1991n baino 178.000 lagun gehiago. Horiek euskararen irabaziak dira, euskaldun berriak alegia.
- Horrela, euskara ikasi dutenak 220.000 lagun dira EAEn (1991n baino 160.000 gehiago), 23.500 Nafarroan (1991n baino 17.000 gehiago) eta 7.000 Iparraldean (1991n baino 5.000 gehiago). Irabazien hazkundea eta galeren ia desagertpena EAeko eta Nafarroako gazteen artean antzematen da bereziki, baita, neurri apalagoan bada ere, Iparraldeko gazteen artean ere.

Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira euskaldun berriak

- Elebidunen multzoa asko aldatu da azken 20 urteotan. 1991n elebidun gehienak euskaldun zaharrak ziren. 2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, 27 puntuko jaitsiera izan dute. Hazkunderik handiena euskaldun berriek izan dute, 21,3 puntuko hazkundea hain zuzen. Gazte elebidunen arteko euskaldun berrien nagusitasuna argia da EAEn eta Nafarroan, eta Iparraldean ere gero eta gehiago dira.

Irakaskuntza

Ikasle gehienak euskal ereduatan unibertsitatez kanpoko ikasketetan, eta unibertsitatean gero eta gehiago euskal adarretan

- EAeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako ikasleen % 63k D ereduaren ikasten zuten 2011-2012 ikasturtean, eta % 20k B ereduaren. % 16k baino ez zuten ikasten A ereduaren.
- Irakasleen artean ere, 2011-2012 ikasturtean, unibertsitate aurreko irakaskuntzan zebiltzanetatik % 84k irakaskuntzako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatua zuen (C1 maila edo EGA mailaren baliokidea) eta goranzko joera etengabekoa da. % 4k 1. hizkuntza eskakizuna (B2 maila) du.

- Unibertsitatean, soilik EHUko datuak kontuan hartuta, 2010-2011 ikasturtean lehen matrikula egiterakoan, euskal adarra aukeratu zuten ikasleen proportzioa (% 43) azken hamar ikasturteetan baino zazpi puntu handiagoa da (2001-2002 ikasturtean % 36 izan ziren).

Selektibitate frogetan ere euskara nagusi

- Selektibitateko frogetan, gainditzen dituzten ikasleen portzentajeak handiagoak dira D ereduongoan A ereduongoan baino.
- 2010ean selektibitatea gainditu zuten hamar ikasleatik seik azterketa euskaraz egin zuten eta lauk gaztelaniaz. 1999an hamar ikasleatik seik baino gehiagok gaztelaniaz egin zuten froga eta hiru inguruk euskaraz.

Euskalduntze-alfabetatzea

Euskara ikasten ari direnak dezente dira

- 2012-2013 ikasturtean 104 euskaltegi ziren EAEn eta 32.739 ikasle. 2013-2014 ikasturtean eten da aurreko urteetan izandako beherakada.
- Iparraldean eta Nafarroan, azken urteetan izandako ikasleen beherakadari aurre hartu zaio eta azken ikasturtean hazkundera eman da.

Ikasleen galera eten egin da

- Azken ikasturteetan euskara ikasleak galtzen ari direla esan dugu. Hala ere, 2013-2014 ikasturtean beheranzko joera jarraitu horri galga jarri zaio. Aurreko hiru urteetan batez beste % 6,3 izan zen jaitsiera % 1,2ra murriztu da urte batean.
- Autoikaskuntzako ikastaroen indarra hartu dute sortu zirenetik, azkenaldian lortutakoan mantentzen ari badira ere.

Euskara ikastea merkeago

- Euskara ikastea beste hizkuntzak ikastea baino askoz merkeagoa da.

Mintzapraktika programaren arrakasta

- Mintzapraktika programa euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten pertsonekin elkartzean datza. EAEn 64 egitasmo burutu ziren 2008-2009 ikasturtean: 562 talde, eta 2.840 lagun.

- 2009an, Mintzapraktika egitasmoaren balorazio orokorrari (0-10 eskalan), bidelagun zein bidelariak eman zioten batez besteko puntuazio oso altua izan zen: 8,6koa bidelagunek eta 8,5ekoa bidelariak; hortaz, parte hartzaileen asebetetze maila oso altua izan zen.
- Mintzapraktika programak elkarlanerako aukerak zabaldu ditu. Izan ere, euskaltegiak, hizkuntza eskolak, eskolak, euskara taldeak, udalak eta Eusko Jaurlaritzak biltzen dira egitasmo honen bueltan.

2.2 Ahuleziak

Gaitasuna eta Transmisioa

Gaitasunari dagokionez lurralde batetik bestera dagoen aldeak

- EAEko hiru lurraldeak kontuan hartuz, euskararen gaitasunari dagokionez, lurralde batetik bestera dauden aldeak handiak dira. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorako gipuzkoarren erdiak elebidunak dira, bizkaitarren laurdenak, Iparraldeko 16 urtetik gorakoen bostenak, arabarren % 17 eta nafarren % 12.

Gune geografiko euskaldunenetan, azken 20 urteetan elebidunen kopuruak behera egin du

- Euskal Herriko gune euskaldunenean, elebidunak gehiago izanagatik, azken 20 urteetan horien kopuruak behera egin du: 1991n biztanleen % 90 zen elebiduna 4. gunean eta 2011. urtean % 83.

Elebidunen gorakada ez da lurralde guztietan gertatzen ari

- Iparraldean, galerak daude oraindik elebidunen proportzioetan: 1996. urtean % 26 ziren, eta 2011. urtean, berriz, % 21 dira.

Badira seme-alabei euskara transmititzen ez dietenak

- Bi gurasoak elebidunak direnean, oso gutxi dira euskara transmititzen ez dutenak; hala ere, badira gutxi batzuk oraindik ere euskara transmititzen ez dutenak bikote elebidunen artean (EAE % 3 eta % 4 Nafarroan). Iparraldean, ordea, handiagoa da ehuneko hori (% 13).
- Gurasoetako bat baino elebiduna (bikote mistoak) ez den bikoteen kopurua gorantz doa eta kasu horietan euskararen transmisioa ahuldu ohi da: Iparraldean gehiago dira euskara

transmititzen ez dutenak (% 44), EAEn eta Nafarroan baino (% 29 eta % 33, hurrenez hurren).

- Hala ere, esan beharra dago euskararen transmisioan desberdintasun handiak daudela adinarean arabera; EAEn adinean behera egin ahala euskararen transmisioa gero eta handiagoa da, eta 2-15 urte bitarteko seme-alabak dituztenetan euskara eta erdara transmititu dituzte bikote mistoen % 71k.

Biztanle gehienek gaztelania soilik jaso dute etxean

- EAeko biztanleetatik, hamarretik zazpik (% 73) gaztelania soilik jaso dute etxean. Gainerakoetatik, % 4k euskara ez den beste hizkuntza bat dute.
- EAeko hiru lurraldeetan nagusi dira lehen hizkuntza erdara dutenak, baina alde handia dago lurralde batetik bestera: Gipuzkoak du portzentajerik txikiena lehen hizkuntza erdara dutenen artean, eta gainerako bi lurraldeetan nagusitasun osoa du erdarak.
- Euskararen lurralde guztiei erreparaturaz, soilik Nafarroa Beherea/Zuberoan dira nagusi lehen hizkuntza euskara dutenak. Hala ere, gainontzeko lurraldeetan ez bezala, Iparraldean, 24 urtetik beherakoan artean gero eta txikiagoa da lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa.

110

Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira erdal elebidunak, hegoaldean elebidunen multzorik zabalena osatuz

- Elebidunen erraztasun erlatiboari dagokionez, erdal elebidunek, hau da, erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnek osatzen dute multzorik handiena EAEn eta Nafarroan, eta gero eta gehiago dira Iparraldean. Zehatzago, EAeko 16 urte edo gehiagoko elebidunen % 27 dira euskal elebidunak, % 30 elebidun orekatuak eta % 43 erdal elebidunak. Nafarroan ia elebidunen erdia erdal elebiduna da (% 48). Iparraldean, gehienak elebidun orekatuak badira ere (% 43), elebidunen herena da erdal elebiduna (% 31).
- Azken 20 urteotako EAeko bilakaerari dagokionez, gaur egun euskal elebidunak 1991n baino gutxiago dira. Gero eta gehiago dira, ordea, elebidun orekatuak eta erdal elebidunak. Nafarroan, aldiz, 1991n dezente gehiago ziren euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen ziren elebidunak, eta azken datuen arabera, dezente handitu da erdaraz hobeto moldatzen direnen portzentajea. Iparraldean, azkenik, gutxiago dira euskaraz hobeto moldatzen direnak, eta gehiago bi hizkuntzetan berdin moldatzen direnak 1996ean baino.

Elebidun hartzaileak gero eta gehiago dira, erraztasunean duen eraginarekin

- EAeko 5 urtetik gorako biztanleen % 19 elebidun hartzailea dira. Kopuru absolutuetan, 396.922 elebidun hartzaile. Alegia, euskara zertxobait ikasi, bai, baina euskalduntzat jotzeko behar besteko mailarik ez dutenak.

Irakaskuntza

Eskoletan lortzen den euskara maila ez da behar adinakoa kasu askotan

- EAEn, Lehen Hezkuntza 6. mailako ikasleei egindako frogetan, euskara B1 maila gainditzen ez dutenen kopurua % 51 da. Hiru ereduaren arteko aldeak esanguratsuak dira: eskatzen den maila A ereduaren % 2k baino ez du lortzen; B ereduaren % 39k eta D ereduaren % 67k.

Unibertsitate aurreko irakaskuntzan, euskarazko ereduaren banaketa oso ezberdina da lurralde batetik bestera

- EAEn ikasle gehienak D ereduaren ari dira (% 63, 2011-2012 ikasturtean), baina desberdintasunak azpimarragarriak dira hiru lurraldeen artean: Gipuzkoako ikasleen % 78k D ereduaren ikasi zuten, Bizkaiko ikasleen % 58k eta Arabakoek % 44k.

Oraindik ere Lanbide Heziketan A ereduak nagusi

- Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian ia hiru laurden A ereduaren zebiltzan 2011-2012 ikasturtean, eta soilik laurdena D ereduaren. Hori oztopo handia izan daiteke lan-munduko euskararen normalkuntzarako.

Ikasle gehienek gaztelaniaz ikasten dute unibertsitatean

- 2009-2010 ikasturtean unibertsitateetan matrikulatutako ikasleetatik (Deusto, EHU eta Mondragon unibertsitateetan) % 61 gaztelaniaz eta % 39 euskaraz aritu ziren. Aldea, beraz, oso handia da araubide orokorreko irakaskuntzarekin alderatuta.
- EHUko datuak soilik kontuan hartuta, 2010-2011 ikasturtean, zientzia eremuaren araberrako banaketan erdia baino gutxiago dira alor guztietan euskal adarra aukeratu zuten matrikulatutako ikasle berriak: arte eta giza zientzietan (% 49), zientzietan (% 48), ingeniariaritzan eta arkitekturako ikasleak (% 32).

Gradu-ondoko eskaintza gehiena ez da euskaraz

- Gradu-ondoko master ofizialen kasuan gehienak ez dira euskaraz eskaintzen: 2010-2011 ikasturtean eskaini ziren 100 masterretatik 81 gaztelaniaz edo euskara ez den beste hizkuntza batean eskaini ziren. Euskara hutsez soilik 2 izan ziren eta ele bietan 17.

Doktorego tesietatik oso gutxi aurkezten dira euskaraz

- 2010-2011 ikasturtean EHUUn aurkeztu ziren 328 doktorego tesietatik % 9 baino ez ziren euskaraz aurkeztu; % 73 gaztelaniaz eta % 18 ingelesez aurkeztu ziren.

Unibertsitatean euskararen normalkuntza motel

- EHUUn 2010-2011 ikasturtean unibertsitateko irakasleen % 36 baino ez zen elebiduna, eta % 64 ez elebiduna.
- Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren artean (AZP), postuen % 64k 2. hizkuntza eskakizuna dute; % 25ek hirugarrena, % 10ek lehena eta % 1ek laugarrena.

Euskalduntze-alfabetatzea

112

Euskaltegi kopurua apur bat gutxitu da

- 2000-2001 eta 2012-2013 ikasturteen artean euskaltegi kopurua apur bat gutxitu egin da: 8 euskaltegi gutxiago.

Ikasle kopuruak behera egin du azken ikasturteetan

- Helduen euskalduntzean, 2010etik 2012ra bitartean, ikasturte hasieran euskara ikasten hasi ziren ikasle kopuruaren jaitsiera izan da, jaitsiera nabarmena gainera (-% 19koa guztira) eta jarraitua (-% 6,3, -% 5,5, -% 7,1, urtez urte).

Ikastaroek gero eta trinkotasun gutxiago

- Ikastaroen trinkotasunari dagokionez, nabarmena da, ikasturtez ikasturte, gero eta trinkotasun gutxiagoko eritmoak ari direla indartzen.

EGA azterketara aurkeztu direnen % 22k gainditu dute soilik

- 2013 urtean 11.977 pertsona aurkeztu ziren EGA azterketara. Horietatik, 2.656k baino ez zuten gainditu froga, aurkeztutakoen % 22k.

2.3. Aukerak

Gaitasuna eta transmisioa

Euskarazko gaitasuna gazteenengandik hedatzen jarraitzea

- EAEn eta Nafarroan 24 urtetik behera dago elebidunen ehunekorik handiena. Iparraldean, aldiz, 65 urtetik gorakoan artean dago elebidunen proportziorik handiena, baina 24 urtetik beherakoan artean gora egiten hasi da, eta horrek beheranzko joera aldatzen ari dela erakusten du.

Familia bidezko transmisioa osorik bermatzea

- Gurasoak elebidunak edo mistoak izanik, gero eta txikiagoa da familiako euskararen transmisio eza. EAEn eta Nafarroan oso gutxi dira —gero eta gutxiago— euskara transmititu ez duten bikote elebidunak (% 3 eta % 4 hurrenez hurren).
- Euskararen familia bidezko transmisioan aldaketarik handiena bikote mistoen artean gertatu da. Adinaren arabera bilakaeran ikus daitekeenez, lehen gehienek ez zuten euskararik transmititzen, eta orain herena baino ez da transmititzen ez duena EAEn zein Nafarroan, eta % 44 Iparraldean. Aukera dago, batez ere bikote mistoen kasuan, transmisioa proportzio handiagoetan bermatzeko.

Familiaz kanpoko transmisioaren garrantzia

- Elebidunen multzoan azken 20 urteetan emandako hazkunderik handiena da, jatorriz etxean euskara jaso gabe ere, euskara hezkuntza sistemaren zein helduen euskalduntzearen bidez ikasi dutenena. Badadago tartea oraindik transmisio aukerak zabaltzeko eta hobetzeko.

Irakaskuntza

Euskarazko ikastereduen transmisio ahalmena bermatzea (unibertsitate aurreko ikasketetan)

- 1983-1984 ikasturteetik gaur egun arte D ereduak etengabeko goranzko joera izan badu ere, eta B ereduak apur bat handitu bada ere, euskara BI maila gainditzen duten ikasleen proportzio mugatuek erakusten dute badagoela hobetzeko tartea.
- Aukera dago, egungo neurriak sendotuz eta orokortuz gero, unibertsitate-eremuan ere aurrerapausoak ematen jarraitzeko euskalduntze bidean.

Graduatu elebidunen gorakadak ondo prestaturiko giza-baliabideak eskaintzen dizkio euskarari

- Indarguneen atalean esan dugu unibertsitatean gero eta ikasle gehiago matrikulatzen direla euskal adarretan. Hauek etorkizunean ongi prestaturiko giza-baliabidea izango dira euskararen aurrerabiderako sektore guztietan.

Euskalduntze-alfabetatzea

Irakasleen esperientzia handiagoa, transmisioaren mesedetan

- Irakasleria dagokionez, 2000-2001 ikasturtean, hamar irakasletatik bederatzik 40 urte edo gutxiago zituzten (% 89), eta 2012-2013 ikasturtean, berriz, 40 urte edo gutxiago zituztenak % 35 baino ez ziren. Pentsatzekoa da euskalduntze esperientzia eta eskarmentu handiagoa izango dutela irakasle hauek. Gainera, gehien-gehienek unibertsitate ikasketak dituzte. Horrek guztiak irakas-ahaleginen efizientzia areagotu dezake.

Gero eta jende gehiago Mintzapraktika programetan parte hartzen

- Mintzapraktika programan, bost ikasturteetan izugarri handitu zen parte hartzaileen kopurua: 2008-2009 ikasturteko datuak ia hirukoiztu egin zuen bost urte lehenagokoa. Programa horrezaz erabiltzaile edo parte hartzaile mota ezberdinek egiten duten balorazio oso onak azpimarratzen du ekimena hobetzeko eta gizartean gehiago hedatzeko egokitasuna.

114

2. 4. Mehatxuak

Gaitasuna eta transmisioa

Elebidun askoren euskarazko gaitasun mugatuak ez du erabilera bermatzen

- Euskara familia bidez jaso ezean, hezkuntza sisteman zein helduen euskalduntze-sisteman euskalduntzen diren elebidunek zailagoa dute gaitasun osora edota erdaraz duten maila berberera iristea. Multzo hori gero eta handiagoa da lurralde guztietan.
- Elebidunen gehiengoa erdal elebidunek osatzen dute eta beren gaitasuna desorekatua da erdaren (gaztelania edo frantsesaren) mesedetan. Hortaz, elebidun horiek euskaraz jarduteko duten erraztasuna murriztuagoa da erdarazkoa baino eta, horren ondorioz, euskara erabiltzeko joera ahuldua suertatuko da.

- EAEko 5 urtetik gorako bost biztanleetatik bat (396.922 herritar) elebidun hartzailea da. Alegia, euskara zertxobait ikasi, bai, baina euskal hiztuntzat jotzeko behar besteko mailarik ez duena. Kasu horietan asko areagotzen dira erdal elebidunek erabilerarako dituzten mugak eta, hori ez ezik, euskarari buruzko frustrazio sentimendua eta ezkutuko erresistentzia ere sor litezke, hizkuntza hori ikasteko bidea burutzeko izan duten ezintasuna tarteko.

Seme-alabei euskara ez transmititzearen arriskua

- Bi gurasoak elebidunak direnean oso gutxi dira, egun, euskara transmititzen ez dutenak; erdal elebidunen kopuruak gora egin ahala areagotzen da eten horren arriskua mota horretako elebidunak diren gurasoen artean.
- Gurasoetako bat baino elebiduna ez den bikote mistoen kopurua gorantz doala aintzat hartuta, eta kasu horietan euskararen transmisioa ahulagoa izan ohi dela jakinda, familia bidezko transmisiorik eza handitu liteke.

Irakaskuntza

Eskoletako transmisio mugatua, frustrazio eta bazterketaren iturri

- Euskararen transmisioa jasotzeko aukera hezkuntza sistemara mugatua dutenen ume eta gaztetxoaren artean BI maila gaintzen ez dutenen kopurua ugaria denez, haiengan euskarari buruzko frustrazio sentimendua eta ezkutuko erresistentzia ere sor litezke.
- Euskararen transmisioa are mugatuago bihurtzea irakas-eredu hirueledunaren hedapen desegoki baten ondorioz.

Unibertsitateak, aldeak alde, nahi baino mantsago ari dira euskalduntzen

- 2009-2010 ikasturtean unibertsitateetan matrikulatutako ikasleetatik gehienak gaztelaniaz ari ziren, eta gainera, datuak eskuratu ditugun lau ikasturteetan (2006-2007 / 2009-2011) apenas egon da bilakaerarik. Hortaz, goi-mailako ikasketak dituen gehiengoak, eremu profesionalean erdaraz trebatuagoa bada, zaila izango du etorkizunean lan-munduko jardunean euskararen alde egitea. Gainera, hainbat kasutan erantzukizun handiko ardura profesionalak kolektibo horren gain izango dira, baina euskararen aldeko hizkuntza lidergoa betetzeko ezintasun nabarmena izango dute. Horrek guztiak lan-munduko euskalduntzea oztoka dezake.

Unibertsitatean euskararen normalkuntza urruti

- Unibertsitateetako irakasleriaren eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren (AZPren) gehiengoa erdalduna bada, zaila izango da euskaraz jarduteko eta trebatzeko aukera osoa ikasleei eskaintzea.

Euskalduntzea-alfabetatzea

Ikasle kopuruaren beherakada

- Aztertutako 13 ikasturteetako azkenengoan (2012-2013) ikasle kopuruaren beheranzko joera txikiak irautea edo areagotzea. Hala ere, 2013-2014 ikasturtean kopurua egonkortu egin da.

Zabaldua dagoen iritzia da euskaraz jabetzeko prozesua zaila eta nekeza dela

- Gizartean zabaldua dagoen iritzia da, helduak izanik euskaraz jabetzeko prozesua zaila, luzea eta garestia dela.

EGA azterketaren zalantzarako emaitzak

- EGA azterketara aurkeztutakoen kopuruak behera egiten badu eta, aldi berean, laurdenak baino ez badu froga gainditzen, EGA froga edota figura desegokia izan liteke.

Titulu bat lortzearekin euskalduntzea eman den iritzia

- Zabaldua dago euskara gaitasun maila C-I / EGAn bukatzen delako ustea.

Euskara ikasteko ordaindu beharreko matrikula

- Krisi garai honetan euskara ikasteagatik ordaindu beharreko matrikula gehiegizkoa da.

3. EUSKARAREN ERABILERA

3.1. Indarguneak

Erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobekak dira

- Txillardegik 1984an lantzen hasi zen eredu matematikoaren arabera, euskaldunen euskarazko erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobekak dira. Inkesta Soziolinguistikokoaren (euskara erdara beste edo gehiago % 61 ek erabiltzen dute) zein Kale Neurketaren arabera.

Euskara erabiltzeko aukerak handitu egin dira

- Hizkuntza-gaitasuna handitzearekin batera handitu egiten dira euskara erabiltzeko aukerak ere.
- EAEko 16 urtetik gorako biztanleen % 29k euskara erabiltzen dute neurri batean edo bestean: % 20k erdara baino gehiago, eta % 9k erdara baino gutxiago. Kale Neurketaren arabera, berriz, Euskal Herrian kale-erabilera % 14koa da.
- Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero: oro har, haurren, gazteen eta helduen artean erabilerak gora egin du; ez, ordea, adinekoren artean.

Erabilerak gora egin du azken 20 urteetan

- Azken 20 urteotan euskararen erabilerak gora egin du, bai euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak baita euskara erdara beste erabiltzen dutenenak ere (4,5 puntu egin dute gora bi talde horietakoek).
- Gora egin dute, batez ere, eremu hurbilean eta eremu formalean egiten diren erabilerak, bereziki azken horretan.
- Klean egiten den neurketaren arabera ere (adin tarte guztientzako), 22 urteko epean, gora egin du euskararen kale-erabilerak Euskal Herriko batez bestekoan (2,5 puntu).

Elebidunek euskara erabili egiten dute

- Horretaz gain, EAEko 16 urtetik gorako elebidunak kontuan hartuz, % 62k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du.

- Datuok aldatu egiten dira elebitasun motaren arabera, eta hori indargune bat eta ahulezia bat da aldi berean: aukera bat da, euskal elebidunek eta elebidun orekatuek dezenteko erabilera egiten dutelako (euskal elebidunen % 98k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute, eta elebidun orekatuen % 81ek).

Eskola giroko hizkuntza erabilera: dezentekoa ikasleek irakasleekin eta irakasleek euren artean

- EAEn aztertutako bi ikasmailetan joera nagusia da ikasleek irakasleari euskaraz egitea gela barruan. Irakasleekin, gela barruan, LMH4ko ikasleen gehiengoak (% 74) beti edo gehienetan euskaraz egiten die irakasleei eta DBH2n % 61ek.
- Gelatik kanpo ere erdiek baino gehiagok egiten dute euskaraz irakasleekin: LMH4ko ikasleen % 64k euskaraz egiten die beti edo gehienetan irakasleei. DBH2n, aldiz, % 52 dira.
- Irakasleen artean ere, bi ikasmailetan, irakasle gehien arteko elkarriketak euskaraz dira: LMH4n elkarriketen % 71 beti edo gehienetan euskaraz dira; DBH2n, berriz, % 60. Datu hauek irakurtzean, gogoan izan ez dela berdina bi ikasmailetan A, B eta D ereduan dauden ikasleen proportzioa: DBH2n A ereduko taldeen proportzioa LMH4n baino 6 puntu handiagoa da.

118

Erabilera Administrazioan

Herri Administrazioa

Herri administrazio gehienek badute euskara plana

- Herri administrazioiko erakunde gehienek indarrean dute euskararen erabilera normalizatzeko plana: udalen % 85ek, hiru foru aldundiek eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek badute. Eusko Jaurlaritzak ere badu, eta gainera sailez sail plan espezifikoak diseinatu eta onartzen ditu. Gutxiago dira mankomunitate, kuadrilla eta partzuergoetan plana dutenak (% 51).
- III. Plangintzaldiko datuak IV.ekoekin alderatuta, gaur egun gehiago dira erabilera plana duten erakundeak: laurden bat gehiago gutxi gorabehera.

Derrigortasun data ezarria duten lanpostuen egiaztatze maila handia da

- Derrigortasun data ezarrita duten langile titular edo okupatzaileen % 83k egiaztatua du dagokion hizkuntza eskakizuna.

Langileen prestakuntzan euskarazko eskaintza gero eta handiagoa da

- Prestakuntza orokorra nagusiki gaztelaniaz ematen bada ere, azken urteetan langileen prestakuntzarako euskarazko eskaintza handitu egin da. Zentzu honetan esanguratsua da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAPek) egindako lana.

Erakunde-ordezkarien gehiengoak euskara badaki

- Hamar erakunde-ordezkaritatik sei inguruk euskara badakitela adierazi dute. III. plangintzaldiaren ebaluazioaren datuen arabera erdiek bazekiten. Beraz, egoera hobetu egin da. Erakunde-ordezkarien erdiak baino gehiagok badauka euskaraz lan egiteko gaitasuna.

3. eta 4. tipologietako udal gehienek zerbitzu hizkuntzan euskararen erabilera bermatzen dute

- Euskararen erabilerari dagokionez, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren artean desberdintasunak daude. Normalizaziorako eremu batzuetan euskara lan hizkuntza bihurtzea ezinbestekoa da: bai euskararen erabilerari bultzada bat emateko eta bai euskararen aldeko jarrerak hobetzeko.
- Kokatuta dauden ingurunearen arabera, 3. eta 4. tipologietako udal gehienek (euskaldun proportzio handiagoa duten horiek) zerbitzu hizkuntzan euskararen erabilera bermatzen dutela esan daiteke.

Erabilera oso ezberdina da administrazio batetik bestera, baina telefonoz egiten den arreta gehiena euskaraz da, eta idatzizko harremanetan eta hizkuntza paisaian ere elebitasuna da nagusi

- Ahozko erabilera: telefonoz egiten den arreta gehiena euskaraz egiten da. Harreman informalen eta lan bileren erdiak egiten dira euskaraz.
- Idatzizko erabilera: araututa dagoenez, administrazioen arteko harremanetan elebitasuna da nagusi (% 63), eta herritarrei igorritako idatzizko komunikazioan ere euskara erabiltzen da gehienbat (euskara hutsez edo ele bietan).
- Hizkuntza paisaia: bai errotulazio eta noizbehinkako oharretan, bai paper-gauzetan ere euskarak oso presentzia esanguratsua du; orokorrean, elebitasuna nagusi da.
- Iragarki, publizitate eta kanpainetan, oro har, elebitasuna nagusitzen da, eta euskara hutsaren presentzia oso esanguratsua da.

Hizkuntza paisaian euskararen presentzia handia da

- Bai errotulazio eta noizbehinkako oharretan, bai paper-gauzetan ere euskarak oso presentzia esanguratsua du; orokorrean, elebitasuna nagusi izateaz gain, euskara hutsezko datuek gaztelania hutsezko datuak modu esanguratsuan gainditzen dituzte bi kasuetan.
- Bestalde, iragarki, publizitate eta kanpainen, oro har, elebitasuna nagusitzen da, eta euskara hutsaren presentzia oso esanguratsua da.

Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan

- Diru-laguntzetan, hizkuntza irizpideak % 50 inguruan arautzen dira.
- Kontratazio administratiboak arautzeko garaian, % 49an arautzen dira hizkuntza irizpideak.

Sozietate publikoak**Euskara planak indarrean dituzten sozietate publikoak**

- Aztertutako 83 sozietate publikoetatik laurdenek dute euskara plana indarrean, ez da asko baina aukera bat da horietan behintzat.
- Sozietate publikoetan euskaraz lan egiteko gai diren langileak % 45 dira.

Euskararen erabilera mugatua da, baina badira esparru batzuk besteak baino garatuago

- Ahozko eta idatzizko komunikazioaren inguruan, batik bat herritarrekiko harremani begira, bermatzen da euskararen erabilera. Badirudi arlo hau dela lehentasunezkoa euskararen normalizaziorako neurriak hartzen ari diren sozietate publikoentzat.
- Ahozko komunikazioa: telefonozko harreran euskara % 63 erabiltzen da.
- Idatzizko komunikazioa: herritarrei bidalitako komunikazioak elebidunak izaten dira batik bat: % 59.
- Sozietate publikoen web orrien edukien % 65 euskaraz da.
- Langileek euskara ikasteko egiten dituzten ikastaroetatik ia erdiak diruz laguntzen dira: % 45.
- Paper-gauzak, errotuluak eta oharrek eta argitalpenen kasuan elebitasuna da nabarmen gailentzen den aukera. Baita, megafonia, publizitate, iragarki eta prentsa oharretan.

Gune geografiko euskaldunenak

Gune hauetan euskararen erabilera nahikoa handia da

- EAEko 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 85ek euskara erabiltzen dutela adierazi dute neurri batean ala bestean, euren bizitzako esparru ezberdinetan: hamarretik ia zortzik euskararen erabilera trinkoa egiten dute eta beste % 6k erabiltzen du erdara baino gutxiago.
- Kanean, biztanle gehienek (% 75 edo gehiagok) euskaraz dakiten EAEko eta Nafarroako zonaldeetan ikerketa garaian entzundako hiztunen % 66 inguru euskaraz ari ziren (adin guztietako hiztunak kontuan hartuta).

Gazteenak eta helduenak dira gehienbat erabiltzen dutenak

- Gune euskaldunenetan, adin tarte guztietako biztanleek aitortu dute euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutela, batez ere gazteenek eta helduenek.

Elebidunak errazago aritzen dira euskaraz gune hauetan, gune erdaldunenetan gertatzen ez dena

- Euskal Herriko gune euskaldunenetan, 16 urtetik gorako elebidunek errazago egiten dute euskaraz erdaraz baino.

Arlo sozioekonomikoa

Instituzioen politika eta legeriak erabilera bultzatzen dute

- Instituzio ezberdinek onartutako hainbat lege eta arauak eta banatutako diru-laguntzek, enpresetan euskara erabiltzea bultzatzen dute: hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, kontrataziorako baldintzak, euskara planetarako eta errotulazioak euskalduntzeko emandako diru-laguntza, besteak beste.

Zenbait enpresak parte hartzen du lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko

- 1997-2013 urte bitartean 363 enpresak parte hartu zuten LanHitz programan, lan-munduan euskararen erabilera sustatzea helburu duena.
- 500 langiletik gorako 112 enpresa daude, eta horietatik 37k parte hartu dute noizbait LanHitz deialdian (% 33). 50 eta 500 langileko 1.799 enpresa daude, eta 162k parte hartu dute LanHitz (% 9).
- LanHitz programan parte hartzen duten enpresetan 84.981 langilek lan egiten dute.

- LanHitz deialdian parte hartzeko arrazoi aipatuak: langileen eskaerari erantzutea, erakundearen irudi korporatiboa hobetzea, eta aurretik ildo horretan lan egin izana. Bezeroen satisfazioa handitu nahi izatea ere galdekatutakoan erdiek aipatu dute.

Parte hartzen duten enpresek konpromisoa berritu ez ezik, enpresa berri gehiago gehitu dira

- LanHitz parte hartu duten enpresen % 52k izena eman zuten 2003-2008 urteetan.
- 2013 urtean inoiz baino enpresa gehiagok parte hartu dute LanHitz deialdian.

Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresek balorazio positiboa egiten dute

- Erakundearen ustez, orokorrean, normalizazio planen bidez lortutako emaitza esanguratsuen euskararen erabilera handitzea izan da. Era berean, langile euskaldunen proportzioa handitzea ere lortu dute (% 27k).
- Hamar erakundetatik lautan bezeroen satisfazioa handitzea ere lortu da. Azkenik, erakundearen emaitza ekonomikoetan eragina izan du kasuen % 11n.
- Gauzak horrela, erakundearen hiru laurdenek adierazi dute euskara plana izatea errentagarria izan zaiela.

Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresetako langileek lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dute

- Langileen iritziaren arabera, berriz, LanHitz deialdiaren helburuak lortzeko duten egokitasun, eraginkortasun eta gailentasuna % 50ek egokitzen jo dute eta % 29k oso egokitzen.
- Orokorrean, euskara plana garatzearen ondorioz, langileen satisfazioa erakundearen handitu egin da.
- Erakundeetako arduradunek duten inpresio bera erakutsi dute langileek ere; hots, euskara planak lagundu duela langile euskaldunak maiztasun handiagoz euskaraz aritzeko (% 84), gutxi dakitenek hobetzeko interesa erakusteko (% 80) edo ez dakitenek ikasteko interesa izateko (% 72).

Erabilera planak sustatzeko diru-laguntzek gorantz egin dute

- Erakunde pribatuarentako jarduna euskalduntzeko egitasmoentarako, urte hauetan zehar 332 entitatek jaso dute diru-laguntza lantokietako euskararen erabilera planak garatzeko.

- Erabilera planak garatzeko bideratutako diru-laguntzak hazkundera izan zuen 1997tik 2009. urtera arte.

Enpresek euskara planetarako aurkeztutako aurrekontuek gehiago egin dute gora

- 1997. urtetik aurrera ebatzitako diru-laguntzak handitu egin dira, baina dezente gehiago handitu dira diru-laguntzak eskatzeko aurkeztutako aurrekontuak, ia 14.000.000 eurotaraino.

Gero eta enpresa gehiago dira hizkuntza egiaztagiriak dituztenak

- Bost urtetan, 2008tik 2012ra, banatu diren Bikain, Euskararen Kalitatearen ziurtagiriak 121 izan dira: 39 urrezkoak, 50 tartekoak eta 32 oinarritzkoak.
- 2000. urtetik gaur egun arte 1.387 Bai Euskarari Ziurtagiri banatu dira: % 14k zerbitzua euskaraz eskaintzeaz gain lana ere euskaraz egiten dutelako, % 41ek zerbitzua euskaraz eskaintzen dutelako eta beste % 45ek bide horretan lanean ari direlako.

3.2. Ahuleziak

Erabilerako goranzko joera apaldu egin da, eta egonkortzera jo du

- Inkesta Soziolinguistikoak eta Kale Neurketak erakusten dute azken hamar urteko epean erabilerak egonkortzera jo duela: apur bat (1,3 puntu) handitu da Inkestaren arabera, eta Kale Neurketaren arabera egonkortu (0,4 puntu gora) egin da.

Haurren erabilera altuaren prekarietatea

- Kale-erabileran haurren presentziak eragin handia du, eta haurrak eta nagusiak (gazte, heldu eta adineko) elkarrekin daudenean jasotzen dira erabilera-datu altuenak. Baina haurrak nagusien presentziarik gabe ari direla, edo nagusiak haurren presentziarik gabe, erabilera baxuagoa da nabarmenki.

Erabilera oso apala da lurralde batzuetan

- Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 39 dira Gipuzkoan, % 13 Bizkaian, % 10 Iparraldean, % 6 Nafarroan eta % 4 Araban.
- Kale Neurketaren arabera ere, lurraldeen arteko ezberdintasunak nabariak dira: Gipuzkoan % 33; Bizkaian % 9; Iparraldean eta Nafarroan % 6; eta Araban % 4.

Erabileraren gorazko joera ez da eremu guztietan gertatu

- Erabileraren bilakaera ez da berdina izan eremu ezberdinetan, eta eremu hurbilean zein formalean gorakada eman bada ere, etxean erabilera mantendu egin da.

Elebitasun mota guztiek ez dute erabilera bermatzen

- Gehien hazten ari diren erdal elebidunen (erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnen) % 26k soilik erabiltzen du euskara erdara beste edo gehiago, euskal elebidunek eta elebidun orekatuek baino dezente gutxiago.

Eskola giroan ikasleen erabilera jolaslekuan eta maila altuagoetan jaitsi egiten da

- Ikaskideen artean, euskaraz gela barruan beti edo gehienetan egiten dutenen pisua jaisten da LMH4tik (% 60) DBH2ko % 28ra.
- Jolaslekuan, bi ikasmailetan, beti edo gehienetan gaztelaniaz egiten duten ikasleek gehiago zabala osatzen dute: DBH2n beti edo gehienetan gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen proportzioa LMH4koa baino 16 puntu handiagoa da (% 59-% 75).

Interneteko gizarte sareetako euskararen erabilera mugatua da

- EAEko inkestaturen herenak (% 35) gizarte sareak erabiltzen dituzte. Erabiltzaileen % 5ek euskara erdara beste erabiltzen dute gizarte sareetan eta % 10ek euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 10ek erabiltzen dute eta % 24k euskara erdara baino gehiago.

Erabilera Administrazioan**Herri Administrazioa****Abian diren erabilera planak xumeegiak dira hainbatetan**

- Administrazio gehienek erabilera plana badute ere, plan horietako asko oso xumeak dira, eta batzuetan, "espeditentea betetzeko" sortuak direla ematen du.

Lanpostuen erdiek baino ez dute derrigortasun datarik

- Postuen % 54k dute derrigortasun data ezarria.
- Gainera, derrigortasunak, berez eta besterik gabe, ez du erabilera bermatzen.

Erakunde-ordezkarrien euskararen ezagutza tokiko egoeraren menpe

- Erakunde-ordezkarrien euskararen ezagutza tokiko egoera soziolinguistikoari lotuta dago.

Kanpoko eskaeretan, idatziz zein ahoz gaztelaniazko presentzia handiagoa da, herritarrak oraindik ere gaztelaniaz komunikatzen dira administrazioarekin

- Kanpo harremanen eskaeretan euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen da.
- Erakundeetatik kanpoko idatzizko eskaeretan gaztelania erabiltzen da, batez ere, tramitazio telematikoen ia erdietan eta herritarrek bidalitako idatzizko eskaeren % 61 ean.

Erabilerari dagokionez, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren artean desberdintasunak daude

- Udalen kasuan, 1. eta 2. tipologietako zenbait udaletan euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzan ez dago bermatuta (udal hauetan elebidunen portzentajeak % 25etik behera eta % 25-45 dira, hurrenez hurren).
- 3. eta 4. tipologietako udaletan zerbitzu hizkuntza bezala euskararen presentzia bermatua badago ere, hizkuntza eskakizunik egiaztatu gabeko langile multzo bat egoteak zailtzen du udal barneko edo kanpoko idatzizko komunikazioa euskaraz izango dela bermatzea (udal hauetan elebidunen portzentajeak % 45-70 artekoa, eta % 70etik gorakoak dira, hurrenez hurren).

Ahozko erabileran badira hobetu beharreko hainbat kontu

- Kanpo harremanen eskaeretan euskara gaztelania baino gutxiago erabiltzen da; udalen kasuan izan ezik, horietan eskaeren ia erdia euskaraz izan ohi da.
- Harreman informalen eta lan bileren erdia baino ez da egiten euskaraz.
- Erakundeen artean aldea dago barne harremanetan euskararen erabilerari dagokionez. Batetik, batez ere euskara erabiltzen duten erakundeak daude, eta bestetik, nagusiki gaztelania erabiltzen dutenak.

Idatzizko erabilerari dagokionez ere oraindik hutsuneak nabarmenak dira

- Erakundeetatik kanpoko idatzizko eskaeretan gaztelania erabiltzen da, batez ere, tramitazio telematikoen ia erdietan eta herritarrek bidalitako idatzizko eskaeren % 61 ean.

- Sortze hizkuntzari erreparatuta: sortze hizkuntza euskara dutenak % 37 dira eta gaztelaniatik itzulpena egiten dutenak % 58.
- Itzulpen arloarekin zerikusi duen beste elementu bat: testuen itzulpenaren kalitatearekin hainbat arazo ageri dira herri administrazio eta erakunde guztietan.
- Idatzizko barme harreman ez-ofizialetan euskara dokumentuen erdietan erabiltzen da. Badira erakunde motaka hainbat ezberdintasun: euskara hutsean batere harremanik ez duten erakundeak, eta harreman horien erdiak edo gehiago euskaraz egiten dituztenak.
- Itzulpen-irizpide argirik ez badago (eta erakunde askotan ez da horrelakorik egoten), itzuli beharko ez liratekeen hainbat dokumentu itzuli egiten zaizkio langileari (nahiz eta horrek gaitasuna izan idazkia egiteko).
- Elebitasuna, maiz, oso modu zurrunean ulertzen da, eta horrek eramaten gaitu bi zutabeko dokumentuak sistematikoki egitera (langileak kexu agertu ohi dira horrelakoetan, lan bikoitza egin behar dutelako).
- Oro har, euskara ez da behar adina erabiltzen administrazioan, langileek ez dutelako horren beharrik sumatzen. Gehienetan, herritarrek, beste administrazioek eta lankideek erdaraz (ere) jotzen dute haiengana; eta euskaraz egiten dutenean itzultzaileetara jotzen da.

Hizkuntza paisaiari dagokionez, tresneria oraindik ere gaztelania hutsez leku askotan

- Erakundeka, tresneriaren kasuan euskararen presentzia oso baxua da. Asko dira tresneria % 100 edo inguru gaztelaniaz dutenak, beste batzuek ele bitan dituzten arren.
- Kanpo irudiarri dagokionez, erabilera oso desberdina da ingurune soziolinguistikoaren arabera, eta oraindik ere gune erdaldunenetako zenbait herri administrazio eta erakundetan euskararen presentzia ez da ziurtatzen.

Langileen etengabeko prestakuntza nagusiki gaztelaniaz egiten da

- Prestakuntza orokorra nagusiki gaztelaniaz ematen da. Euskaraz eskaintzen denean jendeak ez du eskatzen, eta taldeak osatu gabe gelditzen dira.
- Ez datoz bat proportzioan euskaraz ematen diren prestakuntza saioak eta derrigortasun indizearen arabera euskarak izan beharko lukeen presentzia, multzo guztietan azpitik baitago.

- Prestakuntza euskaraz jasotzeko gaitasuna duten langileen kasuetan, bi ahulgune multzo nabarmendu dira: batetik, langileen eta prestakuntza antolatzen dutenen jarrerarekin zerikusia dutenak; bestetik, balibideen optimizazioarekin lotura dutenak.

Diru-laguntza eta kontratazioetan ezarritako hizkuntza irizpideak ez dira beti betetzen

- Diru-laguntzetan, hizkuntza irizpideak % 50 inguruan arautzen dira. Alabaina, ez dira kasu guztietan kontuan hartzen, aplikazio maila % 60 ingurukoa baita. Gainera, hizkuntza irizpideak diru-laguntzen araudian arautu eta exekuzioan kontuan hartu diren kasuen erdietan ere ez zaio irizpide horien aplikazio mailari jarraipenik egiten.
- Kontratazio administratiboan % 49an arautzen dira hizkuntza irizpideak. Horietatik % 60an izaten dira kontuan kontratua aplikatzerakoan. Azkenik, kontuan izan diren horien % 43ri egiten zaie jarraipena.

Sozietate publikoak

Sozietate publiko gehienek ez dute euskara planik indarrean

- Sozietate publikoek lanpostuen hizkuntza eskakizuna legez ezartzeko derrigortasunik ez dute.
- Aztertutako 83 sozietate publikoetatik % 24k dute euskara plana indarrean.
- Gehienek ez dute hizkuntza irizpiderik onartu, eta onartu duten gehienak arlo batzuk arautzera mugatu dira; batez ere, herritarrekin harremana duten arloak.
- Hizkuntza irizpideak zehaztuta dauden kasuetan ere, adibidez, zerbitzuen kontratazioetan, ez ohi da horrelako irizpiderik jasotzen dokumentazioan.

Euskararen erabilera oso mugatua da hainbat esparrutan

- Ahozko kanpo harremanetan, herritarrekin edo beste administrazio batekin, euskara % 30 inguru erabiltzen da eta gaztelania % 70 inguru.
- Telefonozko harreran euskara % 63 erabiltzen bada ere, euskarazko elkarrizketak % 30 baino ez dira. Aurrez aurreko harreran euskararen erabilerak 10 puntu egiten du behera telefonoz egindakoarekin alderatuz gero eta elkarrizketen % 27 da euskaraz.

- Jendaurreko ekitaldietan, % 35 inguruko presentzia izaten du euskarak.
- Idatzizko komunikazioa: herritarrak, oro har, gaztelaniaz zuzentzen dira sozietate publikoetara (% 76).
- Erakunde barruko idatzizko harreman ofizialetan gaztelaniak nagusi izaten jarraitzen du (% 55).
- Langileek euskara ikasteko ikastaroetatik erdia baino gutxiago laguntzen dira: % 45.
- Aplikazio informatikoak gaztelaniaz erabiltzen dira nagusiki (% 87). Horretaz gain, langileek ez dituzte herri administrazioetako langileek eskura dauzkaten ereduak, datu-baseak, baliabideak... idatzizko euskararen erabileran aurrerapausoak emateko.
- Kontratazioetako hizkuntza irizpideen arautze maila baxua da (% 26), eta horietatik % 31 n soilik aplikatzen da.

Langileen joera nabarmena gaztelaniaz lan egitekoa da

- Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetako langileek gaztelaniaz lan egiteko joera dute, bai idatzizkoan bai ahozkoan. Idatzizko komunikazioari dagokionez, gehienen sortze hizkuntza euskara izatetik urrun dago.
- Oro har, euskararen idatzizko erabilerari itzulpen bidez egiten da, horrek dakarren kostu ekonomikoa handituz.

Gune geografiko euskaldunenak

Adin tarte guztietan egin du behera erabilerak, gazteenen artean izan ezik

- 4. gune soziolinguistikoko azken 20 urteotako erabilerari dagokionez, adin tarte guztietan egin du behera erabilerari aitortuak gazteenen (16-24 urtekoen) artean izan ezik.
- Zehatzago, behera egin du bai euskara erdara baino gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak (3 puntu), eta baita euskara erdara beste erabiltzen dutenenak ere (2 puntu). Seguruenik bilakaera demografikoei (auzo berriak eraikitzea, gune horietatik kanpoko immigrazioa, etab.) eta komunikabideen eraginari (telebista eta Internet) so egin beharko litzaieke gainbehera horiek ulertzeko. Merkatu linguistikoko orokorra ere kontuan hartu behar da eta alderdi psikolinguistikoa ere bai.

Arlo sozioekonomikoa

Enpresetako egoeraren azterketa sakonaren falta

- LanHitz programak eskaintzen dituen emaitzetatik harago ez dago bestelako daturik; alegia, ez da berriazko ikerlanik egin euskara plana abian duten enpresei buruz.

Instituzioen ekimenak ez du hainbatetan euskara kontuan hartzen

- Alde batetik, enpresak kexatzen dira ez direlako administrazioaren lehentasunak ezagutzen.
- Ez da lortzen ari hizkuntzaren gaia zeharkakotasunez lantzea. Gainera, enpresentzat diseinatutako plan gehienek ez dute euskara eta hizkuntza kudeaketa aipatzen.
- Enpresek hizkuntza eskubideak ez betetzeak ez du inolako ondorio legalik.
- Enpresak dabiltzan foroetan euskararen presentzia urria da.
- Enpresek haiek diharduten foroetan (kalitatearen astea, Euskadi Innova, Bienalak...) presentzia apala du hizkuntza kudeaketak.

Euskara erabilera planetan ere lurraldeen arteko desorekak

- 1997-2013 urte bitartean 363 enpresak parte hartu zuten LanHitz programan, lan-munduan euskararen erabilera sustatzea helburu duena: 24 Arabakoak (% 7), 136 Bizkaikoak (% 37) eta 203 Gipuzkoakoak (% 56).
- Langileei dagokionez, ia erdi eta erdi banatzen dira Gipuzkoa eta Bizkaia artean; % 3 ari dira Araban.

Euskara planak aurrera eramateko zailtasunak

- Euskara plana duten enpresei kosta egiten zaie euskararen presentzia bermatzetik nagusiki euskaraz lan egitera pasatzea.
- Enpresa txikiek zaila dute denbora eskaintzea gai honi. Formazioaz gain, itzulpeni eta aholkularitzari dagokienez ere premiak dituzte. Gaur egun, udal batzuek eskaintzen dituzte horrelako zerbitzuak, baina askotan ez da bisita sistematikorik egiten eta bezeroek ez dute premia sumatzen. Komunikazio, pertsuasio eta hurbileko lana egin daiteke.
- Enpresek zailtasunak dituzte aldibereko itzulpen sistemak erabiltzeko.

- Erabilera planak garatzeko bideratutako diru-laguntzak ia etenik gabeko hazkundera izan zuen 1997tik 2009 urtera arte. Azken hiru urteetan, berriz, apur bat txikitu da diru-laguntza horien kopurua.

Langileen prestakuntza gaztelaniaz egiten da batez ere

- Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian ikasleen ia hiru laurden A ereduan zebiltzan 2011-2012 ikasturtean, eta soilik ikasleen laurdena D ereduan.
- Enpresak ez dira oraindik jabetu euskarak egin ditzakeen ekarpenez eta ez dute ulertzen horretarako ezinbestekoa dela langileak euskalduntzearen kostua asumitzea.

Hizkuntza egiaztatgiriaren balioa argi ez izatea

- Ziurtagiria ateratzeak denbora eta dirua eskatzen ditu, eta enpresek ez dute argi zer den haiekin lortzen dutena.

3.3. Aukerak

- Euskaldunen arteko harremanak trinkotzeko plangintzari ekitea, besteak beste euskarazko bilgune berrien sorrera bultzatuz.
- Aldeko baldintza soziolinguistikoek hobetzera jotzea era nabarmenean: euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egitea eta, aldi berean, hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukera eskaintzea.
- Dena den, gizarte elebidunetan (eleantzetan) hizkuntza bat erabiltzeko gutxieneko gaitasun bat edukitzea ezinbesteko baldintza da baina ez bakarra. Beste baldintza batzuk ere kontuan hartu behar dira, bereziki testuinguru soziala eta soziolinguistikoa: norbanakoen baldintzak (motibazioak eta jarrerak), dimentsio mikrosoziala eta dimentsio makrosoziala.

Umeen eta gazteen erabilera handiagoa suspertzea, baita helduarora igaro ahala ere

- Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Hogeita bi urteko bilakaera aztertuz gero, oro har, haurren, gazteen eta helduen artean erabilerak gora egin du; ez, ordea, adinekoen artean.
- Euskarazko gaitasunak gazteengan zabaltzen segituz gero euskara gehiago erabiltzeko oinarizko baldintza bat beteko da eta erabilerarako aukerak gero eta handiagoak izango dira.

Gaiaren inguruko ikerketek erabileran eragiten duten faktoreak identifikatzea ahalbidetu dute, eta era horretan eragiteko aukerak handiagoak dira

- Faktore nagusiak bi dira: euskaldunen dentsitatea harreman-sarean, eta erraztasuna euskaraz egiteko. Badira beste faktore batzuk ere, hala nola, lehen hizkuntza, gune soziolinguistikoa eta hizkuntzarekiko interesa edo motibazioa. Horietan eragitean datza erabilera areagotzeko aukerak.
- Eskola eremuan ere detektatu dira erabileran eragina duten aldagaiak. Hala nola, hizkuntza eredua, eskolaz kanpoko ekintzetako hizkuntza, herriko euskaldun proportzioa eta ikasleen lehen hizkuntza. Faktore hauek erakusten digute badaudela ikasleen eskolako euskararen erabilera areagotu ahal izateko kontuan har daitezkeen hainbat interbentzio aukera hizkuntza eredutik harago. Batzuetan eskolaren baitakoak eta besteetan dimentsio zabalagoa dute familia/gizartea binomioa ere bame hartuz.

Erabilera administrazioan

Herri Administrazioa

Erabilera planak hedatzea eta sendotzea

- Herri administrazio gehienek badute euskara plana, eta gakoa da horietan sakontzea eta falta direnetan plana ezartzea.
- Erakunde-ordezkarien artean gero eta gehiago direnez euskara dakitenak, aukera dago interbentzio planak eraginkortasunez lideratu ditzaten.

Ahozko eta idatzizko harremanetan euskaraz egiteko aukerak gehituz doaz

- Ahozko bame harremanetan euskaraz egiteko aukerak gehituz doaz.
- 3. eta 4. tipologietako udaletan idatzizko komunikazioa bermatzeko gaitasuna duen langile multzo handia dago, eta, ondorioz, salbuespenak salbuespen, euskararen erabilera zerbitzu hizkuntza gisa bermatuta dagoela esan dezakegu.
- Herritarren euskararen erabilerak gora egin dezan dauden aukerak gero eta zabalagoak dira.

Legeek ahalbidetzen dute idatzizko harremanak euskaraz izatea

- Araututa dagoenez, administrazioen arteko harremanetan elebitasuna da nagusi (% 63), eta herritarrei igorritako idatzizko komunikazioan ere euskara erabiltzen da gehienbat (euskara hutsez edo ele bietan).
- Horrez gain, erabileraren aldeko konpromisoa duten erakundeen arteko hitzarmenek areagotu egin ditzakete euskara hutsezko harremanak.

Hizkuntza paisaia, inprimakiak eta publizitatea euskararen erabileraren lagungarri

- Hizkuntza paisaian, inprimakietan eta publizitatean euskararen presentzia nabarmenak, hizkuntza horren aldeko hautu horri zilegitasuna emanez, herritarren euskararen erabilera errazten eta bultzatzen du. Era berean, aurrez aurreko zein telefono bitarteko harremanetan euskaraz egitea ongi etorria dela jakinarazteak erabilerarako aukerak zabalduko lituzke.

Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan pizgarri

- Diru-laguntzetan eta kontratazio administratiboetan hizkuntza irizpideak ezartzeak pizgarri izaten dira horietan parte hartzen dutenek euskara kontuan har dezaten. Halako neurrien aplikazioa hedatzeko aukera handia da oraindik.

Sozietate publikoak**Legeak nolabait behartzen ditu herritarrekin euskararen erabilera bermatzera**

- Sozietate publikoek lanpostuen hizkuntza eskakizuna lege ezartzeko derrigortasuna ez duten arren, herri administrazioan ezarrita dauden hizkuntza-araudia eta -irizpideak sozietate publikoetara ere zabaltzeak lagunduko luke, batetik, bertan euskaraz lan egiten eta, bestetik, herritarrei legeak aitortzen dien hizkuntza eskubideak gordetzen.

Gune geografiko euskaldunenak**Erabilera aitortuak adin tarte guztietan behera egin badu ere, ez gazteen artean**

- Inkesta Soziolinguistikoa, 4. gune soziolinguistikoko azken 20 urteotako erabilerari dagokionez, adin tarte guztietan egin du behera euskararen erabilerak gazteen artean izan ezik (16-24 urte bitartekoen artean) eta 25-34 urte artekoen artean ere 2001 urtetik apur bat handitu egin da.

Erabilera behatuan oraindik ez da hori atzeman

- Kale Neurketan, 1993. urteko datuekin alderatuta, erabilerak hiru puntuko igoera izan du. Azken urteekin alderatuta, berriz, erabilerari bere horretan eusten zaio. **Gune hauetako biztanle gehienak euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera baliatzea**
- 4. gunean, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 87 euskararen erabilera sustatzearen alde dago eta 1991ean baino handiagoa da egun. Jarrera orokor horrek atea zabaltzen dio neurriak hartzeari erabilera aitortuak azken urteotan izan duen higadura iraultzeko (1991. urtean gune horretan euskararen erabilera aitortua % 83koa zen eta 2011n % 78koa, 5 puntu txikiagoa beraz).

Arlo sozioekonomikoa

Erabilera planetan parte hartzen duten enpresen kopurua areagotzeko aukera

- LanHitz programan parte hartzeko enpresek aitortzen dituzten arrazoieta eragitea; alegia, batetik, langileen eskaera aintzat hartzea, eta, bestetik, erakundearen irudi korporatiborako zein bezeroen satisfazioa handitzeko lagungarria dela zabaltzea.
- LanHitz programan parte hartu duten enpresek enpresa-ikuspegitik aitortzen dituzten onuren berri zabaltzea: bezeroen satisfazioa handitzea eta emaitza ekonomikoetan aldeko eragina izatea.
- Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresetako langileek lortutako emaitzez egiten duten balorazio positiboaren berri zabaltzea.
- Eremu ekonomikoko zenbait ekimenetan (Kalitatearen Astea, Euskadi InnoBardunaldietan, Bienaletan...) hizkuntza irizpideak sartu eta horiek eragina izatea.
- Administrazioek enpresekin egin beharreko kontratuen baldintzetan ziurtagirien aldeko irizpideak sartzek enpresa gehiago ziurtagirien dinamikara biltzea eta halakoen eskaerak gehitzea ekar ditzake.
- Langileen kontratazioan hizkuntza irizpideak sartzek euskararen normalkuntzari lagun diezaioke.
- Kalitatearen kudeaketarako planetan hizkuntza irizpideak sartzek euskararen normalkuntzari lagun diezaioke.

3. 4. Mehatxuak

Baldintza soziolinguistikoek sabaia jo omen dute, erabilerak aurrera egin dezan

- Egungo elebidunak euskararako aktiba daitezen behar diren baldintza berriak ez sortzea.
- Euskal hiztunen kopuruak nabarmenki gora egiten jarraitu arren, aldi berean hiztun berri horiei euskarazko harremanetan txertatzeko aukerarik ez eskaintzea.

Ume eta gazteen euskararen oraingo erabilerak behera egitea, helduarora iritsi ahala

- Umeen eta gazteen gizarte ingurune soziolinguistikoa euskararen aldekoagoa da helduen gizartearena baino. Hortaz, egungo baldintza orokorrak euskaldundu ezean, belaunaldi berriek egun duten erabilera maila altuagoa helduarora iritsi ahala higa daiteke.

Familia bidezko transmisioan aurrerapausorik ez ematea

- Erabileraren zenbait eremu hurbiletan zein formaletan gorakada eman bada ere, etxeko erabilera mantendu baino ez da egin. Hortaz, hezkuntza sisteman euskaldundu diren belaunaldi berriek aukera gutxi izan dezakete elebitasun orekatua eskuratzeko.

134

Haurren erabilera altuaren prekarietatea

- Pertsona nagusiak tartean egon ezean, haurrek haien artean duten gaztelaniara jotzeko joerak erdarazko harreman iraunkorrak finka ditzake.

Gorabeherak elebidunen euskararen erabileran

- Elebidunen euskararen erabilerak azken 20 urteetan bilakaera gorabeheratsua izan du: lehen hamar urteetan behera egin zuen eta azken hamar urteetan gora. Beraz, hor badago erabilera hori baldintza dezaketen faktoreak identifikatu beharra.

Espazioak erdaldunak izateak euskararen erabilera eragozten du

- Jendea euskaldundu arren, espazioak erdaldunak dira, eta une honetan euskara erabiltzea espazio erdaldunek eragozten dute nagusiki.
- Lotura zuzena dago gaitasunaren eta erabileraren artean. Maila batetik aurrera erabili ezean gaitasuna garatzea zaila da. Horregatik gizarte sare erabat erdalduna duten euskaldunentzat erabilera eremuak sortzea ezinbestekoa da.

Internet bidezko gizarte sareetan euskara baztertzea

- Internet bidezko gizarte sareetan ehuntzen diren harreman mota berrietan erdara nagusitzea, eta hautu horrek irautea.

Erabilera Administrazioan**Herri Administrazioa****Krisiak irauten badu, euskararen aurrekontuen “doiketa”**

- Krisiaren iraupenak, edo ekonomiaren hobekuntza motela izateak, euskararen aurrekontuen doiketa ekar lezake berarekin, eta hori mehatxua izango da aurrera egiteko eta lortutakoa mantentzeko.

Erakunde-ordezkariek izan beharko luketen lidergoari ez eustea

- Erakunde-ordezkariek euskararen normalkuntzan izan beharko luketen lidergoari ez eustea.
- Alderdi politiko gehienek ez dute hizkuntza konpromisorik hartzen, beren ordezkari publikoak aukeratzeko orduan.

Erakunde batzuk euskararen normalkuntzatik kanpo gelditzea

- Erakundeen artean aldea dago bame harremanetan euskararen erabilerari dagokionez. Batetik, bame harremanetan batez ere euskara erabiltzen duten erakundeak daude, eta bestetik, nagusiki gaztelania erabiltzen dutenak.
- Harremanak gaztelaniaz izateko joeraz aipatzen diren arrazoiak ez gaintitzea; alegia, nagusiki, hizkuntza ohitura, erdaldunen presentzia eta euskal hiztunen hizkuntza kontzientzia falta.

Langileen prestakuntzan hizkuntza normalkuntza ez izatea zehar-lerroko planteamendua

- Langileen prestakuntza antolatzen dutenek hizkuntza normalkuntza aintzat ez hartzea.
- Baliabideen optimizazioaren argudioarekin, euskarazko ikastaroen aukera baztertzea.

Hizkuntza irizpideak “paper bustitzat” jotzea

- Diru-laguntza eta kontratazioetako hizkuntza irizpideak ezartzen diren kasuetan, irizpide horiek kontuan ez hartzea. Hizkuntza irizpideak diru-laguntzen araudian arautu eta exekuzioan kontuan hartu diren kasuetan ezarritakoa ez betearaztea.

Sozietate publikoak

Herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan hizkuntza ofizialen erabilera ez bermatzea

- Sozietate publikoek lanpostuen hizkuntza eskakizuna legez ezartzeko derrigortasuna ez dutenez, herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan euskara eta gaztelaniaren erabilera ez bermatzea.
- Hizkuntza irizpideak onartu dituzten sozietate gehienak arlo batzuk arautzera mugatu dira; batez ere, herritarrekin harremana duten arloak.
- Hizkuntza irizpideak zehaztuta dauden kasuetan ere, zerbitzuen kontratazioetan, ez ohi da horrelako irizpiderik jaso dokumentazioan.
- Indarrean dagoen legediaren arabera, sozietate publikoetako langileak ez daude behartuta euskalduntzearen eta normalizazioaren aldeko hainbat ekintzatan parte hartzera (euskarazko klaseak, hizkuntza eskakizunetako deialdiak, ikastaroak...).

Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetan, plana azalekoa baino ez izatea

- Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetan barne funtzionamendu osoa erdaraz izatea eta euskararen idatzizko erabilera itzulpen bidez gauzatzea.

Gune geografiko euskaldunenak

Euskararen arnaguneak arriskuan egotera iristea

- Hizkuntza orok, iraun ahal izateko, behar dituzte gune (ia) eksklusiboak non funtzio (ia) guztiak hizkuntza horretan betetzen diren.
- Euskararen kasuan gune horiek ahultzeko bidea hartzea mehatxua izan daiteke. Besteak beste, gune soziolinguistiko batetik besterako biztanleriaren barne-mugimenduak eraginda.

Arlo sozioekonomikoa

Hizkuntza normalkuntzarako arlo ekonomikoak duen garrantzia aintzat zinez ez hartzea

- Hizkuntza-normalkuntzan eremu ekonomikoak duen garrantziaz jabetuta, larria litzateke edozein plangintzaren abiapuntua behar duen enpresetako hizkuntza egoera eta bilakaerari buruzko ezagutza zehatzik gabe jarraitzea.

Euskara planak erdibidean gelditzea eta frustraziorako motibo bihurtzea

- Enpresei kostatzen zaie euskararen presentzia bermatzeak euskaraz lan egitera pasatzea eta, egoera horretan, abiatutako prozesuak atzera egin dezake.

Lanbide Heziketan euskararen presentzia ez bermatzea

- Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian euskararen presentzia ez bermatzeak enpresetako hizkuntza normalkuntza porrotera eraman dezake.
- Langileak euskalduntzearen kostua enpresek gehiegizkotzat jotzea, batez ere hizkuntza normalkuntzak ekar litzakeen onuren berri garbirik izan ezean.

Hizkuntza egiaztagirien nahasmena, oztopo

- Bi egiaztagiri mota egoteak sortzen duen nahasmenduak enpresak desmotibatu ditzake bide horri ekin diezaioten.

4. EUSKARAREN ELIKADURA

Jarraian euskararen elikaduren ataleko AMIA egiten saiatu gara. Dena den, ariketarekin hasi aurretik, argi utzi nahi dugu, atal hau osatzeko aurreko biek baino zailtasun handiagoak izan ditugula. Arrazoia argia da, atal honetako esparru ezberdinak aztertzeko dagoen informazioa mugatua da, edo zaharkitua eta sakabanatua aurkitzen da.

Beraz, ahalegin berezia egin beharko dugu esparru honetan adierazle sistema osatzerako garaian.

4. 1. Indarguneak

Liburugintza

Argitaratutako liburu asko euskaraz argitaratzen dira

- Euskarazko liburugintzak guztira 37,6 milioiko fakturazioa izan zuen 2011n. Hiru laurden baino gehiago unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako liburugintzaren esparrukoa izan zen; ondoren, haur eta gazteen literatura, 5 milioi ingururekin.

Oso heterogeneoa da euskarazko argitaratzaileen unibertsoa

- Euskarazko liburuen argitaratzaileen unibertsoa oso heterogeneoa da. Bertoko argitaratzaile pribatu txikiak ekoizpenaren zati on bat (% 40,2) sortzen dute.

Produkzioa, batez ere, nobedadeez hornitzen da, eta hezkuntzako liburuez eta haur literaturaz

- Euskarazko liburuaren produkzio osoa batez ere nobedadeez hornitzen da. Berrargitalpena, aldiz, azpitik doa; produkzioan esku-hartze apala du.

Kulturgintza

Kultur ekoizpenean produkzioaren zati handi bat euskaraz da

- Ekoizpenari dagokionez, industria diskografikoak euskaraz egindako produkzioa % 54koa da.
- 2011. urtean antzerki-ikuskizunen bi heren inguru euskaraz eskaini ziren (euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz), eta % 21 gaztelania hutsez.

Merkatu txikia izanagatik, elebidunen euskarazko produktuen kontsumoa handia dela dirudi

- Euskal Herriko datu demolinguistikoak kontuan harturik, eta hizkuntza nagusiek (bai bertakoek eta bai globalek) nolako pisua duten, esan liteke baldintza horietan euskal kulturgintzak erakusten dituen ekoizpen eta kontsumo datuak positiboak direla.
- Bi gauza baieztatu behar dira: a) Euskal kulturgintzaren errealitateak hazkuntza handia izan du azken hamarraldietan, eta b) egoera demolinguistikoa eta errealitate kultural globalizatuaren baitan erakusten duen bizi-indarra aipagarria da. Bereziki azpimarratzekoak dira euskal musikagintzak eta bertsolaritzak duten eragina eta jarraipena, bai literaturak duen hedapena ere.
- Hori neurtzeko azterketa berriak egitea beharrezkoa izango den arren, 2007-2008 urteetan egin zen inkestaren arabera, EAEn ekintza kultural hauek egiten dituzten elebidunetatik antzerkia euskaraz ikusten dute % 47k, % 18 bertsolaritza-emanaldietara joan dira, herenek euskaraz irakurtzen dute (% 36k euskarazko liburuak eta prentsan euskarazko albisteak % 34k), musika euskaraz entzuteko ohitura dute % 79k, euskal musikako kontzertuetara joan dira % 65 eta euskal musika erosi dute % 62k, telebista euskaraz ikusi dute % 32k eta irratia euskaraz entzun dute % 36k. Azkenik, jarduera kulturalak egiteko Internet erabiltzen duten EAeko herritar elebidunen erdiek (% 50) euskarazko edukietara jotzen dute nahiko maiz.

Publizitatea

Publizitatea ele bitan egiteko joeraren areagotzea

- Publizitatea ele bietan egiteko joera zabaltzen ari da EAEn, batez ere, erakunde publiko eta hainbat enpresa handitan; ondorioz, elebidunak dira EAeko publizitate kanpaina asko.
- Eremu horretako zenbait profesional kezkatuta daude euskarak sektorean pairatzen duen zokoratze-egoeraz.

Hedabideak

Elebidunen artean euskal hedabideen kontsumoa zabaldua dago

- Elebidunen artean euskal hedabideen kontsumoa zabaldua dagoen arren, ezin dugu ahaztu erdal hedabideen ondoan euskal hedabideek badutela bere zailtasuna burua ateratzeko. Batez ere, telebista eta prentsa idatzi orokorraren kasuan. Hor daude ETB I en audientzia datuak, esaterako. Irratia izan daiteke salbuespen bat eta irratiarekin batera tokiko prentsa.
- Hala ere, euskarazko kontsumitzaile errealen gune egonkorra osatu da, noizbehinkako kontsumitzaileen geruza zabala dagoelarik.

Euskarazko hedabideek babes soziala eta ekimenerako gaitasuna dute

- Euskarazko hedabideen azpian eta inguruan badago babes soziala eta ekimenerako gaitasuna.

Eragiteko irakurle eta ikus-entzuleen profilak zehaztuak daude

- Euskarazko hedabideen eskaintza zabala da 3. gune soziolinguistikoan.
- Euskarazko medioen kontsumitzaileen profil nagusia hauxe da: familian ikasi dute euskara, baina etxeko hizkuntza gaztelania izan dutenen kopurua ere nabarmentzekoa da (% 20 / % 30 bitartekoa). Gehienbat euskaraz egiten dute, batez ere etxean, eta baita lagunekin zein lankideekin ere. Ezaugarri horiek partekatzen dituzte euskarazko hedabideen zein irrati eta telebistako kontsumitzaileek, baina badaude zenbait ezberdintasun bi hedabide mota horietakoen artean:
 - o Euskarazko hedabide idatziak irakurtzen dituztenen profil nagusia: gazteak (16-34 urte), gizonetzkoak (nahiz eta emakumezkoak ere % 40tik gora izan), goi mailako ikasketak dituztenak (tokiko aldizkari batzuen kasuan izan ezik), gipuzkoarrak eta 3. gune soziolinguistikoan bizi direnak.
 - o Irratien eta telebisten ikus-entzuleen batez besteko profila zertxobait aldatzen da. Adinari erreparatu gero, irratiaren entzulea pertsona heldua da, hau da, 50 urtetik gorakoa askotan. Salbuespenen artean aipagarria da Euskadi Gaztea, gazteen artean arrakasta handia izan duen formula irrati. Telebistaren ikus-entzuleen adinari dagokionez, ordea, edo oso gaztea edo oso heldua da, gutxiengo bitarteko adina duena da.

Profileko datuak hedabideak orokorrean hartuta egindako ikerketa batetik atera ditugu; gero, noski, hedabide zehatz bakoitzeko irakurleen profila ezberdina izango da.

Euskararen presentzia nabarmena tokiko hedabideetan

- Tokiko aldizkarietan euskarak esparru bat hartu du erdarek baino lehenago. Herriko informazioa jasotzeko euskara hutsean dauden hedabideetara jo behar da. Horrek eragin handia izango du ia euskaldunengan, eta euskaltzale izanagatik euskaraz hala moduz dakitenengan. Ez da horrela irratiaren ezta telebistetan ere; esan nahi da paperekoak erreferentzialtasuna duela toki askotan.

Irratiak oinarri egokiak dira beste hedabideak bultzatzeko

- Lortu dituzten entzule kopuru esanguratsuengatik euskarazko hedabideen artean irratiak sendotasun berezia erakusten dute, eta oinarri egokia dira beste hedabideak bultzatzeko.

Euskarazko hedabideen industria sektorea osatua dago

- Ahula izan arren, euskarazko hedabideek industria sektore bat osatzen dutela esan daiteke.
- Euskal Herri osora hedaturiko sarea da euskarazko hedabideena, maila nazionalako nahiz lokaleko medioak ditugularik, orokorrak nahiz espezializatuagoak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**Interneten dabiltzanek euskaraz egiten dute sarean ere**

- Eustatek emandako datuen arabera, Interneten euskara darabilte EAEko erabiltzaileen laurdenek. Gipuzkoan ia erdiek, Bizkaian hamarretik ia bik eta hamarretik batek Araban.

Sare sozialetan dabiltzanek euskarari freskotasuna eta erabilgarritasuna ematen diote

- Tuentin dabiltzan gaztetxoentzat, freskotasunak, kolokialtasunak eta hizkuntzaren bat-batekotasunak garrantzia berezia du. Euskara bere interesen arabera erabiltzen dute, hitzak laburtuz, kodeak nahastuz, eta abar.

Sareetan euskaraz aritzeko argudioak eta bereziki euskaraz lantzen diren gaiak

- Euskaraz egiteko argudioak: euskararen presentzia bermatzea, euskal audientziara iristeko nahia, eta lagun euskaltzaileen presioa.
- Bereziki euskaraz jorratzen diren gaiak; euskara, euskalgintza edo gatazka politikoa, esaterako.

Nahikoa zabala da euskarazko baliabideen eskaintza Interneten

- Euskarazko IKTen inbentarioan, 475 produkturen erreferentzia biltzen da.
- Horietatik, gehienak (276) Euskarazko Softwarea dira. Ondoren datoz hizkuntzari berari dagozkion tresnak (81) eta informazioaren eta jakintzaren kudeaketari dagozkionak (35), etab.

4. 2. Ahuleziak

Liburugintza

Aspaldiko euskal liburu gutxien argitaratu dira 2012an

- 2.005 titulu argitaratu dira 2012an euskaraz, horietatik % 95 liburu analogiko moduan (paperean, alegia). 2.005 titulu horiek aspaldiko gutxienak dira. 2006 arte jo behar da atzera 2012ko kopuruak baino baxuagoak ikusteko.

Berrargitalpen gutxi egiten dira, liburu horien arrakasta eskasaren seinale?

- Euskarazko liburuaren produkzio osoa batez ere nobedadeez homitzen da. Berrargitalpena, aldiz, azpitik doa; produkzioan esku-hartze apala du.

Kulturgintza

Tamaina txikiko merkatua

- EAE bi hizkuntza ofizial, euskara eta gaztelania, dituen erkidegoa da eta hizkuntza-errealitate hori bi hizkuntzen presentzia-maila desberdinekin islatzen da kultura-sektore desberdinetan. Datuak aztertzeko, EAEko hizkuntza-errealitate horren ezaugarriak hartu behar dira kontuan, euskarazko kultura-produktuen tamaina txikiko merkatua eskaintzen baitu.

Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira

- Kulturaren kontsumoaren ohiturei dagokienez, euskararen kasua kultura kontsumoaren marko orokorraren testuinguruan kokatu behar da. Ohiturak aldatzen ari dira hizkuntza guztietan: liburu gutxiago irakurtzen da (paperean behintzat), gutxiago joaten da antzezlanak ikustera, egunkarien paperezko kontsumoa gutxitzen ari da Europa osoan (digitalen kontsumoa handitzen ari da, baina Internetekin askotan gertatzen den moduan izenburuak baino ez dira irakurtzen; beraz, kontsumitzeko forma ere aldatu egin da) etab.

Ikus-entzunezko produkzioan gaztelania nagusi

- Ikus-entzunezko produkzioan hamar produktiotik lautan euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak eskaintzen dira. Soilik gaztelaniazko bertsioan egindakoak gutzitzkoaren % 48 ziren, eta hizkuntza hori nagusi izan zen dokumentalen eta publizitatearen arloko produkzio-etxeen ekoizpenetan.

Aurkezten diren antzezlanen kopurua jaisten ari da

- Azken urteetan produkzio kantitate orokorra beherantz doa. Datuak begiratzuz ez dirudi horrek kalte egin dionik euskaraz egiten den produkzio kantitateari baina agian bai kalitateari.
- Euskal Herrian lan egiten duten ekoizle guztiek garbi daukate antzezlanak bi hizkuntzetan aurkezteak inbertsioa gehitzen badu ere, diru laguntzak eskuratzeko hobe dela eta era berean ikuslego zabalago batengana hurbiltzeko aukera ere bikoiztu egiten dela.

Ordu onenetan erdarazko produkzioak aurkezten dira

- Hiriburuetako antzoki nagusienetan bereziki, oraindik ere askotan, egun onenetan erdarazko produkzioak aurkezten dira.
- Euskaraz egiten diren ekoizpen eta emanaldiak askotan nekez topatzen dira komunikabideetan, batez ere, jakina, erdarazko hedabideetan.

Antzerkia ikustera joaten den ikuslegoaren gutxitzea

- Arrazoi ekonomikoak medio, antzerkiari ezarri zaion BEZ igoera jasanezina da, eta beste ikuskizunekin gertatu den bezala ikuslegoak sarreretan sumatu du igoera.
- Haurrak gurasoen eskutik joaten dira antzerkia ikustera, baina gero adinean gora egin ahala ez dute antzerkira beraien kasa joateko ohiturarik, eta hor badago euskara erabili, gozatu eta aberasteko bidea. Haurrentzat egiten den ikuskizun kopurua altua da, baina gazteentzat bereziki egiten dena, uztartutako gai eta molde aproposekin eta kalitate onekoa bada ere, oso urria.

Antzoki Publikoek (Euskal Herrian gehienak hala dira) eta kultur etxeek programatzen duten emanaldi kopurua jaitsi egin da eta emanaldi bakoitzeko aktore kopurua ere bai

- Ekoizleei beraien lana erakusteko aukerak murrizten bazaizkie, beraien inbertsioak parekatzeko eta ekipo artistikoak mantentzeko aukera ere jaitsi egiten da.
- Gastuak jaisteko orduan ekoizleek kasu gehienetan aktore kopuru txikiagoa duten antzezlanak aukeratzen dituzte. 3-4 aktorek egindako antzezlanak dira nagusi.
- Azken bi urteetan bakarriketa eta mikroteatro formula nabarmen zabaldu da. Diru laguntzarik gabe sortutako lanak dira gehienetan, autoinbertsio gisa.

Publizitatea

Publizitate munduan elebitasunari ematen zaion garrantzi eskasa

- Elebitasunari eta hizkuntzaren gaiari garrantzi handirik ez zaio ematen publizitatearen munduan.
- Orokorrean, lantzeke dagoen esparrua dela esan daiteke.

Agentziek gaztelaniaz lan egiten dute, eta itzulpenetara jo, horrek sortzen dituen arazoekin

- Agentzietan gaztelaniaz lan egiteko erraztasun handiagoa dago; publizitatearen munduan gaztelania nagusi da. Ondorioz, agentzia guztiak lan egiten dute itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batekin.
- Oraindik ere asko dira EAEn –eta zer esanik ez gainontzeko euskal lurraldeetan– publizitatea erdaraz soilik egiten duten markak (bereziki kanpokoak).

Eragile guztiak dute zeresanik publizitateak hizkuntzaren ikuspegitik bizi duen egoeraren gainean

- Markak edo iragarleak: askotan ez dute uste euskaraz egitea merezi dienik, eta egiten dutenean kalitatea ez dutelako behar bezala zaintzen.
- Publizitate agentziak: iragarleek askorik ez dituztelako estutzen-edo, askotan beren bezeroei kanpainak gaztelania hutsean aurkezten dizkiete, eta are okerragoa dena, gero itzulgarriak izango ote diren kontuan izan gabe maiz.
- Media zentralak: medioen plangintzak egin eta proposatzerakoan audientzia datuetan oinarritzen dira batik bat, eta euskarazko publizitatea ez dute –oso kasu berezietan ez bada– inpaktu kualitatiboak lortzeko bide gisa proposatzen.
- Publizitatearen hartzaileak: akatsak egiten direnean hori zigortu beharko luketelako, bereziki elebidunek.

Esparru honetan ez da aurrerratu beste esparru batzuetan adina

- EAEko Legebiltzarrak Euskararen Normalizaziorako Legea onartu zuela 30 urte bete diren honetan, publizitatearen esparruan, alor pribatuan bereziki, ez da beste eremu batzuetan bezainbeste aurrerratu.

- Iñigo Fernandez publizistaren ustetan, azken hiru hamarkadatan eremu honetan gainerakoetan baino gutxiago aurreratu denez, garaia da euskara publizitatearen eremuan normalizatzeke helburua izango lukeen lehen ahalegin planifikatua egiteko.
- EABko Euskara 21 taldeko adituen ekarpenetan ere esparru honetan dagoen informazio faltaz kontziente izanik, ikerketa berezi bat egiteko eskatzea proposatzen da.

Hedabideek ez dute lan bateraturik egiten publizitatearen esparruan

- Hedabideek ez dute lan bateraturik egiten publizitatearen esparruan, eta publizitate agentziak horretan lanean ez jartzea ahulezia da. Modu honetan erakunde handiek ez dituzte euskarazko hedabideak publizitarioki aintzat hartzen.

Hedabideak

Hedabideen behategia ez izatea

- Errealitatea neurtzeko ez dago datu propiorik. Ez da nahikoa CIES etxeak egiten dituen neurketekin. Hedabideen errealitatea ezagutzeko neurketa modu bakarra eta adostua behar da. Hori ez izateak eguneroko kudeaketa zailtzen die hedabideei.

Euskarazko hedabideen sustapen eta hedapenerako mugak

- Euskarazko hedabideek eta edukiek oso oihartzun sozial murrizta lortzen dute. Sustapen eta hedapenerako mugak handiak dira.
- Finantziarazko arazoak eta publizitatea edo babesletzak lortzeko zailtasunak ziurgabetasun ekonomikoa eragiten die.

Elebidun askok euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak

- Euskarazko hedabideak irakurtzeko zailtasun handia dute euskaldun askok eta horrek ondorio nabarmena du euskarazko hedabide idatzien audientzian.
- Euskarazko ikus-entzunezko kontsumitzaileek erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz irakurtzeko, baina errazago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino. Kontuan hartzekoa da Euskal Telebistaren eta Euskadi Gaztearen entzuleen kopuru handi batek erraztasun handiagoa duela gaztelaniaz egiteko euskaraz baino, % 38k hain zuzen ere.

- Nahikoa handia da oraindik alfabetatu gabeen edo erdi alfabetatutako euskaldunen kopurua, batez ere adin batetik aurrera (2006ko datuen arabera ia % 24koa 40 urtetik aurrerakoan artean eta % 40koa 65 urtetik aurrerakoetan).
- Euskarazko hedabideen kontsumoa ez da ezagupenaren hazkundera adina handitu.

Telebistan ikusle goaren kopurua jaisten ari da

- Kasu honetan eskura ditugun datuak zaharkituak daude baina euskal telebistako audientzia datuen arabera beherakada nabarmena da. Eta itxura denez geldiezina.
- Telebista kateen aukera asko zabaldu da eta horrek txikitu egin du ETB1ek izan dezakeen indarra.
- Euskaldun askok ez dute ETB bere mandoaren lehen zenbakietan ere. Beraien ohitura eta egunerokotasunetik kanpo geratu da. Saio berezi edota kirol ekintza puntualak salbu.

Kate gehiago, ikusle gutxiago

- EITB berak egindako apustuak ez du ildo guztietan behintzat emaitza onik ekarri. ETB3ren sorrerak umeak, gazteak eta helduak kate ezberdinetan kokatzera eraman ditu eta egoera berri honek ez du ikusle kopurua indartu.
- Orain kate-dantza honetan, askotan hurrek ere ez dute kate euskalduna aukeratzen (batez ere adinean gorantz egin ahala) eta helduek ere hala moduz jokatzeko dute.

ETB1 kateak arazo nabarmenak ditu

- ETB1 en audientzia kuotak minimo historikoetara iritsi dira (% 1,8ko sharea). Beste euskarazko telebisten eragina ere oso murrizta da, ditugun datuen arabera.
- ETB1 kateak ez du irudi propio bereizturik, eta bere prestigio maila ere baxua da euskal iritzi-emileen artean. ETB1ek marka-irudi propioa eta komunikazio plangintza propioa behar ditu.
- EITBk EAEtik kanpo eragiteko dituen zailtasunak, bai legezkoak Nafarroan, bai egiturazkoak eta sozialak Iparraldean.

Tokiko telebista euskaldunak eta telebista publikoek harreman sendoagorik ez izatea

- Tokiko telebista euskaldunak eta telebista publikoek harreman sendoagoa izan beharko lukete. Telebista publikoak bete behar lukeen funtzioen artean programak tokikoei bideratzea izan beharko luke. Ez dira konpetentzia.

Helduak eta umeak elkarrekin ez bada ez dute beti euskara erabiltzen edota aukeratzen

- Euskarazko kateak ez baditu bere baitan balio erakargarri eta positiboak, ez dira askotan aukeratuko. Elkarrekin egonda, batzuetan behintzat, egingo da euskarazko kateen aldeko hautua baina ez helduak, gazteak edo haurrak banandu orduko.

17-24 urtekoek telebista ikusten dute baina askotan Internetez

- Adin honetako gazteek egunerokoan telebista Internetez baliatzen dute. Bideoak, jokoak, sare sozialak eta interaktibitatea bilatzen badute ere, kasu askotan serieak ikusten dituzte. Ondorioz, eskaintza are eta gehiago zabaltzen zaie.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak**Euskara menperatu arren, badira nagusiki sareetan gaztelaniaz aritzen direnak**

- Bestalde, metodologia kualitatiboa erabiliz egindako lan baten arabera, euskaraz ondo egin arren, badira sareetan nagusiki gaztelaniaz aritzen diren pertsonak: euskaraz zailtasunez egiten duten guztiek egiten dute sarean gaztelaniaz. Eta euskaraz ondo egiten dutenetatik hirutik batek darabil euskara.

Euskaraz ez aritzeko argudioetan ohitura eta euskarazko komunikazioaren mugak nabarmenduko genituzke

- Euskaraz ez egiteko argudioak: ohitura eta erosotasuna, audientzia, euskarazko komunikazioaren mugak, gaizki egiteari beldurra, hizkuntzaren konplexutasuna, gaztelaniaren indarra eta freskotasuna.

4.3. Aukerak**Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuak munduratzeko**

- Globalizazio ekonomiko eta kulturala aukera bezala uler dezakegu, euskal produktuen munduratzeari ekar dezakeelako, betiere marko global horretara egokitzeke gai bagara.

Euskararen aldeko herri-elkarteen eta herri-mugimenduen kemena eta eskarmentua

- Euskararen garabideari aukera ematen dioten faktoreen artean ezin aipatu gabe utzi herri-elkarteen eta herri-mugimenduen kemena eta eskarmentua euskararen aldeko lanean. Euskararen eremu estrategiko guztietan eman diote elkarte hauek hauspoa euskarari, eta elikaduran ere bai.

Liburugintza**Itzulpenen goranzko joera atzeman da**

- Nobedadeen ibilbidea jatorrizko tituluek markatzen badute ere, itzulpenek gorakada dezentea izan dute: 2012an, % 38 da itzulpena nobedadeen artean, azken hamahiru urteetako bigarren proportzio handiena.

Kulturgintza**Eduki interesgarriak euskaraz soilik jartzeak kontsumoa handitu dezake**

- Euskaraz irakurtzeak suposatzen duen gain-efortzuari aurre egiteko, interes gehigarria duten edukiak bultzatu behar dira. Normalean aisialdiarekin lotzen direnak. Adibidez: arrakastatsua izan zen “tropela” ziklismoko porra egiteko webgunea. Webgune hori euskaraz baino ez zegoen eta erdal elebidun (eta erdaldun huts) batzuek esfortzua egiten zuten erabiltzeko, nahiz eta euskaraz bakarrik egon. Orain gaztelaniaz ere jarri dute eta hizkuntzaren ikuspuntutik interesa asko galdu du. Euskaraz eskaintzen den informazio interesgarri hori euskaraz baino ez da egon behar printzipioz edo behintzat euskarazko bertsioak erdarazkoa(k) baino interes osagarri bat gehiago eduki behar du.

Publizitatea**Esparru garrantzitsua da, eta dagokion garrantzia eman behar zaio**

- Gizarteko xede-talde zabalei zuzendutako ekimena izanik eta, horregatik, euskara gizarteratzeko ahalmen handia duenez, lehen-lehen mailako garrantzia du publizitateak euskararen normalizazio bidean.
- Euskarazko publizitatea eraginkorra izateko euskaraz pentsatu behar da: hitz-jokoak darabiltzanez, erdarazko leloak, batzuetan, itzulezinak izan daitezke. Eta sarri askotan, zoriaren menpe geratzen da bigarren hizkuntzaren (euskara izan ohi dena) eraginkortasuna.

Euskara gaztelania bezain baliagarria suerta liteke publiziterako

- Publizista guztiak ados ez badaude ere, beste batzuek, eta batez ere itzultzaileek, berriz, uste dute euskara gaztelania bezain baliagarri dela publiziterako.

Pentsa liteke publizitatea gaztelania hutsean egiteak kalteak ekar diezazkiokeela marka bati

- Zantzu sendoak daude pentsatzeko gaur egun EAEn publizitatea gaztelania hutsean egiteak kalteak ekar diezazkiokeela marka bati.

Legeak publizitatearen inguruan dabilzan eragileak ahalegin bat egitera behartzen ditu

- EAEko Legebiltzarrak onartutako Euskararen Normalizaziorako Legea kasu.
- Zentzu horretan, adierazpen publikoetan euskara behar den bezala erabiltzeko protokoloa zehaztu beharko litzateke.

Hedabideak**Elebidunen kopuruak gora egin du**

- Elebidunen kopuruak gora egin duela aipatu dugu aurreko atalean, hori litzateke aukera nagusia euskal hedabideentzako. Hartzaile potentzialak gero eta gehiago izatea sekulako aukera da.
- Gazteak elebidun dira gutxienez eta intereseko gaiak emateko gai bagara, kontsumitzeko aukerak handitu daitezke. Aplikazioak, sare sozialak...
- Ikus-entzunezko kontsumitzaile askok, nahiz eta irakurtzeko erdaraz erraztasun handiagoa izan, hitz egin euskaraz errazago egiten dute.

Profesional gero eta prestatuagoak euskarazko hedabideetan

- Euskarazko hedabideen inguruan, zaildutako profesional sare zabala dago, hedabideen esparrua bizitzen ari den etengabeko eraldaketa prozesuari aurre egiteko gaitua. Euskara oso ongi menderatzen duen eta unibertsitateak lanerako ongi prestaturiko belaunaldi berriak ari zaizkigu kaleratzen, gainera.

Euskal prentsan batasunaren aldeko bideak ematen ari dira

- Euskal prentsan batasunaren aldeko bideak ematen ari dira zorionez (esaterako, Tokikom eta Hekimen bezalako egitasmoak). Izan baditugu, urte askotako esperientzia duten ereduak, kalitatezko zerbitzua eskaintzen dutenak eta etorkizuna izan dezaketenak testuinguru aldagari honetan. Beraz, eredu krisia dugula azpimarratu behar da lehenengo eta behin.
- Garrantzitsua da txikiegi diren proiektuak elkartzea eta sendotzea. Aukerak badaude, esaterako, eskualdeka antolatuz.

Euskalgintza instituzional eta sozialarekin ere bila daitezkeen sinergiak

- EITBren eta euskalgintza instituzional nahiz sozialaren arteko inplikazioa eta konplizitatea handitzea. Sinergiak lortuz gero, eta elkarlanean sakonduz gero, aukerak biderkatu egingo dira.
- Nabarmentzekoa da maila instituzionalean euskarazko hedabideak sustatzeko dauden aukerak.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

150

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek leku egin diezaiokete euskarari

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak indarra hartzen eta hedatzen ari dira izugarri azken hamarkadetan. Teknologia hauek leku egin diezaiokete euskarari orain arte iristen ez zen espazio eta sektoreetara iristeko.

Lagunekin sarera aurrez aurreko hizkuntza dinamika eramaten dute gazteek, aurrez aurrekoan eraginda beraz, sarean ere eragin daiteke

- Orokorrean, pertsonak Interneteko sareetan sartu direnean, aurrez aurreko harremanak eta hauekin duten hizkuntz dinamika eraman dituzte sarera.

Euskara ondo kokatua dago Interneten

- Euskara ondo kokatua dago Interneten. Duen hiztun kopurua kontuan hartuta, mundu mailako hizkuntzetan aurrean kokatzen da. Horrek aukerak sortzen ditu.

Internet gune erdaldunetako euskaldunentzat helduleku izan daiteke

- Euskaldun gehienak (normalean gaitasun mugatuena dutenak) gune erdaldunenetan bizi dira. Erdararen itsasoan Internetek helduleku euskaldun bat izateko aukera ematen du. Egunerokotasunean gizarte sare erdalduna baino ez duten elebidunentzat txoko euskalduna izateko aukera ematen du Interneteko sareak.
- Itsaso erdaldunean euskararen babesleku trinko xamarrek sortzea ezinbestekoa dirudi; Interneteko sarea aukera bat izan daiteke, Bilboko Kafe antzokia, mintzalaguna etab.eko egitasmoak bezala. Jarrera eta erabilera pro-aktiboak bultzatuko dutenak. Gune-eremu-egitasmo horiek adin talde guztientzat existitu beharko liriateke (16 urteko gaztearen interesak askotan ez dira 60 urteko heldu batenak) eta toki guztiak kontuan hartu beharko liriateke, bereziki gizarte sare erdaldun handienak dituzten eremuak. Internet aukera bat izan daiteke, gainera, gune euskaldunenek sarrera izan dezaten gune erdaldunenetan.

4.4. Mehatxuak

Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuentzat mehatxu ere izan daiteke

- Globalizazioa, kulturalki aberasteko aukerak eskaintzarekin batera, beren baldintzetara egokitu ezean, marko berri hori mehatxu izan daiteke euskararentzat, baina batez ere, euskararen elikadurarentzat; adibidez, liburugintzan, kulturgintzan, publizitatean, hedabideen munduan eta IKTean.

Liburugintza

Kanpoko argitaratzaileak gero eta leku gehiago hartzen ari dira

- Bertoko argitaratzaile pribatuek ekoizpenaren zati on bat (% 40,2) sortzen badute ere, hauen ekoizpen indarra jaitsi egin da zenbaki absolutuetan, eta are gehiago besteekiko proportzioaren ikuspegitik, kanpoko argitaletxeen indartzearekin batera. Ondo-ondoan dauzkate espainiar enpresak, bi puntutara (% 38).

Etorkizunean indarra izango duen IKTen eremuak euskarazko publikazioan ez du indarririk erakusten

- Edizio digitalak ez du aurrera egiten euskal edizioan. Aurrera egin ordez atzera doala ere esan genezake, azken urteotako zifra absolutuei begiratu.

- Liburuaren etorkizuna digitalean izango dela pentsatuta ere, gaur gaurkoz abiatu gabe gaude hegaldi horretan.

Itzulpenen gorakada, jatorrizko tituluaren beharakadaren gainean izan da hein handi batean

- Itzulpenen proportzioaren gorakada ez dator bere merituz, nolabait esan, baizik eta jatorrizkoaren jaitsiera nabarmenaren erruz.
- Ekoizpenaren gaikako bilakaerari dagokionez, esan dezakegu tematika guztietako tituluaren kopuruek egin dutela behera 2008tik 2012ra. Batez ere, giza / gizarte zientzietakoak eta zientzia eta teknologikoak: % 40tik gorako titulu gutxiago bi kasuetan.

Kulturgintza

Tamaina txikiko merkatua izatea

- Tamaina txikiko merkatua izateari erantsi behar zaio eskaintza mota eta, sarri, irisgarritasuna ere erdarazkoak baino mugatuagoa izatea.
- Euskarazko produktu kulturalen kontsumoan, indar eta erakargarritasun handia duten beste hizkuntza batzuetan eskainitakoa (ingelesa, gaztelania eta frantsesa, esaterako) kompetentzia zuzena da.
- Euskaraz egiten den kultura euskararen normalizazioaren izenean eskaintzen da eta erdaraz egiten den inbertsioa, aldiz, kulturaren aldekoak bezala kontatzen dira, ez erdararen sustapenaren alorrean.

Euskal Kulturgintzaren zaugarritasuna

- Aldi berean, kulturgintza honen zaugarritasunaz ere ohartu behar da diagnostikoa egiterakoan, eta hori datuetan islatzeko baliabiderik ez daukagu une honetan.
- Kultur ekoizpenaren eta bereziki kultur kontsumoaren bilakaerak abiadura handia du munduan eta gurean. Abiadura horretan, elementu ahulak ditu euskal kulturgintzak. Belaunaldi gazteenen kontsumo zappinga, sortzaileek kulturgintzari emanak bizitzeko dituzten zailtasun berriak, eskaintza-uholde hazkorrean bertakoaren kontsumo kuotak etorkizunera begira dituen inkognitak... hainbat elementuk adi egotera deitzen gaituzte.

Antzezlaren aukeraketa murriztagoa

- Prestatzen diren antzezlaren aukeraketa murriztean, euskal idazleen antzezlari gutxi ikusiko ditugu oholztan, eta antzerki klasiko eta kontenporaneo ugari ere filtro ekonomiko edota komertzial honetatik kanpo geratzen dira.

Lehen muntaketa erdaraz izateak euskarazkoa eskasagoa izatea dakar maiz

- Antzezlana bi hizkuntzetan prestatzen denean, normalean erdara erabiltzen da muntaketako lehen hizkuntza bezala, eta ondoren bigarren bertsioa edo euskarazko muntaketa egiten da. Ahal den denbora laburrena erabiliz. Ondorioz, euskarazko muntaketa eskasagoa izan ohi da.

Egoera ekonomikoaren ondorioz, antzezlaren kalitatea txikitzen ari da

- Profesionalek, ekipo txikiagotan lan egiteaz gain, askoz denbora gutxiago dute entseguetarako, ikerketa eta bilatze lanerako. Ondorioz, kasu gehienetan emaitza apalagoa izango da.
- Ahal den denbora gutxienean muntaketa berri bat atera behar da, eta hori kaleratu orduko, emanaldi kopuru txiki baten ostera produktua aldatu beharra dago. ekipoak ezin baitira airean mantendu.
- Gaur egun Aktore eta interpreteen Kudeaketa Elkartearen arabera aktore profesionalak % 75an ezin dira beraien lanaz bizi.

Bakarrizketa eta mikroteatroko produkzio asko erdara hutsean plazaratzea

- Autofinantzaketa sisteman sortutako proiektu txikietan euskararen presentzia desagertu daiteke, Araban eta Bizkaian ekoiztutako artean bereziki.
- Salbuespenak badaude, eta kasu positiboki deigarriak ere bai.

Publizitatea

- Ez da saiakera berezirik egin esparru horretan, eta azterketa sakon bat egiteko beharra azpimarratzen da.
- Euskarazko hedabide eskaintza zabala dago, baina haietatik oso gutxi biltzen dituzte audientzia kopuru zabalak.

Elebitasunak zaildu egiten du sormen langintza

- Elebitasunak zaildu egiten du publizitate agentzien sormen langintza: aurrekontua handiagoa da eta prozedura luzatu beharra dago. Denbora eskasiak are eragin handiagoa du euskarazko bertsioan, askotan, ez baitaiaio behar beste arreta jartzen.

Itzulpenetan komunikazio publizitarioaren kodeak ez betetzea

- Gaztelania eta euskararen arteko itzulpenetan zailtasun handiak izaten dira, hizkuntzen egitura morfosintaktikoak oso ezberdinak direlako.
- Publizitate iturri-marka askok oraindik ere hala moduz, intuizioz edo soziolinguistikak eskainitako arrasto orokor eta bakan batzuei jarraiki zehazten dituzte beren hizkuntza irizpideak.
- Ondorioz, askoz eraginkorragoa da erdarazko mezua euskarazkoa baino, nagusiki euskarazko publizitate ia guztia jatorrizkotik itzulia delako. Batzuetan itzulpen literalak eta okerrak, baina gehienetan euskara zuzena erabilia ere, ez da euskara egokia erabiltzen (publizitate irizpidea).
- Denbora aldetik lami ibiltzen dira sarri; ondorioz, zaila da egokia iruditzen zaien gaztelaniazko publizitate kanpaina bat atzera botatzea euskaraz (hain) ondo funtzionatzen ez duelako.
- Hiztun elebidunak ohituta daude erdarazko publizitatearekin eta ez dute eskatzen euskarazko publizitaterik.

154

Euskaraz sortzeko gai diren profesional gutxi dago

- Agentzia gehien-gehienek langile euskaldun gutxi dituzte, eta are gutxiago goi-karguetan.
- Euskaraz ere sortzeko gai diren profesional oso gutxi dago publizitate agentzietan, publizitatean adituak eta euskal sena dutenak.
- Publizitatean espezializatutako itzulpen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresarik ez dago.

Hedabideak

Hedabideen krisia

- Hedabideen mundua krisi sakonean dago murgilduta nagusiki Interneten hedapenak ekarri duen eredu aldaketarengatik. Informazioa kanal desberdinetatik isurtzen da orain; papera,

irratia eta telebistaren monopolioa bukatu da eta hedabideen mundua negozio eredu egonkorren eta arrakastatsuen bila ari da azken urteotan.

- Gure hizkuntza komunitatea bizia baina txikia den neurrian zailtasunak ditugu sostengua eta iraunkortasuna emateko indarrean dauden proiektuei.
- Gure tamaina dela eta “formatu handietara” iristeko zailtasunak. Telebistari dagokionez, belaunaldi gazteek ingelesezko kontsumoetara zenbat eta gehiago jo, orduan eta zailagoa izango da euskarazko edukiekin lehiatzea.

Elebidunen irakurtzeko eta, oro har, euskaraz egiteko zailtasunak mehatxu nabarmena dira

- Euskarazko hedabide idatzien irakurleek, oro har, erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz irakurtzeko, batez ere tokiko aldizkarien eta egunkarien irakurleek. Hala ere, errazago hitz egiten dute euskaraz gaztelaniaz baino.

Kontsumitzailea doako produktua jasotzera ohitu da

- Hedabideak doan kontsumitzeko joera gero eta zabalagoak eragin zuzena izan dezake euskarazko hainbat hedabideren biziraupenean, paperezkoetan batez ere.
- Bereziki, tokiko hedabideen irakurlea ohitu egin da doako produktua jasotzera. Ohitura hori bera mehatxua izan daiteke egoera aldatu beharrean aurkitzen badira.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Elebidunen harreman-sarea asko handitzean, harremanetan euskaldunen dentsitatea txikitzen da

- “Eguneroko” harreman hauez gain euren sareak bestelako jendearekin osatu dituztenean (unibertsitateko lagunak, kanpoan bizi direnak, kanpoan bizi den familia, eta abar), sarean dituzten euskaldunen dentsitatea nabarmen jaisten da eta honek eragin ezkorra du euskararen erabileran.

Sarean maiz gertatzen den kode-nahasketak euskararen presentzia anekdotikoa izatera kondena lezake?

- Kode-nahasketa: codeswitching edo kode aldaketaren fenomeno oso ohikoa da bi hizkuntza elkarrekin bizi direnean: euskara eta gaztelania/frantsesa edo baita ingelesa ere.
- Euskarazko keinuak: amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea jarduna gaztelaniazkoa izan arren, ia berriemaile guztiek dituztela euskarazko keinutxoak. Anekdotikoak diren arren.

Hilabeteak dira Twitterreko euskarazko jarduna neurtzen dela. Behera egiten ari da?

- Bestalde, aipagarria da Twitterreko euskarazko jarduna jarraitzen dutenetik (duela sei hilabetetik), abuztura arte euskarazko mezuen proportzioak behera egin zuen etengabe hilerok-hilerok. Azken hilabetean, ordea, berriz ere gora egin du euskarazko jardunak, % 48raino.

5. MOTIBAZIOAK ETA JARRERAK

Motibazio-jarrera-pertzepzioen azterketa funtsezkoa da, horiek moldatzen baitute errealitatea ikusteko eta ulertzeko dugun modua, besteak beste hizkuntza. Hala ere, motibazioak, jarrerak eta pertzepzioak ez dira gauza bera nahiz eta oso lotuta dauden. Hemen lehenengo biak, motibazioak eta jarrerak, hartuko dira kontuan, nahas-mahas.

5.1. Indarguneak

Euskararen aldeko oinarrizko jarrera aitortuak

- Motibazio handia izan da hamarkadetan zehar, eta Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa (% 55) euskara sustatzearen alde dago.
- Motibazio naturala eta motibazio kulturala (Txepetxen terminologian), biak ditu euskarak, eta biek elkar elikatzen dute.
- Ez dago adin taldeen arteko alde nabarmenik euskararen aldeko begikotasunari dagokionez, EAEn bederen, eta gazteek ere euskara gustukoa dute, nahiz eta hainbat kasutan eskola izan den euskara eskuratzeko bide bakarra.
- Azken urteetan jarrera aitortuak gero eta baikorragoak izaten ari dira. EAE eta Nafarroako biztanleriaren ehuneko gero eta handiagoa da euskara sustatzearen aldekoa.
- Orokorrean erdaldunen jarrera aitortuak nahiko baikorrak dira euskararekiko, eta batzuek horren normalizazioak instituzioen laguntza eta plangintza behar duela diote. Hala ere, beste batzuk nahiko epelak dira ekintzetara pasatzeko eta zenbaitek oso kontrako jarrera dute.
- Euskal Herritik kanpo jaiotakoek aitortutako jarrerak nahiko baikorrak dira euskararekiko.

Aldeko motibazioak jabekuntza eta transmisioaren mesedetan

- Motibazio naturalaren eraginez transmisio edo iraupen naturala gertatu da gehienbat. Motibazio eta transmisio naturalak motibazio kulturalarentzako erreferentziak dira: batzuek motibazio naturala dute, beste batzuek kulturala dute, edo biak batera.
- Motibazio kulturalaren eraginez euskaltzaletasun kontzientea garatu da. Hiztun berriak masiboki irabazi ditu euskarak (oso gutxi dira munduan hiztun berriak masiboki irabazten dituzten hizkuntzak).

- Gero eta euskaldun gehiago dago, EAEn batez ere, eta euskararen hedapenarekin batera aldeko jarrerak ere igotzen ari dira, Iparraldean izan ezik (1991tik 2011ra: % 9ko igoera Euskal Herri osoan; % 10eko igoera EAEn; % 16ko igoera Nafarroan; eta % 6ko jaitsiera Iparraldean). Adibideak: euskara galtzea arazoa litzateke EAeko biztanleen % 82rentzat; EAeko 16 urtetik gorako biztanleen % 66k seme-alabarik izanez gero, D ereduan ikas dezaten nahiko lukete, eta % 25ek B ereduan.
- Koherentzia handia dago EAEn aldeko jarrera eta portaera batzuen artean: jarretan, % 62 daude euskara sustatzearen alde edo oso alde, eta, hezkuntza ez unibertsitarioan, D ereduko matrikulazioak % 61 dira, gehi % 21 B ereduan.

Adostasun soziopolitiko instituzionala aldeko

- Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren sendotasuna. Horri esker, LOMCEtik kanpo geratu omen da euskarazko irakaskuntzaren eredia EAEn.
- Euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionalaren malgutasunak: batetik, herritarren erabakimenari toki handia ematen dio; bestetik, malgutasun horri esker euskararen hizkuntza politikak ez ditu Kataluniakoak jaso dituen eraso diskurtsiboak jaso.

158

Euskararen balioak: jakitea praktikoa da, integratzailea, positiboa...

- Balio pragmatikoa aitortzen zaio euskarari. Adibidez, gaur egun, Euskadin, "euskaraz hitz egiten jakiteak aukera gehiago ematen duela" dio biztanleriaren % 85ek.
- Motibazio integratzailea indartsua da zenbait gune soziolinguistikotan, euskara integrazioarako laguntza handia dela askotan azpimarratu egiten dute integratu egin diren pertsonak, bereziki kanpotarrek.
- Euskararen aldeko hainbat kanpaina egin dira eta egiten ari dira lurralde gehienetan. Horietako batzuek nazioarteko ereduaren berrikuntzaren bidea jarraitzen dute, hizkuntza emozioekin lotuz (poziktibity, adibidez).

Badira euskararen garabiderako positiboak izan diren estrategia diskurtsiboak ere

- Diskurtso aldarrikatzaileak duen indarra aldekoak motibatzeke eta bide horretan jarraitzeke.
- Diskurtso integratzailearen (eta antzekoen: demokratiko-pluralista, diskurtso instituzionala: euskararen legea, Euskara 21...) indarra eta besteak permeabilizatzeko gaitasuna.

5.2. Ahuleziak

Euskararen aldeko jarrerak, mugatuta

- Kontrajarriak diren bi iritzi talde nagusi daude, euskaltzalea, bata, eta euskararekin mesfidatia, bestea. Joera horiek indartu edo ahultzen dira testuinguru soziolinguistiko, hizkuntza-gaitasun, jaiotteri edota ideologia politikoaren arabera.
- Motibazio mota bakoitza (identitarioak, motibazio pragmatikoak, integratzaileak) gizarte sektore mugatu batengana baino ez da iristen.
- Hitzunen hizkuntza-gaitasun eta erabileraren arabera aldeak daude motibazio-jarrerari dagokienez. Joera horrekin bat eginez, jarrera mesfidatia duten gazteen proportzioa handiagoa da ingurune erdaldunetan, ingurune euskaldunagoetan baino.
- Euskal Herrian, oro har, euskararen gaineko jarrera aitortuak gehienbat euskararen aldekoak badira ere, herritarren portzentaje esanguratsu bat (% 45) ez dago euskara sustatzearen alde (% 28 ez alde, ez aurka; eta % 17 aurka). EAEn ere herritar asko (% 38) ez daude euskara sustatzearen alde; % 26 ez alde, ez aurka; eta % 12 aurka.
- Motibaziotik portaerara dagoen jauzia handia da. Jarrera teorikoen eta hizkuntzaren erabileran eragina duten jarreraren artean —jarrera aitortuen eta ezkutuen artean— jauzi handia dago.

Gehiengoaren eskubideen diskurtsoa egituratuago dago ekintza positiboarena baino

- Gehiengoaren eskubideen aldeko diskurtsoaren interpretazio batzuen arabera gehiengoaren eskubideak bermatu behar dira beste ezeren gainetik, gutxiengoaren eskubideak edo beharrak kontuan hartu gabe ere. Interpretazio horien arabera, adibidez, euskara bultzatzea edo euskararen ezagutza kontuan hartzea lanpostu bat bereganatzeko gehiengoarekiko diskriminazioa litzateke. Diskurtso hori, historikoki ainguratuta dago alderdi diferenteetan Iparraldean (bereziki ezker nazionallean), eta Hegoaldeko (bereziki Nafarroako) alderdi batzuetan.
- Ekintza positiboaren aldeko diskurtsoa ahula da, jendeak ez baitaki ongi zer den eta zertan datzan. Aurreiritziei lotutako pentsamendu-markoak indarrean daude; adibidez: inposizioa, euskara zaila, euskara ez da erabiltzen.

Euskararen irudi politizatua

- Euskararen irudi politizatua. Euskara ideologia eta alderdi jakinekin lotzen da, eta irudi hori alderdien ohiko jokamoldeek areagotzen dute. Hala ere, badiirudi gazteen artean aldagai horrek ez duela hainbesteko eraginik.

- Integrazioarako edo hibridazioarako estiloen ohitura txikia dago euskararen munduan.
- Zenbait erdaldunek jarrera itxia erakusten dute euskararen erabileraren aurrean.

Euskara praktikoa ez den diskurtsoa

- Jarrera aitortuei erreparatuz euskararen balio intrintsekoaren aurkako iritziak (euskarak balio ez izatea fisika nuklearra egiteko, hizkuntza pobrea izatea, etab.) gero eta gutxiago agertzen diren arren, sarri agertzen dira maila praktikora igarotzean; adib.: plangintza bat burutzean.

Ziurtasun falta euskara erabiltzeko

- Ziurtasun falta euskara erabiltzerakoan, euskal hitzun askorengan. Euskara “ona” eta “zuzena”ren eta euskara “egokia” eta “bizia”ren arteko lehia dago jarreraren ikuspuntutik. Oraindik gizartean ez da bereizten eredu formalaren eta informalearen arteko aldea.
- Hiper-zuzentasuna: ondo hitz egin behar da (askok ondo hitz egiten dute, baina asko dira ondo ez hitz egitearen ustea dutenak: euskaldun berriek, batua, euskara berria, eskolakoa; euskaldun zaharrek, etxekoa, landu gabekoa, alfabetatugabea; gazteek, euskatzen).

160

Badira euskararen garabidea ahultzen duten estrategia diskurtsiboak

- Ohiko diskurtso aldarrikatzaileak mugak ditu hedatzeko (bakarrik konbentzitu segmentuan funtzionatzen du) eta uzurrak uzurrago bihurtzeko erraztasuna du.
- Hegemoniaren kontzeptua eta ametsak “tortillari buelta ematea” moduko esanahia ekar dezake funtsean (“Nire ametsak zure amesgaiztoak dira; zure ametsak nire amesgaiztoak”).
- Nazionalismo linguistiko euskaltzalek eraturako diskurtsoak (herri bat, nazio bat, hizkuntza bat) nazionalismo linguistiko erdaltzalea areagotzen du.
- Bada alderdi politikorik euskara sustatzeko adostasun soziopolitiko instituzionaletik kanpo dagoenik.

Interbentzio ahaleginak ez dute beti asmatzen

- Jarreretan eragiteko kanpainetan sakabanaketa handiegia dago eta, motibazioetan eta portaeretan eragiteko helburua duten euskararen aldeko mezu ezberdinak biderkatuz, hiztunak nahastu egiten dira.

- Portaeretan eragiteko mezuak derrigortasunari eta emozio ezkorrei lotuta izatea: (“euskara erabili”, “euskaraz eta kitto”, “Ez baduzu euskararik erabiltzen hil egingo da”). Mezu baikorrak behar dira: “euskararekin gozatzen dugu” bezalakoak, eraginkorragoak direlako eta, are gehiago, portaeraren bitartez gozamen hori erakusten bada.
- Nahiz eta elebidunak izan, hiztunentzat erreferente diren pertsona asko batez ere erdaraz hitz egiten agertzen dira hedabideetan. Horrek prestigioa kentzen dio euskarari, erdararen mesedetan.

Ikerketetan hutsuneak motibazio eta jarreraren esparruan

- Orokorrean, motibazioak eta jarrerak gutxi aztertuta daude. Euskal soziolinguistikak normalean ez die motibazioei eta jarrerei behar besteko garrantzia eskaintzen, ez dizkie euren motibo eta behar linguistikoak galdetzen herritarrei, eta, beraz, ez da jakiten benetan eta sakonean zein diren. Adibidez, euskal soziolinguistikaren adierazpen nagusietakoa den Inkesta Soziolinguistikoan motibazioak ez dira gaitasunarekin eta erabilerarekin harremanetan jartzen.
- Herritarren motibo eta behar linguistikoak egitan jakin gabe, motibazio jarduerak maiz euskalgintzaren ohiko nahietatik egiten dira, ez herritarren nahi eta beharretatik, eta hortik zenbait arrisku: herritarrengan erresonantzia positiborik ez lortzea edota erreakzio uzkurrak eragitea.
- Soziolinguistikaren nazioarteko ereduak gutxitan erabiltzen dira euskararen esparruan.
- Ikerketetan, askotan ez dira ondo bereizten eta ez da gogoeta sakonik egiten jarrera motez: 1) axaleko jarrera aitortuak; 2) portaeretatik inferitzen diren jarrerak, ezkutuzko jarrerak.

5.3. Aukerak

Gizarte joera orokorra, integratzaileagoa

- Gizarte integratzailea egiteko joera handitzen ari da (eta horrekin batera, diskurtso integratzailean oinarritutako motibazioa garatzeko aukerak).
- Indarkeria gainditu ahala, aukera berriak zabaltzen dira Euskal Herriko identitate eta kulturaren inguruan gizarteak antzematen duen krisia hobeto bideratzeko.

- Egoera politiko berriak eta aniztasunaren balioaren zabalpenak euskarari buruzko balio-sorta berri eta erakargarria osatzeko aukera zabaltzen dute, eta horrela motibazio identitario ezberdinak, pragmatikoak eta integratzaileak elkarrekin existitzeko aukera agertzen da. Adibidez, Euskara 21 Batzorde-atalak abian jarri duen “Euskararen gaineko oinarriko diskurtsoen lanketa”.
- Hizkuntza politika alderdikieratik ateratzea, kontsentsu zabaletan oinarritutako planteamendu politiko eta instituzionalen bidez.

Hizkuntzen inguruko balio eta hautemate mota berriak eta anitzagoak

- Diskurtso ekolinguistikoaren eskutik zabaltzen ari den kultura eta hizkuntza aniztasunaren balioa hedatzea. Adibidez, EAEko biztanleriaren % 86k uste du hizkuntza guztiek garrantzi bera dutela eta biziraun dezaten neurriak hartu behar direla.
- Identitate partekatuetan oinarritzen den gizarte anitz poliedrikoan erraz txerta daiteke euskararen aldeko motibazioa, gainerako identitateak edo motibazioak ukatu beharrik izan gabe.

Euskararekiko jarrerren bilakaera

162

- Euskararekiko jarrera mesfidatia ahulagoa da gazteen artean, EAEko biztanleria osoan baino.
- Gizartean, oro har, euskarazko gaitasuna eta erabilerarako aukerak zabaltzearekin batera, aldeko jarrera ere zabaltzen jarraitzea.
- Euskara ezagutzeak dakarren sari sozialaren aitortzak motibazio instrumentala areagotzen du.
- Gizarte sektore zabal batean, jarrera teoriko edo ideologikoen eta portaeren arteko jauzi handiaren eraginez sortzen den disonantzia kognitiboa ere gaindi daiteke erabilerarako aukerak areagotuz.
- Portaera arrakastatsu eta eredugarriak ezagutaraziz, jarreretan eragitea. Adibidez, enpresetako normalizazio plan arrakastatsuak eta euskararen aurrerapausoen testigantza ematen duten egoerak (pertsonek erreferenteak, eremu formaletako erabilera normalizatua, argitalpen zientifikoak, jendaurreko bilerak, prentsaurrekoak eta abarrak) agerian jarri.
- Gizarte erreferente diren euskaldunek erdarazko hedabideetan euskara erabiltzea. Era horretan euskarari prestigioa emango zaio.

IKTen aukera berriak euskararentzat

- Gizarte sareen (Internet, etab.) bidez euskararen presentzia eta irudi baikorra zabaltzeko aukera, eta horrela eginez euskaratik aski urruti (eremu erdaldunenetara, atzerrira, zenbait gizarte sektoretara, etab.) dauden gune berrietara heltzeko aukera dago.
- Jarrera aitortuek Interneteko sareetako euskararen erabileran eragiten dute. Sare sozialetan euskaraz aritzeko argudioen artean jasotzen dira “euskararen presentzia bermatzea, euskal audientziara iristeko nahia eta lagun euskaltzaleen presioa”.

Motibazio eta jarreraren ezagutzan sakontzea

- Motibazio eta jarreraren inguruko ikerketak gero eta ugariagoak dira, eta ezagutza gero eta handiagoa lortzen ari da. Bertako ikerketa berriek egoera hobeto ezagutzeko eta horretan egokiago eragiteko aukera ematen dute. Adibidez: erdaldunen kasuan badirudi ohiko bi motibazio nagusiei (instrumentala eta integratzailea) barne-motibazioa vs kanpo-motibazioa gainezartzen ari zaiela.
- Amasgune kontzeptua hartzen ari den indarra.
- Motibazioen inguruko nazioarteko ezagutzak egin duen salto kualitatiboa baliatzea. Izan ere, horien bidez portaeretan eragiteko aukera handiagoa sortzen ari da: adibidez, sozioemozionalak, emozioak eta kognizioa lotuz, jarrera aitortuak eta ezkutukoak bereizteko ezagutzan sakonduz...

5.4. Mehatxuak**Hezkuntza sistema bidezko transmisioak mugak ditu**

- Gizarte eta familia ingurune euskaldunik ezean, euskararen irudikapena eskola eremuari soilik lotzeko arriskua dute ikasleek.
- Zenbait testuinguru soziolinguistikotako eskoletako transmisio hutsez, erdal elebidunak sortzen dira gehienbat; euskarazko gaitasun mugatu horrek esfortzu bat eskatzen du, eta frustrazioa zein jarrera ezkorrak sor ditzake erdaraz askoz erosoago sentitzen diren horiengan.

Hainbat faktorek eragin ezkorra izan dezakete euskararen bilakaeran

- Gizarte sektore zabal batean, jarrera teoriko edo ideologikoen eta portaeraren artean jauzi handia dago. Hortik sortzen den disonantzia kognitiboa gainditzeko jarrera teorikoak jardun erdaltzale errealerara egokitzeko mekanismoa aktiba daiteke, horren ondorioz euskararen aldekotasuna lausotuz.
- Krisiak areagotuta, ikuspuntu ekonomikoa nagusitzen ari da gizartearen edozein gai tratatzeko. Hortaz, dirua gutxiengo hizkuntzetan inbertitzea, dirua xahutzea litzateke. Hala ere, oraindik EAEko biztanleriaren gehiengoarentzat ezinbestekoa da euskararen sustapenean diru publikoa gastatzea.
- Euskararen amasguneetan hizkuntza horrek azken urteotan izan duen erabileraren jaitsiera ikusita, euskararen aldeko jarrera pragmatikoak ahuldu eta balio integratzailea jaitsi litezke leku horietan.
- Euskara, euskal identitatearen —euskaldun sentitzearen— ikurtzat hartzeko sentimendua jaisten ari da EAEn, nahiz oraindik nagusi den; Iparraldean zein Nafarroan euskara Euskal Herriko nortasunarekin ezinbestean lotzen da.
- Etorकिन hitzun taldeak neurri handi batean jarrera-motibazioak zehaztu gabe ditu. Ez alde eta ez aurka daude. Hala ere, talde hori aukera ere izan liteke.
- Komunikazioaren teknologia berriek identitateak aldatzen dituen neurrian, identitate anizkoitza eta plurala gero eta ohikoagoak izango dira. Aldaketa hori islatzen da hizkuntzarekiko jarreraren bilakaeran ere, eta EAEko gizartearen ehuneko handi batek (% 49k) argi zehaztu gabe ditu hizkuntzarekiko jarrerak, oinarriko aldekotasun batetik harago.
- Motibazio instrumentalak: ingelesa gero eta onarpen handiagoa ari da bereganatzen eta errealitate hori era desegokian kudeatuz gero euskararentzat ahulgarri izan daiteke.
- Diskurtso euskaltzale desegokiaren eraginez kontrako jarrera aktibatzea sektore axolagabeengan.

Etorbizunerako ikuspuntu pasiboa

- Oro har: herritarren % 68k uste dute euskararen garapena denborarekin konponduko dela, neska-mutilek eskolan dagoeneko ikasten dutelako.

6. AMIAREN LABURPEN TAULAK

6.1. Euskara-gaitasuna eta jabekuntza

Indarguneak	Ahuleziak
<p>Gaitasuna eta transmisioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gero eta elebidun gehiago, batez ere gazteenen artean • Familia bidezko transmisioa osorik bermatzen ari da • Elebidun gehienek euskara gorde egin dute • Elebidun ez ziren batzuek ikasi egin dute • Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira euskaldun berriak <p>Irakaskuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasle gehienak euskal eredueta unibertsitatez kanpoko ikasketetan, eta unibertsitatean gero eta gehiago euskal adarretan • Selektibitate frogetan ere euskara nagusi <p>Euskalduntze-alfabetatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara ikasten ari direnak dezente dira • Ikasleen galera eten egin da • Euskara ikastea merkeago • Mintzapraktika programaren arrakasta 	<p>Gaitasuna eta transmisioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaitasunari dagokionez lurralde batetik bestera dagoen aldea • Gune geografiko euskaldunenetan, azken 20 urteetan elebidunen kopuruak behera egin du • Elebidunen gorakada ez da lurralde guztietan gertatzen ari • Badira seme-alabei euskara transmititzen ez dietenak • Biztanle gehienek gaztelania soilik jaso dute etxean • Elebidunen multzoan gero eta gehiago dira erdal elebidunak, hegoaldean elebidunen multzorik zabalena osatuz • Elebidun hartzaileak gero eta gehiago dira, erraztasunean duen eraginarekin <p>Irakaskuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskoletan lortzen den euskara maila ez da behar adinakoa kasu askotan • Unibertsitate aurreko irakaskuntzan, euskarazko eredu banaketa oso ezberdina da lurralde batetik bestera • Oraindik ere Lanbide Heziketan A ereduak da nagusi • Ikasle gehienek gaztelaniaz ikasten dute unibertsitatean • Gradu-ondoko eskaintza gehiena ez da euskaraz • Doktorego tesietatik oso gutxi aurkezten dira euskaraz • Unibertsitatean euskararen normalkuntza motel <p>Euskalduntze-alfabetatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaltegi kopurua apur bat gutxitu da • Ikasle kopuruak behera egin du azken ikasturteetan • Ikastaroek gero eta trinkotasun gutxiago • EGA azterketa aurkeztu direnen % 22k gauditut dute soilik

Aukerak	Mehatxuak
<p>Gaitasuna eta transmisioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskarazko gaitasuna gazteenengandik hedatzen jarraitzea Familia bidezko transmisioa osorik bermatzea Familiaz kanpoko transmisioaren garrantzia <p>Irakaskuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> Euskarazko ikastereduen transmisio ahalmena bermatzea (unibertsitate aurreko ikasketetan) Graduatu elebidunen gorakadak ondo prestatu giza-baliabideak eskaintzen dizkio euskarari <p>Euskalduntze-alfabetatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Irakasleen esperientzia handiagoa, transmisioaren mesedetan Gero eta jende gehiago Mintzapraktika programetan parte hartzen 	<p>Gaitasuna eta transmisioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Elebidun askoren euskarazko gaitasun mugatuak ez du erabilera bermatzen Seme-alabei euskara ez transmititzearen arriskua <p>Irakaskuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> Eskoletako transmisio mugatua, frustrazio eta bazterketaren iturri Unibertsitateak, aldeak alde, nahi baino mantsuago ari dira euskalduntzen Unibertsitatean euskararen normalkuntza urruti <p>Euskalduntze-alfabetatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikasle kopuruaren beherakada Zabaldua dagoen iritzia da euskaraz jabetzeko prozesua zaila eta nekeza dela EGA azterketaren zalantzarako emaitzak Titulu bat lortzearekin euskalduntzea eman den iritzia Euskara ikasteko ordaindu beharreko matrikula

6.2. Euskararen erabilera

Indarguneak	Ahuleziak
<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobeak dira • Euskara erabiltzeko aukerak handitu egin dira • Erabilerak gora egin du azken 20 urteetan • Elebidunek euskara erabili egiten dute • Eskola giroko hizkuntza erabilera: dezentekoa ikasleek irakasleekin eta irakasleek euren artean <p>Erabilera administrazioan</p> <p>Herri Administrazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Herri administrazio gehienek badute euskara plana • Derrigortasun data ezarria duten lanpostuen egiaztatze maila handia da • Langileen prestakuntza euskarazko eskaintza gero eta handiagoa da • Erakunde-ordezkariei gehiengoak euskara badaki • 3. eta 4. tipologietako udal gehienek zerbitzu hizkuntza euskararen erabilera bermatzen dute • Erabilera oso ezberdina da administrazio batetik bestera, baina telefonoz egiten den arreta gehiena euskaraz da, eta idatzizko harremanetan eta hizkuntza paisaian ere elebitasuna da nagusi • Hizkuntza paisaian euskararen presentzia handia da • Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan • Elebidunak errazago aritzen dira euskaraz gune hauetan, gune erdaldunenetan gertatzen ez dena 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilerako goranzko joera apaldu egin da, eta egonkortzera jo du • Haurren erabilera altuaren prekarietatea • Erabilera oso apala da lurralde batzuetan • Erabileraren gorazko joera ez da eremu guztietan gertatu • Elebitasun mota guztiek ez dute erabilera bermatzen • Eskola giroan ikasleen erabilera jolaslekuan eta maila altuagoetan jaitsi egiten da • Interneteko gizarte sareetako euskararen erabilera mugatua da <p>Erabilera administrazioan</p> <p>Herri administrazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Abian diren erabilera planak xumeegiak dira hainbatetan • Lanpostuen erdiek baino ez dute derrigortasun datarik • Erakunde-ordezkariei euskararen ezagutza tokiko egoeraren menpe • Kanpoko eskaeretan, idatziz zein ahoz gaztelaniazko presentzia handiagoa da, herritarrak oraindik ere gaztelaniaz komunikatzen dira administrazioarekin • Erabilerari dagokionez, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntzaren artean desberdintasunak daude • Ahozko erabileran badira hobetu beharreko hainbat kontu • Idatzizko erabilerari dagokionez, ere oraindik hutsuneak nabarmenak dira • Hizkuntza paisaiari dagokionez, tresneria oraindik ere gaztelania hutsez leku askotan • Langileen etengabeko prestakuntza nagusiki gaztelaniaz egiten da • Diru-laguntza eta kontratazioetan ezarritako hizkuntza irizpideak ez dira beti betetzen

Indarguneak	Ahuleziak
<p>Sozietate publikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara planak indarrean dituzten sozietate publikoak • Euskararen erabilera mugatua da, baina badira esparru batzuk besteak baino garatuago <p>Gune geografiko euskaldunenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gune hauetan euskararen erabilera nahikoa handia da • Gazteenak eta helduenak dira gehienbat erabiltzen dutenak <p>Arlo sozioekonomikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Instituzioen politika eta legeriak erabilera bultzatzen dute • Zenbait enpresak parte hartzen dute lan-munduan euskararen erabilera sustatzeko • Parte hartzen duten enpresek konpromisoa berritzea ez ezik, enpresa berri gehiago gehitu dira • Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresek balorazio positiboa egiten dute • Normalizazio planetan parte hartzen duten enpresetako langileek lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dute • Erabilera planak sustatzeko diru-laguntzek gorantz egin dute • Enpresek euskara planetarako aurkeztutako aurrekontuek gehiago egin dute gora • Gero eta enpresa gehiago dira hizkuntza egiaztagiriak dituztenak 	<p>Sozietate publikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sozietate publiko gehienek ez dute euskara planik indarrean • Euskararen erabilera oso mugatua da hainbat esparrutan • Langileen joera nabarmena gaztelaniaz lan egitekoa da <p>Gune geografiko euskaldunenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adin tarte guztietan egin du behera erabilerak, gazteenen artean izan ezik <p>Arlo sozioekonomikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresetako egoeraren azterketa sakonaren falta • Instituzioen ekimenak ez du hainbatetan euskara kontuan hartzen • Enpresak dabilzan foroetan euskararen presentzia urria da • Euskara erabilera planetan ere lurraldeen arteko desorekak • Euskara planak aurrera eramateko zailtasunak • Langileen prestakuntza gaztelaniaz egiten da batez ere • Hizkuntza egiaztagirien balioa argi ez izatea

Aukerak

- Umeen eta gazteen erabilera handiagoa suspertzea, baita helduarora igaro ahala ere
- Gaiaren inguruko ikerketek erabileran eragiten duten faktoreak identifikatzea ahalbidetu dute, eta era horretan eragiteko aukerak handiagoak dira

Erabilera administrazioan**Herri administrazioa**

- Erabilera planak hedatzea eta sendotzea
- Ahozko eta idatzizko harremanetan euskaraz egiteko aukerak gehituz doaz
- Legeek ahalbidetzen dute idatzizko harremanak euskaraz izatea
- Hizkuntza paisaia, inprimakiak eta publizitatea euskararen erabileraren lagungarri
- Hizkuntza inzipideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan pizgarri

Sozietate publikoak

- Legeak nolabait behartzen ditu herritarrekin euskararen erabilera bermatzera

Gune geografiko euskaldunenak

- Erabilera aitortuak adin tarte guztietan behera egin badu ere, ez gazteen artean
- Erabilera behatua oraindik ez da hori atzeman
- Gune hauetako biztanle gehienak euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera baliatzea

Arlo sozioekonomikoa

- Erabilera planetan parte hartzen duten enpresen kopurua areagotzeko aukera

Mehatxuak

- Baldintza soziolinguistikoek sabaia jo omen dute, erabilerak aurrera egin dezan
- Ume eta gazteen euskararen oraingo erabilerak behera egitea, helduarora iritsi ahala
- Familia bidezko transmisioan aurrerapausorik ez ematea
- Haurren erabilera altuaren prekarietatea
- Gorabeherak elebidunen euskararen erabileran
- Espazioak erdaldunak izateak euskararen erabilera eragozten du
- Internet bidezko gizarte sareetan euskara baztertzea

Erabilera Administrazioan**Herri administrazioa**

- Krisiak irauten badu, euskararen aurrekontuen "doiketa"
- Erakunde-ordezkariek izan beharko luketen lidergoari ez eustea
- Erakunde batzuk euskararen normalkuntzatik kanpo gelditzea
- Langileen prestakuntzan hizkuntza normalkuntza ez izatea zehar-lerroko planteamendua
- Hizkuntza inzipideak "paper bustitza" jotzea

Sozietate publikoak

- Herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan hizkuntza ofizialen erabilera ez bermatzea
- Euskara plana onartuta duten sozietate publikoetan, plana azalekoa baino ez izatea

Gune geografiko euskaldunenak

- Euskararen amasguneak arriskuan egotera iristea

Arlo sozioekonomikoa

- Hizkuntza normalkuntzarako arlo ekonomikoak duen garrantzia aintzat zinez ez hartzea
- Euskara planak erdibidean gelditzea eta frustrazioarako motibo bihurtzea
- Lanbide Heziketan euskararen presentzia ez bermatzea
- Hizkuntza egiaztatagiriaren nahasmena, oztopo

6.3. Euskararen elikadura

Indarguneak	Ahuleziak
<p>Liburugintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argitaratutako liburu asko euskaraz argitaratzen dira • Oso heterogeneoa da euskarazko argitaratzaileen unibertsoa • Produktioa, batez ere, nobedadez hornitzen da, eta hezkuntzako liburuez eta haur literaturaz <p>Kulturgintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kultur ekoizpenean produktioaren zati handi bat euskaraz da • Merkatu txikia izanagatik, elebidunen euskarazko produktuen kontsumoa handia dela dirudi <p>Publizitatea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Publizitatea ele bitan egiteko joeraren areagotzea <p>Hedabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elebidunen artean euskal hedabideen kontsumoa zabaldua dago • Euskarazko hedabideek babes soziala eta ekimenerako gaitasuna dute • Eragiteko irakurle eta ikus-entzuleen profilak zehaztuak daude • Euskararen presentzia nabarmena tokiko hedabideetan • Irratiak oinarri egokiak dira beste hedabideak bultzatzeko • Euskarazko hedabideen industria sektorea osatua dago 	<p>Liburugintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aspaldiko euskal liburu gutxien argitaratu dira 2012an • Berrargitalpen gutxi egiten dira, liburu horien arrakasta eskasaren seinale? <p>Kulturgintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tamaina txikiko merkatua • Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira • Ikus-entzunezko produktioan gaztelania nagusi • Aurkezten diren antzezlanen kopurua jaisten ari da • Ordu onenetan erdarazko produktioak aurkezten dira • Antzerkia ikustera joaten den ikuslegoaren gutxitzea • Antzoki Publikoek (Euskal Herrian gehienak hala dira) eta kultur etxeek programatzen duten emanaldi kopurua jaitsi egin da eta emanaldi bakoitzeko aktore kopurua ere bai <p>Publizitatea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Publizitate munduan elebitasunari ematen zaion garrantzi eskasa • Agentziek gaztelaniaz lan egiten dute, eta itzulpenetara jo, horrek sortzen dituen arazoekin • Eragile guztiek dute zeresanik publizitateak hizkuntzaren ikuspegitik bizi duen egoeraren gainean • Esparru honetan ez da aurreratu beste esparru batzuetan adina • Hedabideek ez dute lan bateraturik egiten publizitatearen esparruan

Indarguneak	Ahuleziak
<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interneten dabilzanek euskaraz egiten dute sarean ere • Sare sozialetan dabilzanek euskarari freskotasuna eta erabilgarritasuna ematen diote • Sareetan euskaraz aritzeko argudioak eta bereziki euskaraz lantzen diren gaiak • Nahikoa zabala da euskarazko baliabideen eskaintza interneten 	<p>Hedabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hedabideen behategia ez izatea • Euskarazko hedabideen sustapen eta hedapenerako mugak • Elebidun askok euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak • Telebistan ikuslegoaren kopurua jaisten ari da • Kate gehiago, ikusle gutxiago • ETBI kateak arazo nabarmenak ditu • Tokiko telebista euskaldunak eta telebista publikoek harreman sendoagorik ez izatea • Helduak eta umeak elkarrekin ez bada ez dute beti euskara erabiltzen edota aukeratzen • 17-24 urtekoek telebista ikusten dute baina askotan Internetez <p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara menperatu arren, badira nagusiki sareetan gaztelaniaz aritzen direnak • Euskaraz ez aritzeko argudioetan ohitura eta euskarazko komunikazioaren mugak nabarmenduko genituzke

Aukerak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuak munduratzeko • Euskararen aldeko herri-elkarteen eta herri-mugimenduen kemena eta eskarmentua <p>Liburugintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itzulpenen goranzko joera atzeman da <p>Kulturgintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eduki interesgarriak euskaraz soilik jartzeak kontsumoa handitu dezake <p>Publizitatea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esparru garrantzitsua da, eta dagokion garrantzia eman behar zaio • Euskara gaztelania bezain baliagarria suerta liteke publiziterako • Pentsa liteke publizitatea gaztelania hutsean egiteak kalteak ekar diezazkiokeela marka bati • Legeak publizitatearen inguruan dabiltzan eragileak ahalegin bat egitera behartzen ditu <p>Hedabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elebidunen kopuruak gora egin du • Profesional gero eta prestatuagoak euskarazko hedabideetan • Euskal prentsan batasunaren aldeko bideak ematen ari dira • Euskalgintza instituzional eta sozialarekin ere bila daitezkeen sinergiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Globalizazio ekonomikoa eta kulturala euskal produktuentzat mehatxu ere izan daiteke <p>Liburugintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko argitaratzaileak gero eta leku gehiago hartzen ari dira • Etorkizunean indarra izango duen IKTen eremuak euskarazko publikazioan ez du indarrik erakusten • Itzulpenen gorakada, jatorrizko tituluaren beherakadaren gainean izan da hein handi batean <p>Kulturgintza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tamaina txikiko merkatua izatea • Euskal Kulturgintzaren zaugarritasuna • Antzezlanen aukeraketa murriztagoa • Lehen muntaketa erdaraz izateak euskarazkoa eskasagoa izatea dakar maiz • Egoera ekonomikoaren ondorioz, antzezlanen kalitatea txikitzen ari da • Bakarriketa eta mikroteatroko produkzio asko erdara hutsean plazaratzea <p>Publizitatea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elebitasunak zaildu egiten du sormen langintza • Itzulpenetan komunikazio publizitarioaren kodeak ez betetzea • Euskaraz sortzeko gai diren profesional gutxi dago <p>Hedabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hedabideen krisia • Elebidunen irakurtzeko eta, oro har, euskaraz egiteko zailtasunak mehatxu nabarmena dira • Kontsumitzailea doako produktua jasotzera ohitu da

Aukerak	Mehatxuak
<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek leku egin diezaiokete euskarari • Lagunekin sarera aurrez aurreko hizkuntza dinamika eramaten dute gazteek: aurrez aurrekoan eraginda beraz, sarean ere eragin daiteke • Euskara ondo kokatua dago Interneten • Internet gune erdaldunetako euskaldunentzat helduleku izan daiteke 	<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elebidunen harreman-sarea asko handitzean, harremanetan euskaldunen dentsitatea txikitzen da • Sarean maiz gertatzen den kode-nahasketak euskararen presentzia anekdotikoa izatera kondena lezake? • Hilabeteak dira Twitterreko euskarazko jarduna neurtzen dela, behera egiten ari da?

6. 4. Motibazioak eta jarrerak

Indarguneak	Ahuleziak
<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen aldeko oinarritzko jarrera aitortuak • Aldeko motibazioak jabekuntza eta transmisioaren mesedetan • Adostasun soziopolitiko instituzionala aldeko • Euskararen balioak: jakitea praktikoa da, integratzailea, positiboa... • Badira euskararen garabiderako positiboak izan diren estrategia diskurtsiboak ere 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen aldeko jarrerak, mugatuta • Gehiengoaren eskubideen diskurtsua egituratuago dago ekintza positiboarena baino • Euskararen irudi politizatua • Euskara praktikoa ez den diskurtsua • Ziurtasun falta euskara erabiltzeko • Badira euskararen garabidea ahultzen duten estrategia diskurtsiboak • Interbentzio ahaleginek ez dute beti asmatzen • Ikerketetan hutsuneak motibazio eta jarreraren esparruan

174

Aukerak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte joera orokorra, integratzaileagoa • Hizkuntzen inguruko balio eta hautemate mota berriak eta anitzagoak • Euskararekiko jarreraren bilakaera • IKTen aukera berriak euskararentzat • Motibazio eta jarreraren ezagutzan sakontzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza sistema bidezko transmisioak mugak ditu • Hainbat faktorek eragin ezkorra izan dezakete euskararen bilakaeran • Etorkizunerako ikuspuntu pasiboa

4. ERANSKINAK

I. PLANA EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA

Prozedura

Euskararen Aholku Batzordeak 2011ko urtarilaren 24an Artazan (Leioan) izandako Osoko Bilkuran abian jarriko zen Euskara 21 Batzorde-atal Bereziaren egiteko nagusia era honetan zehaztu zen: “Euskara 21 Batzorde-atalak egiteko nagusien artean izango du Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ondoren etorriko den ekintza plana diseinatzen eta edukiz betetzen laguntzea.”

EBPNren ebaluazioa egiteari begira, EBPNren helburuak zertan ziren erakutsiko zuten adierazleak zehazteko txostena abian jartzea enkargatu zion Batzordeak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari. Adierazleei buruzko txostena osatu eta lanerako esparrukako bost lantalde sortu ziren. Bestalde, EBPNren gaineko ekarpenak eskatu zitzaizkien kideei. Kideen proposamenak abiapuntu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak txosten bat atondu zuen eta batzordekideen esku jarri. Plan berriaren planteamenduan *Euskara 21* gogoeta prozesuaren ondorioz adostutako *Itun beritu baterantz* dokumentuaren ardatz nagusiak izan dira gidari.

Laburbilduz, *Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren* sarrera-testua osatzeko oinarriak honako hauek izan dira: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bera, horren gainean batzordekideek egindako oharretan oinarritutako txostena, *Itun beritu baterantz* izeneko dokumentua eta euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak biltzen dituen txostena.

Horrela, sarrera-testuaren lehenengo bertsioa Batzorde-atal Bereziako Batzorde Iraunkorreko kideen esku jarri zen 2011ko irailean. Batzorde Iraunkorreko kideen ekarpenak jaso ondoren, Euskara 21 Batzorde-ataleko kide guztiei bidali zitzairen, beraien ekarpenak eta oharrak jasotzeko. 2011. urtea amaitu baino lehen ESEPen sarrera-testua osatuta zegoen.

2012ko lehenengo hiruhilekoan, Euskara 21eko lan-taldeek bilerak burutu zituzten esparrukako neurri eta ekintza proposamenak aztertu eta adosteko:

- 1. lantaldea: Familia bidezko transmisioa, Irakaskuntza eta Euskalduntze-alfabetatzea
- 2. lantaldea: Administrazioa eta Gune Euskaldunenak
- 3. lantaldea: Enpresa mundua, Aisia eta kirola, eta Motibazioa
- 4. lantaldea: Hedabideak, eta Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

- 5. lantaldea: Liburugintza, Kulturgintza, Publizitatea, Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, Kanpoko proiektzioa eta Barruko proiektzioa

Lantaldeek egindako proposamenak hainbat eragileren ekarpenarekin osatu eta behin-behineko ESEP gizartearen esku jarri zen maiatzaren 24an, Euskara 21 blogaren bitartez. Behin-behineko planaren gizarteratzea bideratzeko, mezuak bidali zitzaizkien enpresariei, hedabideei, euskalgintzako eragileei Euskara 21 blogaren berri emanez eta parte hartzeko gonbitea luzatuz.

Bestalde, hainbat aurkezpen bilera egin zen, euskaltegietako ordezkariekin eta euskarazko hedabideen ordezkariekin, besteak beste.

Gizartearen ekarpenak jasotzeko epea amaitu ondoren, Euskara 21 Batzorde-ataleko Batzorde Iraunkorrek bilera egin zuen, jasotako proposamenak aztertu, eztabaidatu eta adosteko xedez. Ondoren, Euskara 21 Batzorde-atalak bilera burutu zuen Batzorde Iraunkorrek landutako proposamena kide guztien artean eztabaidatu eta adosteko.

Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran aurkeztu eta onartu zen Plana 2012ko uztailearen 18an.

Azkenik, 2012ko uztailearen 24an, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea onartu zuen.

Egutegia

2011-02-22	Euskara 21 Batzorde-atalaren bilera: EBPnren adierazleak zehazteko txostena abian jarri
2011-04-12	Euskara 21 Batzorde-atalaren bilera: adierazleei buruzko txostena aurkeztu eta EBPnren gaineko ekarpenak kideei eskatu
2011-05-31	EBPnren gaineko ekarpenak jasotzeko azken eguna
2011ko uztaila	Ekarpenak abiapuntu, txostena osatu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta batzordekideen esku jarri
2011-09-27	Planaren Sarrera proposamena Euskara 21 Batzorde-atal Iraunkorreko kideei aurkeztu
2011-10-07	Euskara 21 Batzorde-atal Iraunkorreko kideen ekarpenak jaso
2011-10-13	Sarrera proposamena Euskara 21 Batzorde-ataleko kideei luzatu
2011-10-31	Euskara 21 Batzorde-ataleko kideen ekarpenak jasotzeko azken eguna
2011-11-22	Euskara 21 Batzorde-atal Iraunkorraren bilera: Sarrerari kideek egindako oharra aztertu eta proposamena adostu
2011-10-13	Euskara 21 Batzorde-ataleko kideei Sarrera dokumentu osatua bidali
2011-11-29	Euskara 21 Batzordearen bilera, Sarrera dokumentua adosteko eta esparruak lantzen hasteko
2012- 01/03	Esparrukako lan-taldeen bilerak: ekarpenak aztertu eta proposamena adostu
2012-03-12	Proposamenak errebisatu eta lan-taldeetako kideei bidali
2012-03-26	Lan-taldeetako kideen ekarpenak jaso
2012-03-27	IKT Batzordearen bilera esparruko ekarpenak jasotzeko
2012-04-18	Euskara 21 Batzorde-atal Iraunkorraren bilera ekarpenak aztertzeko eta adosteko

(…)

2012-05-11	Euskara 21 Batzorde-ataleko bilera proposamena adosteko
2012-05-24	ESEP gizarteratzeko prozesua abian jarri
2012-06-24	Ekarpenak jasotzeko azken eguna
2012-07-03	Euskara 21 Batzorde-atal Iraunkorraren bilera: ekarpenak aztertu eta proposamena adostu
2012-07-11	Euskara 21 Batzorde-ataleko bilera: Planaren proposamena osatu
2012-07-18	Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkuran Plana onartu
2012-07-24	Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea erabaki

2. EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN JARRAIPENA EGITEKO URRATSAK

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana osatzen duten neurri eta ekintza-proposamenen betetze-maila aztertu eta ebaluatu beharko du aurrerantzean Euskararen Aholku Batzordeak. Horretarako, Planean onartutako neurri-proposamenen jarraipena egiteko ebaluazio-adierazleak finkatu dira. Horien inguruko informazioa aldi-aldi jasoko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, horretarako zehaztu eta garatuko diren prozedurak eta tresnak erabiliz.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren jarraipena egiteko, Eusko Jaurlaritzak honako neurketa-une hauek aurreikusi ditu, kontuan izanik Planak hamar urteko ibilbidea izango duela:

1. Plana abian jarri eta lehenengo urtean adierazleetan oinarritutako lehen neurketa egingo da; horrela, abiapuntuko egoeraren argazki ahalik zehatzena lortu ahal izango da. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, 2013. urtean zehar egingo da lehenengo neurketa. Lehen neurketa horrek, besteak beste, adierazleei lotutako helburu zehatzak finkatzeko balioko du.
2. Plana indarrean jarri eta 5. urtean tarteko ebaluazioa egingo da.
3. Planaren indarraldia amaitzen denean, hau da, 10 urte bete eta hurrengo urtean Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren bukaerako ebaluazioa egingo da.

Neurketa-une hauek planari bere osotasunean dagozkio, bere barne hartzen dituen hamasei esparruei aldi berean. Edonola ere, plana osatzen duten esparru horiek maiztasun gehiagoko ebaluazio partzialak izan ditzakete, beharren arabera.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planean proposatutako adierazleen jarraipena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bere gain hartuko badu ere, erakunde bakoitzak aldiro planaren betetze-maila neurtzeko informazioa bildu beharko luke eta Euskararen Aholku Batzordearen esku jarri. Planaren aldiroko ebaluazioak neurrien eraginkortasunaren inguruan datu baliotsuak eskainiko ditu, planak duen norabide orokorraren eta hura osatzen duten ekintza berezien gaineko gogoeta etorkizunean bideratzeko baliagarriak izango direnak.

3. EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa (2014)

Erakundeetako ordezkariak:

1. Lehendakaria: Iñigo Urkullu Renteria jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
2. Lehendakariordea: Cristina Uriarte Toledo andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua
3. Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, Hizkuntza Politikarako sailburuordea
4. Joseba Erkizia Itoitz jauna, HABEko zuzendari nagusia
5. Odile Kruzeta Olañeta andrea, EITB Irratiaren zuzendaria, Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiak proposatua
6. Ane Urkiola Alustiza andrea, Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu zuzendaria, Ogasun eta Finantza sailburuak proposatua
7. Arantza Aurrekoetxea Bilbao andrea, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak proposatua
8. Maite Iruretagoiena Iburguren andrea, IVAPEko zuzendari nagusia
9. Iciar Lamarain Cenitagoya andrea, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, Arabako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua
10. Ana de Castro Rubalcaba andrea, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez izendatua
11. Zigor Etxeburua Urbizu jauna, Euskara zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua
12. Andoni Busquet Elorrieta jauna, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria
13. Andres Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiaren proposamenez izendatua
14. Jorge Giménez Bech jauna, Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria

Adituak:

Kike Amonarriz Gorria jauna
 Itsaso Andueza Fernandez andrea
 Iban Arantzabal Arrieta jauna
 Joseba Arruti Lafuente jauna
 Lourdes Auzmendi Aierbe andrea
 Martin Auzmendi Aierbe jauna
 Miren Azkarate Villar andrea
 Francisco Javier Azpiazu Lasuen jauna
 Mikel Belasko Ortega jauna

Maren Belastegi Guridi andrea
 Garbiñe Biurun Mancisidor andrea
 Allande Boutin jauna
 Jasone Cenoz Iragi andrea
 Maite Etxaniz Balentziaga andrea
 J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
 Ramon Etxezarreta Aizpuru jauna
 Aizpea Goenaga Mendiola andrea
 Maite Goñi Eizmendi andrea
 Jokin Gorozika Bidaurrezaga jauna
 Jone Miren Hernandez Garcia andrea
 Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea
 Pilar Kaltzada Gonzalez andrea
 Elena Laka Muñoz andrea
 Miren Elixabete Larrinaga Artetxe andrea
 Joseba Lozano Santos jauna
 François Maitia jauna
 Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
 Iñaki Martinez de Luna Perez de Arribas jauna
 Mertxe Mugika Balanzategi andrea
 Joxean Muñoz Otaegi jauna
 Eneko Oregi Goñi jauna
 Xabier Paya Ruiz jauna
 Carlos Ruiz Gonzalez jauna
 Pello Salaburu Etxeberria jauna
 Jon Sarasua Maritxalar jauna
 Pablo Suberbiola Unanue jauna
 Kirmen Uribe Urbietta jauna
 Miriam Urkia Gonzalez andrea
 Vanessa Vélez De Pablos andrea
 Xarles Videgain jauna

Eusko Legebiltzarrak proposatutakoak:

Lorea Bilbao Ibarra andrea
 Paul Bilbao Sarria jauna
 Alberto Lopez Basaguren jauna
 Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
 Xabier Olabarrieta Amaiz jauna

Euskararen Aholku Batzordeko Euskara 2I Batzorde-atal Berezia

Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Batzorde-ataleko burua

Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba jauna, Batzorde-ataleko zuzendaria

Jorge Giménez Bech jauna, Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria

Xabier Aizpurua Telleria jauna

Estibaliz Alkorta Barragan andrea

Kike Amonarriz Gorria jauna

Arantza Aurrekoetxea Bilbao andrea

Lourdes Auzmendi Aierbe andrea

Martin Auzmendi Aierbe jauna

Miren Azkarate Villar andrea

Maren Belastegi Guridi andrea

Olatz Beobide Egaña andrea

Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna

Lorea Bilbao Ibarra andrea

Paul Bilbao Sarria jauna

Jon Bollar Intxausti jauna

Allande Boutin jauna

Andoni Busquets Elorrieta jauna

Ana de Castro Rubalcaba andrea

Jasone Cenoz Iragi andrea

Miren Dobarán Urrutia andrea

Amaia Elizagarate Sagastibeltza andrea

Xabier Erize Etxegarai jauna

Zigor Etxeburua Urbizu jauna

J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna

Ramón Etxezarreta Aizpuru jauna

Aizpea Goenaga Mendiola andrea

Jokin Gorozika Bidaurreazaga jauna

Lionel Joly Zharrase jauna

Pilar Kaltzada Gonzalez andrea

Odile Kruzeta Olañeta andrea

Elena Laka Muñoz andrea

Carlos Ruiz Gonzalez jauna

Iciar Lamarain Cenitagoya andrea

Miren Elixabete Larrinaga Artetxe andrea

Alberto Lopez Basaguren jauna

Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna

Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea

Mertxe Mugika Balanzategi andrea

Itziar Nogeras Berra andrea
Eneko Oregi Goñi jauna
Pello Salaburu Etxeberria jauna
Jon Sarasua Maritxalar jauna
Iñaki Ugarte Rekarte jauna
Kirmen Uribe Urbieta jauna
Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
Xarles Videgain jauna

Euskararen Aholku Batzordeko Idazkaritza Teknikoa

Ane Crespo Calvo andrea, Hizkuntza Plangintzako arduraduna
Jone Aboitiz Legarra andrea, Hizkuntza Plangintzako teknikaria
Elene Etxezarreta Etxeberria andrea, Hizkuntza Plangintzako teknikaria

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako lantaldea

AMIA osatzen parte hartu duten beste eragile batzuk:

HPSko Plangintza eta Azterlanetako Zerbitzua
Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

